



**EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA**
Industria Sailburuordetza
*Energiaren, Meategien eta Industria
Administrazioaren Zuzendaritza*

**DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE**
Viceconsejería de Industria
*Dirección de Energía, Minas y
Administración Industrial*

GIDA TEKNIKOA:

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO JASANGARRITASUN ENERGETIKOARI BURUZKO OTSAILAREN 21EKO 4/2019 LEGEAREN ERREGELAMENDU-GARAPEN BATERATUA ETA HORRI BURUZKO IRUZKINAK.



AURKIBIDEA:

GIDA TEKNIKO HONEN XEDEA ETA EGITURA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO JASANGARRITASUN ENERGETIKOARI BURUZKO OTSAILAREN 21EKO 4/2019 LEGEAREN ATALAK

I. TITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua.– Xedea.
2. Artikulua.– Aplikazio-eremu subjektiboa.
3. Artikulua.– Aplikazio-eremu objektiboa.
4. Artikulua.– Definizioak.
5. Artikulua.– Helburuak.
6. Artikulua.– Printzipioak.

II. TITULUA: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOA

I. KAPITULUA: JASANGARRITASUN ENERGETIKOA POLITIKA PUBLIKOETAN TXERTATZEA ETA ERAKUNDEARTEKO KOORDINAZIOA

7. Artikulua.– Lurraldearen antolamendua eta hirigintza.
8. Artikulua.– Jasangarritasun energetikoari buruzko politika koordinatzea.
9. Artikulua.– Jasangarritasun energetikoaren batzordeak.
10. Artikulua.– Parte-hartzea.

II. KAPITULUA: HELBURUAK ETA EKINTZAK

1. ATALA Helburuak eta Ekintza Orokorrak

11. Artikulua.– Inbentarioa.
12. Artikulua.– Kontsumoen kontrola.
13. Artikulua.– Auditoretza energetikoak.
14. Artikulua.– Energia-jarduketan planak.
15. Artikulua.– Bultzada-neurriak.
16. Artikulua.– Energia-aurrezpenaren ehunekoak.
17. Artikulua.– Iturri berriztagarrietatik datorren energia erabiltzea.
18. Artikulua.– Instalazioak, ekipoak, flotak eta ibilgailuak berritzea.

2. ATALA Eraikinak

19. Artikulua.– Lehendik dauden eraikinen kalifikazio energetikoa.
20. Artikulua.– Eraikin berrien eta eraberritze integralak egin behar zaizkien eraikinen kalifikazio energetikoa.

3. ATALA Garraioa eta Mugikortasuna

21. Artikulua.– Ibilgailuetan ordezkotza erregaiak erabiltzea.
22. Artikulua.– Bidaiariak errepidez eramateko zerbitzu publikorako ibilgailuak.
23. Artikulua.– Ibilgailuen zirkulazioari mugak jartzea.
24. Artikulua.– Mugikortasun-planak.



4. ATALA Beste Betebehar Batzuk

- 25. Artikulua.– Eragindako administrazio publikoen laguntza.
- 26. Artikulua.– Neurriak publiko egitea.
- 27. Artikulua.– Prestakuntza.
- 28. Artikulua.– Etiketak ikusgai jartzea.

III. TITULUA: SEKTORE PRIBATUA

I. KAPITULUA: INDUSTRIA-SEKTOREA

- 29. Artikulua.– Aplikazio-eremua.
- 30. Artikulua.– Auditoretza energetikoak.
- 31. Artikulua.– Kudeaketa energetikoa.
- 32. Artikulua.– Lantokietako mugikortasun-planak.
- 33. Artikulua.– Eraikinen ziurtapen energetikoa.
- 34. Artikulua.– Hidrokarburu likidoak ezabatzea.

II. KAPITULUA: BESTE JARDUERA-SEKTORE BATZUK

1. ATALA Zerbitzu Pribatuak eta Merkataritza

- 35. Artikulua.– Aplikazio-eremua.
- 36. Artikulua.– Auditoretza energetikoak.
- 37. Artikulua.– Kudeaketa energetikoa.
- 38. Artikulua.– Lantokietako mugikortasun-planak.
- 39. Artikulua.– Ziurtapen energetikoa.
- 40. Artikulua.– Hidrokarburu likidoak ezabatzea.

2. ATALA Bizitegi-sektorea eta Hirigintza-garapen berriak

- 41. Artikulua.– Aplikazio-eremua.
- 42. Artikulua.– Bizitegi-sektorearen betebeharrak aurretik dauden eraikinetan.
- 43. Artikulua.– Bizitegi-sektorearen betebeharrak eraikin berrietan.
- 44. Artikulua.– Eraikingintza jasangarria sustatzea.

3. ATALA Garraio Pribatua

- 45. Artikulua.– Aplikazio-eremua.
- 46. Artikulua.– Garraio pribatuko floten baldintzak.

III. KAPITULUA: SUSTATZEKO NEURRIAK ETA BORONDATEZKO AKORDIOAK

- 47. Artikulua.– Borondatezko akordioak.
- 48. Artikulua.– Etiketa informatiboa erakustearen normalizazioa.
- 49. Artikulua.– Prestakuntza-planak.
- 50. Artikulua.– Lege honetan jasotako jarduketak finantzatzea eta alor energetikoan laguntzak jasotzea.
- 51. Artikulua.– Jasangarritasun energetikoari buruzko dibulgazioa eta sentsibilizazioa.

IV. TITULUA: GARDENTASUN- ETA INFORMAZIO-NEURRIAK

- 52. Artikulua.– Enpresa energetikoen betebeharrak.
- 53. Artikulua.– Instalazio berriztagarrien erregistroa.



- 54. Artikulua.– Kontsumitzaileen eskubideak.
- 55. Artikulua.– Energia-kontsumitzaileak.
- 56. Artikulua.– Toki-administrazioak.

V. TITULUA: IKUSKAPENA, KONTROLA ETA ZEHAPEN-ERREGIMENA

I. KAPITULUA: ZAINZA-, IKUSKAPEN- ETA KONTROL-ERREGIMENA

- 57. Artikulua.– Zaintza-, ikuskapen- eta kontrol-modalitateak.
- 58. Artikulua.– Ikuskapen eta kontroleko erakunde kolaboratzaileak.
- 59. Artikulua.– Ikuskapen-akta.
- 60. Artikulua.– Ikuskatzaileen ahalmenak.

II. KAPITULUA: ARAU-HAUSTE ETA ZEHAPENAK

- 61. Artikulua.– Eskumena eta prozedura.
- 62. Artikulua.– Arau-haustek.
- 63. Artikulua.– Erantzuleak.
- 64. Artikulua.– Zehapenen sailkapena.
- 65. Artikulua.– Arau-hauste oso astunak.
- 66. Artikulua.– Arau-hauste astunak.
- 67. Artikulua.– Arau-hauste arinak.
- 68. Artikulua.– Zehapenak mailakatzea.
- 69. Artikulua.– Arau-hauste eta isunen preskripzioa.
- 70. Artikulua.– Behin-behineko neurriak.
- 71. Artikulua.– Isun hertsatzaileak.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Partzuergoak eta mankomunitateak.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Oinarrizko erreferentzia maila administrazio publikoentzat.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Energia-kontsumo ia nuluko eraikinak.

LAUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektoriala.

BOSGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Tokiko erakundeei laguntzeko finantza-tresna.

AZKEN XEDAPENAK

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENA.– Erregelamenduzko garapenerako eskumena ematea.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Zenbatekoak eguneratzea.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA.– Zenbait erakunderen jasangarritasun energetikoko planak.

AZKEN XEDAPENETAKO LAUGARRENA.– Kontsumitzaile handien adierazpena.



AZKEN XEDAPENETAKO BOSGARRENA.– Indarrean sartzea.

I. ERANSKINA: ENERGIA-MOTA BAKOITZEKO KONTSUMOAREN URTEKO JAKINARAZPENA.

II. ERANSKINA: ORDEZKO ERREGAIEN IDENTIFIKAZIO-ETIKETAREN EREDUA



GIDA TEKNIKO HONEN XEDEA ETA EGITURA

Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legeak, hemendik aurrera LEGEAk, jasangarritasun energetikoaren oinarriko esparru juridikoa ezartzen du, hala euskal administrazio publikoen eremuan, nola sektore pribatuan, eta ondorio horietarako, bere aplikazio-eremuaren eraginpean daudenek bete beharreko eginbeharrak eta betebeharrak zehazten ditu. Eginbehar eta betebehar hauek, batez ere, energia aurrezteko eta eraginkortasun energetikoari buruzko neurriak zein energia berriztagarriak sustatu eta ezartzeko neurriak bultzatzera bideratuta daude.

2019ko otsailean LEGEA indarrean jarri zenetik, alderdi jakin batzuk erregelamendu bidez garatu beharra nabarmendu da, xedea baita: arauaren hutsuneak betetzea, prozedurak eta kontzeptuak zehaztea, bai eta interpretazio-zalantzak argitzea ere, hala legeak ezartzen dituen betebeharrei dagokienez, nola legeak aitortzen dituen eskubideen baliatzeari dagokionez. Era horretan, segurtasun juridikoa handitzeaz gain, legearen aplikazioa ahalik eta azkarrena eta eraginkorrena izatea ere ahalbidetzen da.

Gida tekniko honen bidez, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saiak duen xedea aldizkako eguneratzeen bidez dokumentu bizi bat garatzea da, LEGEA irakurtzean sor daitezkeen zalantzak argitzeko. Horretarako, LEGEAren egitura jarraituz bertan ezarritakoa zabaldu eta argitu egiten da, lehen maila batean, LEGEA garatzeko xedea duten Dekretu edo beste erregelamendu batzuk egindako berariazko erreferentzien bidez, eta bigarren maila batean, azalpenak, erreferentziak eta/edo adibide aplikagarriak sartuz.

Aipatutako mailen egitura, gida tekniko honetan erabiliko dena, horrela adieraziko da:

Otsailaren 21eko 4/2019 Legearen artikulua.

Otsailaren 21eko 4/2019 Legearen artikulua hitzez-hitzeko testua.

LEGEA garatzeko xedea duen Dekretu edo beste erregelamendu baten artikuluari erreferentzia

Aipatzen ari garen LEGEAren artikulua garatzen, zabalitzen edo argitzen duen Dekretu edo beste erregelamendu baten artikulua testua.

Bai LEGEAren artikulua, baita hura garatzen duen Dekretu edo beste erregelamendu baten artikulua testua ere zehazten duenaren argibidea, erreferentzia eta/edo ezarpen adibidea.

Iruziketan, otsailaren 21eko 4/2019 Legeari egindako erreferentziak LEGEA erreferentziapen jasota daude.

Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko azaroaren 10eko 254/2020 Dekretuari egindako erreferentziak, 254/2020 DEKRETUA erreferentziapen jasota daude.



**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
JASANGARRITASUN ENERGETIKOARI BURUZKO
OTSAILAREN 21EKO 4/2019 LEGEAREN
ERREGELAMENDU-GARAPEN BATERATUA
ETA HORRI BURUZKO IRUZKINAK.**

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.– Xedea.

Lege honen xedea da, energia-politikaren joera orokorra kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan eta sektore pribatuan jasangarritasun energetikoaren arau-oinarriak ezartzea, eta batzuek eta besteek zer eginbehar eta betebehar dituzten antolatzea. Batez ere, energia-aurrezpeneko eta efizientzia energetikoa izateko neurriak bultzatzera bideratuko dira eginbehar eta betebehar horiek, bai eta energia berriztagarriak sustatzera eta ezartzera ere..

2. artikulua.– Aplikazio-eremu subjektiboa.

1.– Lege honen ondorioetarako, hauek dira Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoak:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa, haren mendeko edo hari lotutako erakundeak barne.

[254/2020 DEKRETUA] 7. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa.

Dekretu honetan ezarritako ondorioetarako, honako hauek jotzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikotzat: Eusko Jaurlaritzako sailak, horren erakunde autonomoak, zuzenbide pribatuko ente publikoak, sozietate publikoak, autonomia-erkidegoko sektore publikoko fundazioak eta nortasun juridikoa duten partzuergoak, zeinak aipatuta baitaude Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko azaroaren 11ko 1/1997 Legearen testu bateginaren 7.4.c) artikuluan.

Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginak bere 7. artikuluan jasotzen duenez:

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoa Administrazio Orokorrak eta Administrazio Instituzionalak osatzen dute.

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 53. artikuluan aipatzen den Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa edo Administrazio Orokorra da lurralde-izaerako erakunde bakarra.

Administrazio Instituzionala honako hauek osatzen dute: zuzenbide publikoaren mende dauden Erkidegoko erakunde instituzionalek (Erakunde autonomo izena hartzen dute) eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoek.

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa honako hauek osatzen dute: Administrazio Orokorrak edo Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, Administrazio Instituzionalak, sozietate publikoek, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazioek eta nortasun juridiko propioa duten partzuergoek, zeinak Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 6. artikuluko 5. paragrafoan, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 87. artikuluan aipatzen diren, azken honen



kasuan baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten entitateetako batek edo batzuek diru, ondasun edo industria bera eman badute, edo, eratzeko unean, erakunde hori gehiengoz finantzatzeko konpromisoa hartu badute, eta erakunde horren egintzak zuzenean edo zeharka Erkidegoko organo baten erabaki-ahalmenaren mende badaude.

Horregatik guztiagatik, LEGEAn Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa aipatzen denean, hari lotutako edo haren mendeko erakundeak barne, ulertu behar da Euskal Autonomia Erkidegoko Arlo Publikoa aipatzen dela.

Euskal Autonomia Erkidegoko Arlo Publikoaren osaera Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Sailaren webgunean kontsulta daiteke, esteka honen bidez:

<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/finantza-informazio-publikoa/hasiera/>

b) Lurralde historikoetako administrazioak, haien mendeko edo beraiei lotutako erakundeak barne.

Arabako Foru Aldundiarekin lotura duten erakundeen zerrenda honako esteka honen bidez kontsulta daiteke:

<https://irekia.araba.eus/eu/erakunde-publikoak>

Bizkaiko Foru Aldundiarekin lotura duten erakundeen zerrenda honako esteka honen bidez kontsulta daiteke:

<https://web.bizkaia.eus/eu/web/educacion-tributaria/bizkaiko-foru-aldundiarekin-lotuta-dauden-entitateak>

Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lotura duten erakundeen zerrenda honako esteka honen bidez kontsulta daiteke:

<http://www.gipuzkoairekia.eus/eu/gardentasun-xehetasun/>

c) Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko erakundeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legean definitzen diren moduan.

d) Udalerria baino lurralde-eremu txikiagoko erakundeak.

[254/2020 DEKRETUA] 2. artikulua.– Aplikazio-eremu subjektiboa.

1.– Dekretu honen aplikazio-eremu subjektiboa ezarrita dago Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legearen 2. artikuluan.

2.– Dekretu honetan xedatutakoak toki-erakundeen mendeko erakundeei ere eragingo die, hartzen duten forma hartzen dutela (erakunde autonomoak, enpresa-erakunde publikoak, toki-erakunde baten kontrola duten edo, partaidetza osoa edo partaidetza maioritarioa duten, merkataritza-sozietateak, fundazioak eta irabazi-asmorik gabeko bestelako erakundeak, interes orokorreko xedeak egiteko eratuak, eta partzuergoak).

Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeen zerrenda honako esteka honen bidez kontsulta daiteke:

<https://www.euskadi.eus/toki-erakunde-erregistroa/web01-a2tokiad/eu/>

e) Euskal Herriko Unibertsitatea, haren mendeko edo hari lotutako erakundeak barne.

2.– Administrazio haien mendeko edo beraiei lotutako erakundetzat jotzen dira erakunde autonomoak, zuzenbide pribatuko erakunde publikoak, sozietate publikoak, sektore publikoko fundazioak eta nortasun juridiko propioa duten partzuergoak, lege honen lehenengo xedapen gehigarrian aipatuak alegia.



3.– **Sektore pribatuzat joko da, lege honen III. tituluan garatzen diren baldintzetan:**

- a) Industria-sektorea.**
- b) Eremu pribatuko zerbitzu-sektoreko establezimendu eta instalazioak.**
- c) Bizitegi-etxebizitzan eraikin eta instalazioak.**
- d) Salgai eta bidaiarien garraio pribatua, mota guztietan.**

3. artikulua.– Aplikazio-eremu objektiboa.

1.– **Lege honen aplikazio-eremuan sartuta dauden erakunde edo subjektuek jabetzan dituzten eraikinei, instalazioei eta ibilgailu-atalari aplikatuko zaie lege hau, bai eta hirugarren pertsona batzuei alokatuta badaude ere.**

[254/2020 DEKRETUA] 3. artikulua.– Aplikazio-eremu objektiboa.

2.– Energia-kontsumoei lotutako preskripzioei dagokienez, otsailaren 21eko 4/2019 Legeak behartzen dituen subjektuak dira kontsumoen erantzuleak, alde batera utzita jardueretarako erabiltzen dituzten eraikinen edo erakin-zatiren baten, instalazioen edo ibilgailuen jabeak diren.

3.– Otsailaren 21eko 4/2019 Legeak behartu eta euskal administrazio publikoetakoak diren subjektuak ez dira erantzule izango, lege horretan ezarritako betebeharrak betetze aldera, aipatutako subjektuek kudeatutako etxebizitzetako edo lokaletako kontsumo energetikoez, baldin eta, eremu pribatuan, pertsona fisiko edo juridikoek erabiltzen badituzte hauetaz baliaturik: errentamendu-araubidea, biztante-eskubidea edo gozamen-eskubidea.

Era berean, lege hau aplikatuko zaie 2. artikuluan jasotako erakundeen plan, legegintza-proiektu eta kontratazio-prozedurei, zeinen barne-arautegiak lege hau betetzeko beharrezkoak diren helburu eta neurriak jaso beharko dituen.

2.– **Lege honen eremu objektibotik kanpo geratzen dira egoera hauetakoren batean dauden eraikinak:**

a) Aurreko artikuluan aipatzen diren subjektu edo erakundeek alokairuan hartutakoak, betiere titularra, 2. artikuluan ezarritakoaren arabera, lege hau aplikatu ezin zaion hirugarren pertsona bat bada.

b) Atzerrian kokatuta daudenak.

c) Behin-behinean erabiltzekoak, aurreikusitako erabilera-epea bost urtekoa edo gutxiagokoa bada.

d) Hirigintzako, historia- eta arte-ondarea babesteko edo antzeko beste arrazoi batzuk egoteagatik, lege honek ezartzen dituen neurriak aplikatu ezin zaizkien eraikinak.

Hala ere, kanpo utzitako eraikinak birgaitzeko, teknikoki justifikatu beharko da ezen birgaikuntza horrek alderdi energetikoa jasotzen duela eta ahalik eta efizientzia energetikorik handiena lortzea ahalbidetzen duela.

3.– **Lege honetan jasotakoa aurreko artikuluan jasotzen diren Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek sinatutako kontratu publikoetan ere aplikatuko da.**

4. artikulua.– Definizioak.

Lege honen ondorioetarako, honela ulertzen dira honako hauek:

a) Akreditazioa: akreditazioak emateko ahalmena duen erakunde batek begiztatzea jarduera jakin bat egiteko eskatutako baldintza eta betekizun teknikoak betetzen direla.



b) Borondatezko akordioa: jasangarritasun energetikoko zenbait neurri betetzeko konpromisoa, legez eskatutako gutxienekoak gainditzen badira.

c) Energia-aurrezpena: aurreztutako energia kantitatea –efizientzia energetikoa hobetzeko neurriren bat aplikatu aurretik eta neurri hori aplikatu ondoren zenbat kontsumitu den neurtuta edo kalkulatuta zehazten da hori–,aldi berean aintzat hartuta energia-kontsumoan eragina duten kanpoko baldintzen normalizazioa.

d) Auditore energetikoa: auditoretza energetikoak egiten dituen pertsona fisikoa edo juridikoa; beharrezko den akreditazioaren jabe izan behar du hark.

[254/2020 DEKRETUA] 4. artikulua.– Definizioak.

a) Auditore energetikoa: auditoretza energetikoa egiteko gaitasun pertsonal eta tekniko egiaztatua duen pertsona fisikoa, horretarako konpetentzia duena, otsailaren 12ko 56/2016 Errege Dekretuan ezarritakoari edo haren ordezkotza arauari jarraikiz. Errege-dekretu horrek eraginkortasun energetikoari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012ko urriaren 25eko 2012/27/EB Zuzentarauaren transposizioa egiten du energia-auditoretzei, energia-zerbitzuen hornitzaileen eta energia-auditoreen akreditazioari eta energia-hornikuntzaren eraginkortasuna sustatzeari dagokienez.

e) Auditoretza energetikoa: eraikin edo eraikin-multzo batek, industria- edo merkataritza-instalazio edo -eragiketa batek, edo zerbitzu pribatu zein publiko batek energia-kontsumoaren zer profil duen behar bezala jakiteko prozedura sistematikoa, bai eta kostu efiziente batekin energia aurrezteko aukerak zehaztu eta kuantifikatzeko eta horren berri emateko prozedura ere.

f) Azken bezeroa: norberaren erabilerarako energia erosten duen pertsona fisikoa edo juridikoa.

g) Garraiorako ordezkotza erregaiak: garraioan energia-iturri gisa erabiltzen diren erregai fosil klasikoak parte batean gutxienez ordeztu dituzten erregai edo energia-iturriak; izan ere, erregai fosilak deskarbonizatzen lagun dezakete eta garraio-sektorearen ingurumen-portaera hobetzen.

[254/2020 DEKRETUA] 27. artikulua.– Ordezko erregaiak erretzen dituzten ibilgailuak.

2.– Ondorio horietarako, ordezkotza erregaiak kontsumitzen dituen ibilgailu gisa ulertzen da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko ekainaren 20ko 2019/1161 (EB) Zuzentarauan adierazitakoarekin bat datorren ibilgailua. Zuzentzarau horrek 2009/33/EE Zuzentzaraua aldatzen du, zeina errepide bidezko garraio-ibilgailu garbiak eta energetikoki efizienteak sustatzeari buruzkoa baita, azken horren 4. artikuluko 4.b azpiataleko testuaren aldaketaren arabera, «ibilgailu garbia» definituta.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko urriaren 22ko 2014/94/EB Zuzentzarauak, ordezkotza erregaietarako azpiegitura bat ezartzeari buruzkoak, honela definitzen du bere 2. artikuluan ordezkotza erregaiak: erregai fosil klasikoak, neurri batean behintzat, garraioaren energia-iturri gisa ordezkotza dituzten erregaiak edo energia-iturriak, azken horiek deskarbonizatzen eta garraio-sektorearen ingurumen-portaera hobetzen lagun dezaketenak.

Barnean hartzen ditu elektrizitatea, hidrogenoa, bioerregaiak (2009/28/EE Zuzentzarauko 2. artikuluko i) letran definitzen diren bezala), erregai sintetikoak eta parafinikoak, gas naturala [biometanoa barne, gas natural konprimatu gisa (GNK) eta gas natural likidotuaren (GNL) forma likidotuan], eta petroliotik likidotutako gasa (PLG).



h) Erregelamenduz zehaztuko den eran, energiaren alorrean eskumena duen sailak garraioko energia-iturri alternatiboen erregistro bat ezarriko du Euskal Autonomia Erkidegorako.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko urriaren 22ko 2014/94/EB Zuzentarauak, ordezeko erregaietarako azpiegitura bat ezartzeari buruzkoak, ordezeko erregai bezala onartzen ditu elektrizitatea, hidrogenoa, bioerregaiak (2009/28/EE Zuzentaruako 2. artikuluko i) letran definitzen diren bezala), erregai sintetikoak eta parafinikoak, gas naturala [biometanoa barne, gas natural konprimatu gisa (GNK) eta gas natural likidotuaren (GNL) forma likidotuan], eta petroliotik likidotutako gasa (PLG).

i) Azken energia-kontsumoa: lege honen eraginpeko eraikinetan edo instalazioetan erabilitako energia gutzia.

j) Eraikina: sabaia eta hormak dituen eraikuntza, non energia erabiltzen den barruko giroa egokitzeko; bizitegi-erabileretarako nahiz zerbitzuak emateko erabil daiteke, eta eraikin oso bat edo eraikin baten zatiak izan daitezke, baldin eta zati horiek bereizita erabiltzeko diseinatu edo moldatu badira.

k) Energia-kontsumo ia nuluko eraikina: efizientzia energetiko handia duen eraikina, eraikinen efizientzia energetikoari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010eko maiatzaren 19ko 2010/31/EB Zuzentaruaren ezarritakoaren arabera. Behar den energia ia nulu edo gutxi hori, neurri handi batean, iturri berriztagarrietako energia bidez lortu beharko litzateke, in situ edo inguruaneko iturri berriztagarrietako energia ere barne dela.

2019ko abenduaren 27an argitaratu zen 732/2019 Errege Dekretua, abenduaren 20koa, martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak onartutako Eraikuntzaren Kode Teknikoa aldatzen duena, oinarrizko eskakizunen egituraren aldaketak sartzen dituena, Europako araudira egokitzeko, eraikinek bete behar dituzten eraginkortasun energetikoaren gutxieneko balioak berrikusten dira eta ia energia-kontsumorik gabeko eraikinaren definizioa eguneratzen da:

“Ia energia-kontsumo gabeko eraikintzat jotzen da «DB HE Ahorro de Energía» oinarrizko dokumentuan eraikin berrietarako energia-kontsumoa mugatzeari dagokionez ezarritako arauzko eskakizunak betetzen dituen eraikin berria edo lehendik dagoena”.

l) Lehendik dagoen eraikina: lege hau indarrean sartu aurretik eraikita dagoen, aplikagarri zaion arautegiaren arabera eraikitze-prozesuan dagoen edo eskatzen diren baimen guztiak dituen –hirigintza-, ingurumen- edo bestelako baimenak–edozein eraikin.

m) Eraikin berria: eraikitzeko behar diren baimenak lege hau indarrean sartu ondoren eskatu zaizkien eraikin guztiak.

n) Efizientzia energetikoa: etekin-, zerbitzu-, ondasun- edo energia-ekoizpenaren eta energia-gastuaren arteko erlazioa.

ñ) Iturri berriztagarrietatik lortutako energia: iturri berriztagarri ez-fosiletatik eskuratutako energia, hala nola energia hidraulikoa, eolikoa, eguzki-energia, geotermikoa, ozeanikoa eta berriztagarritzat jotako beste ustiapen mota batzuk ere bai.

Biomasaren kasuan, berriztagarritzat jotzen da basoen kudeaketa jasangarriko ziurtapen-sistema akreditatu bat daukaten baso-ustiategietatik etortzen den energia.



[254/2020 DEKRETUA] 4. artikulua.– Definizioak.

c) Energia berriztagarria: fosilak ez diren iturri berriztagarrietatik sortutako energia, hala nola energia hidraulikoa, eolikoa, eguzki-energia, biomasa, geotermikoa, ozeanikoa eta berriztagarritzat jotzen diren beste aprobetxamendu mota batzuk.

Baso-biomasaren kasuan, berriztagarritzat joko da baso-kudeaketa jasangarria ziurtatzeko sistema egiaztatua duten baso-ustiategietatik datorrena.

Baso-kudeaketa jasangarria, produktibitateari, birsortzeko gaitasunari, bizitasunari eta bioaniztasunari eusteko moduko baso eta mendien administrazioa eta erabilera da. Era berean, kudeaketa horrek funtzio ekologiko, ekonomiko eta sozial garrantzitsuak betetzeko ahalmena izan behar du, orain eta etorkizunean, toki-, nazio- eta mundu-mailan, beste ekosistema batzuei kalterik eragin gabe (1993ko Helsinki ministro-konferentzia).

Baso-kudeaketa jasangarriaren Ziurtagiriak kontsumitzaileari ziurtatzen dio zura edo beste edozein baso-produktu modu arduratsu eta jasangarrian kudeatutako baso batetik datorrela.

Baso-ziurtapeneko bi sistema nagusiak honako hauek dira: Forest Stewardship Council edo Baso Administrazio Kontseilua (FSC), eta Programme for the Endorsement of Forest Certification Schemes edo Basogintzako Ziurtapen-sistemak Ezagutzeko Programa (PEFC).

LEGEAK ezarritako helburu eta printzipio guztiak betetzeko, tokiko biomasaren eta gertutasunaren kontsumoa gailendu behar da.

o) Kudeaketa energetikoa: prozesu jarraitua, etengabea eta planifikatua, ikuskatu eta gainbegiratu egiten duena eraikin edo ekipamenduen portaera energetikoa; horretarako, ratio eta adierazle batzuk ezartzen dira, helburu dutenak eraginkortasun eta efizientziarik handiena lortzea, benetakoak eta egiaztatagarriak diren tresna, datu, balio eta konponbideetan oinarritu behar direlarik.

[254/2020 DEKRETUA] 4. artikulua.– Definizioak.

d) Energia kudeatzeko sistema: elkarri lotuta edo interakzioan dauden elementuen multzoa, hau da, eraginkortasun energetikoaren helburua eta horra iristeko estrategia ezartzen dituen planaren parte diren elementuak.

[254/2020 DEKRETUA] 4. artikulua.– Definizioak.

e) Energia kudeatzeko sistema ziurtatua: erakunde independente batek ziurtatutako energia kudeatzeko sistema dagozkion Europako edo nazioarteko arauetara jarraituz.

ISO 50001 energiaren kudeaketa ziurtatzeko nazioarteko araua da.

p) Kudeatzaile energetikoa: profesional tekniko, enpresa instalatzaile edo ingeniari- zein diseinu-enpresa bat, zeinak, diziplina energetiko eta teknologiko guztietako prestakuntza bat eginez, bere proiektu, zerbitzu edo instalazioetan efizientzia energetikoko irizpideak txertatzen dituen, eta zeinak bere zerbitzu eta filosofiaren barruan sartzen dituen aholkularitza independentea eta integrala.

[254/2020 DEKRETUA] 4. artikulua.– Definizioak.

b) Energia-zerbitzuak hornitzen dituen enpresa: azken bezero baten instalazioan edo lokaletan energia-zerbitzuak eskaintzen dituen edo eraginkortasun energetikoa hobetzeko beste neurri batzuk aplikatzen dituen pertsona fisiko edo juridikoa, otsailaren 12ko 56/2016 Errege Dekretuaren edo haren ordezkari arauaren xedapenekin bat etorritik, indarrean, egiaztatuta eta gaituta dagoen araudiaren arabera. Errege-dekretu horrek eraginkortasun energetikoari buruzko



Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012ko urriaren 25eko 2012/27/EB Zuzentarauaren transposizioa egiten du energia-auditoretzei, energia-zerbitzuen hornitzaileen eta energia-auditoreen akreditazioari eta energia-hornikuntzaren eraginkortasuna sustatzeari dagokienez.

Otsailaren 12ko 56/2016 Errege Dekretuaren 7. artikuluan jasota daude energia-zerbitzuen hornitzailearen lanbide-jarduera gauzatzeko betekizunak, eta 9. artikuluan, berriz, energia-zerbitzuen hornitzailearen betekizunak betetzeari buruzko gaikuntza eta erantzukizunpeko adierazpena.

Energia-zerbitzuen hornitzailearen lanbide-jardueran aritzeko gaitutako enpresek alta emanda egon behar dute Energia-zerbitzuen Hornitzaileen Zerrendan, Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuaren egoitza elektronikotik sarbide publikoa duen zerrendan:

<https://www.idae.es/informacion-y-publicaciones/bases-de-datos/herramientas/proveedores-de-servicios-energeticos>

q) Instalazioa: abian dela energia kontsumitzen duen edozer ekipamendu edo sistema, edo, bestela, edozer energia-iturri erabilia, in situ energia sortu edo transformatzen duena.

r) Energia-kontsumo osoaren oinarritzko erreferentzia maila: dena delako administrazioak une jakin batean kontsumitutako energia guztiaren inbentarioa, energia mota guztiak kontuan hartuta; horri aplikatzen zaizkio erabakitzen diren efizientzia energetikoko helburuak. Hor sartzen dira energia-iturri guztietako kontsumo zehatza eta erabili diren energia-bektoreak, balio absolututan zein erlatibotan, hauen arabera bereizita eta gehituta: eraikinak, energia-jarduketako unitateak, energia sortzen eta kontsumitzen duten instalazioak, ibilgailu-atala eta argiteria publikoa.

s) Karga-puntua edo erregaia hartzeko guneak jendearen eskura jartzea: ordezko erregai batez hornitzeko karga-puntua edo erregaia hartzekoa edukitzea eta Europar Batasuneko erabiltzaile guztiek bereizkeriarik gabe eskura izatea. Bereizkeriarik gabe eskura izanagatik ere, autentifikazio-, erabilera- eta ordainketa-baldintza desberdinak ezar daitezke.

t) Eraberritze integralak: eraikin bat berritzea edo birgaitzea, energia-ondorioetarako, baldin eta:

– eraikinaren inguratzailea edo haren instalazio teknikoak berritzeko lanen kostu guztiak eraikinaren balioaren % 25 baino gehiago badira, alde batera utzita eraikita dagoen lursailaren balioa edo

– eraikinaren inguratzailearen azaleraren % 25 baino gehiago berritzen bada, edo birgaitzeak eraikinaren azalera erabilgarriaren % 50 baino gehiagori eragiten badio.

Eraikin batean 10 urteko epean eraberritze bat baino gehiago egiten denean, kostuak eta azalera gehitu beharko dira hurrenez hurren egindako eraberritzelanean, halako moldez non, baturaren batek adierazitako portzentajeak gaindituz gero, lege hau bere osotasunean betetzea exijitu ahal izango den.

u) Zerbitzu energetikoa: energia bat teknologia energetiko efiziente batekin edo ekintza batekin konbinatuta –zerbitzua emateko beharrezko diren eragiketak, mantentze-lanak eta kontrola izan daitezke ekintzak– lortzen den onura fisikoa, etekina edo probetxua; zerbitzu hori kontratu edo hitzarmen baten arabera ematen da, eta frogatua izaten du, egoera normalean, efizientzia energetikoa hobetzen duela edo energia primarioa aurrezten, modu egiaztagarri, neurgarri edo kalkulagarrian.



v) **Energia-jarduketako unitatea: lege honetan aurreikusitako neurri guztien edo batzuen aplikazio-eremua –berezia, baterakoa edo zeharkakoa–, lege honen helburu diren Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen jabetzako eraikinak izan zein eraikin horien instalazioak, berokuntza- edo hozte-sistemak, ibilgailu-atala eta, hala badagokio, argiteria publikoa izan.**

[254/2020 DEKRETUA] 18. artikulua.– **Energia-jarduketa unitateak zehaztea.**

1.– Dekretu honetarako, alde batera utzita kudeaketa singularra, baterako edo zeharkakoa den, energia-jarduketarako egoki irizitako beste unitate zehaztu ahal izango dituzte otsailaren 21eko 4/2019 Legeak behartzen dituen administrazio publikoek, lege horretan zein dekretu honetan ezarritako betebeharrak behar bezala kudeatu eta ezartzeko.

2.– Energia-jarduketako unitate bakoitzak koordinatzaile bat edukiko du, eta jarduketa unitateko solaskidea izango da dena delako administrazio publikoak daukan Jasangarritasun Energetikoaren Batzordearekin edo ezaugarri eta eginkizun berdintsuko erakundearekiko harremanetarako.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren kasu zehatzerako, energia-jarduketako unitate bakoitzaren koordinatzailea Jasangarritasun Energetikoaren Batzordean energia-jarduketako unitate horren izenean batzordekidearen postua duen pertsonak proposatu beharko du.

4.– Aurreko proposamena eta haren errebokatzea Jasangarritasun Energetikoaren Batzordeko idazkariari jakinarazi behar zaizkio, eta, onartuz gero, izendapen hori Jasangarritasun Energetikoaren Batzordeko lantalde teknikoaren hurrengo bilerako gai-zerrendan sartuko du.

5.– Koordinatzaileak oso ongi jakin behar ditu energia-jarduketako unitatearen ezaugarriak eta zehaztasunak, baita energia-jarduketen berariazko planaren definizioaren eta garapenaren egoera zein bertan zehaztutako jarduteko neurrien ezarpen-maila ere.

Eragindako administrazio bakoitzaren eskumenen barne-banaketaren eta erabakiak hartzeko erantzukizunen eta eskumenen arabera zehatz daitezke energia-jarduketako unitateak, eta sail osoen, zuzendaritzen, zerbitzuen eta/edo aurrekoen konbinazioaren arabera definitu daitezke.

w) **Plan eta programa energetikoak: auditoretza energetikoen bidez egindako diagnostiko iraunkorretatik eratorritako jarduerak, lege honen helburuak garatzeko diseinatuak izango direnak.**

x) **Trantsizio energetikoa: oraingo eredu energetiko intentsiboa, erregai fosiletan eta central termiko edo nuklearretan oinarritua, eraldatzea eta paradigma berri bat sortzea, zeinaren ardatzak diren energia berriztagarriak, efizientzia energetikoa eta sorkuntza banatua.**

Euskadiko energia-politikaren oinarriak jasotzen dituen plangintza-tresna, gaur egun indarrean dagoena, Euskadiko Energia Estrategia 2030 da, eta esteka honetan kontsulta daiteke:

<https://www.euskadi.eus/plan-programa-proiektua/euskadiko-energia-estrategia-2030/web01-a2energi/eu/>

5. artikulua.– Helburuak.

Kontuan hartuz 2. eta 3. artikuluetan definitutakoa, hauek dira lege honen helburuak:

a) **Energiaren erabileran efizientzia bultzatzea eta energia-aurrezpena sustatzea, Europar Batasunak gai horren inguruan ezarritako arau eta jarduketen espar.**



- b) Energia berriztagarriak sustatzea eta ezartzea, erregai fosilekiko mendekotasuna gutxitzeko.
- c) Gradualki, jatorri fosil eta nuklearretik ekoiztako energia erabiltzeari uztea, kontsumo nulura iritsi arte.
- d) Mugikortasun arrazionalago eta jasangarriago bat bultzatzea eta sustatzea, joan-etorri ez-motorizatuko aukerak barne hartuko dituen, bai eta ordezko erregaiak erabiltzen dituzten garraio-moduak bultzatzea eta sustatzea ere.
- e) Berotegi-efektuko gasen isurketak gutxitzea, nagusiki partikulek eta nitrogeno-oxidoek eragindako kutsadura, betiere lege hau betetzetik etorriko diren aurrezte-neurrien eta energia erabiltzeko efizientzia-neurrien eta energia-iturri berriztagarriak erabiltzearen ondorioz.
- f) Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen, jarduera ekonomikoen eta bizitegi-sektorearen energia-faktura jaistea.
- g) Honako hauek sustatzea eta bultzatzea: energiaren erabileran eta energia berriztagarrien garapenean aurrezpena eta efizientzia handitzen duten tekniken eta teknologien ikerketa eta garapena, eta haien guztien ezarpena eta erabilera eraztearekin lotuta dauden sistemena.
- h) Energiaren erabilerak ingurumenean eta lurraldean dituen inpaktuak aurreikustea eta mugatzea, energia aurreztuta eta erabilera efizienteagoa ahalbidetzen duten teknikak eta teknologiak erabilia; horrela, berotegi-efektuko gasen isurketak gutxituko dira.
- i) Jasangarritasun energetikoak berekin dakartzan betekizunak politika publikoetan sartzea, eta, bereziki, lurraldearen antolamenduan, hirigintzan, etxebizitzan, garraioetan, industrian eta energian.
- j) Beste administrazio batzuekin eta partikularrekin hitzarmenak egin daitezzen bultzatzea, jasangarritasun eta subiranotasun energetikoa areagotu dadin.
- k) Energia gehiago aurrezteak eta efizientzia energetiko hobea izateak nahiz energia berriztagarriak erabiltzeak zer onura dakartzaten zabaltzea.
- l) Energiaren kudeaketa lokalagoa eta komunitarioagoa sustatzea.
- m) Helburutzat energia aurrezteak, BEG berotegi-efektuko gasen isurketak murriztea eta energia berriztagarriak bultzatzea duten zerbitzu eta produktuen erosketa eta kontratazio publikoa sustatzea.
- n) BEGren isurketak murriztearen eta energia berriztagarriak ekoizti edo erabiltzearen alde apustu egiten duten jarduerak ahalbidetzen dituzten politikak eta arautegiak sustatzea.

6. artikulua.– Printzipioak.

Lege honek printzipio hauek ditu oinarri:

- a) Energia-aurrezpenean oinarritutako energia-eredu baterako trantsizioa, energia berriztagarriak sustatzea, eskura dauden teknika onenen bidezko efizientzia energetikoa eta, azkenik, subiranotasun energetikoa handitzea.
- b) Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoak eredugarri izatea jasangarritasun energetikoaren arloan, lege honetan eta lege hau garatzen duten arautan ezarritako nahitaezko neurriak hartuta, bai eta, lege honetan espresuki aurreikusita ez egon arren, hartu daitekeen beste edozein neurriren bidez ere, baldin eta lege honen helburuak betetzen lagun badezake.



[254/2020 DEKRETUA] 6. artikulua.– Euskal Administrazio Publikoen eredugarritasuna.

1.– Euskal Administrazio Publikoak eredugarri izan behar dira aurrezpen eta eraginkortasun energetikoaren arloan, baita energia berriztagarrien erabilerari dagokionez ere, eraikin, instalazio eta ibilgailuetan, eta otsailaren 21eko 4/2019 Legean zein dekretu honetan ezarritako nahitaezko neurriak hartuko dituzte, horietan ezarrita dauden helburuak betetzeko.

2.– Horretarako, euskal administrazio publikoek honako jardunbide hauek hartuko dituzte beren gain:

a) Jarduera guztietan, energia aurreztea eta ahalik eta modu efizienteenean erabiltzea.

b) Berotegi-efektuko gasen emisiorik ez izatea edo, hala egokituz gero, emisioak gutxitzea; horretarako, energia aurreztea eta eraginkortasun energetikoa hobetzeko teknikak eta teknologiak ezartzea.

c) Eraikinetan eta instalazioetan energia berriztagarrien erabilera sustatzea.

d) Petroliotik eratorritako erregaiak ordezteko bultzatzea.

3.– Eusko Jaurlaritzan energiaren arloko eskumena duen sailak sarbide libreko web-plataforma bat ezarriko du webgunean, jardunbide egokien tresna gisa, euskal administrazio publikoen multzoaren gardentasuna bermatzeko eta euskal gizarteak, orokorrean, parte har dezan eta lankidetzan aritu dadin sustatzeko, eta horren barruan jasota egongo dira euskal administrazio publikoen multzoak aldi berean sail horri helarazi behar dizkioten datuak.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako politika eta jarduera publikoen diseinuan eta aplikazioan jasangarritasun energetikoari buruzko eskakizunak sartzea.

d) Energiaren erabileran hain intentsiboak ez diren garraiobideak eta efizientzia energetiko hobea duten instalazioak ezar daitezkeen lehenestea lurraldearen antolamenduko, hirigintzako eta azpiegituretako planetan.

e) Aurrerapen teknikora egokitzea, hain zuzen ere energia gehiago aurreztea, efizientzia energetiko hobea izatea edo energia berriztagarriak hobeto erabiltzea dakarten teknikak, produktuak edo zerbitzuak erabilia, betiere ekonomikoki arazoizko baldintzetan badaude eskura.

f) Unean-unean eskura dauden datu zientifiko eta teknikoetan oinarritutako energia-politikak, jasangarritasun energetikoarekin zerikusia duten neurri eta jarduketak diseinatzerakoan genero-ikuspegiz eginak.

g) Jasangarritasunaren arloan, administrazio publiko guztiak lankidetzan, eraginkortasunez eta koordinatuta aritzea.

h) Herritarrek jasangarritasun energetikoaren arloko politikak diseinatzen eta erabakiak hartzen parte hartzea, zuzenean edo elkarteetan edo gizarte-ekonomiako eragileen bidez eta dagozkien arauak ezartzen dutena betez. Emakumeen eta gizonen presentzia orekatua egon dadin saiatu behar da; kontuan hartu behar da ez dutela parte hartzeko modu bera batzuek eta besteek, eta, horrenbestez, konpentsazio-estrategiak aurreikusi beharko direla.

i) Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek jasangarritasun energetikoari buruzko informazioa eta alor horretan egingo dituzten jarduera zehatzei buruzkoa zabaltzea.



j) Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen energia-kontsumoen etengabeko monitorizazioa, kontrola eta ebaluazioa.

II. TITULUA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOA

I. KAPITULUA

JASANGARRITASUN ENERGETIKOA POLITIKA PUBLIKOETAN TXERTATZEA ETA ERAKUNDEARTEKO KOORDINAZIOA

7. artikulua.– Lurraldearen antolamendua eta hirigintza.

1.– Lege honen inspirazio diren printzipioen arabera, lurraldearen antolamenduko, hirigintza-plangintzako eta garraio-azpiegituretarako baliabideetan jasangarritasun energetikoari buruzko azterketak egin beharko dira, lege honetan bertan ezarritakoaren arabera.

2.– Aurrekoa bete beharko dute baliabide hauek:

a) Lurralde-antolamenduaren gidalerro nagusiek, lurralde-plan partzialek eta lurralde-plan sektorialek.

b) Egiturazko antolamenduko planek, hiri-antolamenduko plan orokorrek, plangintza orokorra bateragarri egiteko planek, sektorizazio-planek, eta, hala badagokie eta erregelamenduz ezartzen diren baldintzetan, antolamendu xehatuko planek.

c) Errepide-planek edo garraio-azpiegituretako planek eta salgaiak banatzeko logistikan zuzenean eragiten duten planek.

Goi-mailako plangintzan egiten diren zehaztapenak kontuan hartuko dira mendeko baliabideetan ere.

3.– Jasangarritasun energetikoari buruzko azterketak alderdi hauek jorratu behar ditu:

a) Jasangarritasun energetikoko eskakizunetara egokitu den jakiteko ebaluazioa.

b) Eraikinetan eta azpiegituretan energia berriztagarriak ezartzearen ebaluazioa.

c) Mugikortasun-azterketa, energia-kontsumoaren ondorioetarako, garraio pribatuaren erabilerearen ordezkotza aukerak ere sartuta, eta mugikortasun ez-motorizatua eta mugikortasunik eza sustatzeko politikak.

d) Kanpoko argiteria publikoaren azterketa, espazio publiko bakoitzerako argiztapen maila eta -denbora egokienak ebaluatzeko.

4.– Bigarren apartatuan aipatutako lurraldearen antolamenduko eta hirigintzako baliabideei legez ezarritako ingurumenaren ebaluazio-prozedura estrategiko bat egin behar bazaie, hain zuzen ere ingurumen arloko ebaluazio-prozedura horren barruan txertatuko dira 3. Apartatuan eskatzen diren alderdiak, eta ez dago zertan bikoiztu ingurumen arloko ebaluazio-prozedura horiek arautzen dituzten arauetan ere eskatzen diren alderdiak, hau da, jasangarritasun energetikoari buruzko azterketaren bestelako alderdiak.

5.– Dagokien hirigintza-baliabideek erabilera publikoko kargatze-guneak aurreikusi beharko dituzte hiri-inguruetan, ibilgailu elektrikoaren eta ordezkotza erregiaez higiarazitakoaren erabiltzaileei ibilgailu horiek energiaren hornitzeko aukera izango dutela bermatzeko; horretaz gain, bizikletak erabiltzeko eta aparkatzeko eremuak ere aurreikusi beharko dituzte.



6.– Lege honen betebeharreari erantzun egoki bat emateko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorialean finkatzen denari atxikiko zaio.

8. artikulua.– Jasangarritasun energetikoari buruzko politika koordinatzea.

Jasangarritasun energetikoari buruzko politika koherentea izango dela bermatzeko, energia alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren sailak izango du Euskal Autonomia Erkidegoko interes orokorrak eskatutakoa koordinatzeko ahalmena, besteak beste, jarduera hauen bidez:

Eusko Jaurlaritzan energiaren arloko eskumena duen saila Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila da, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuan jasotzen den bezala.

- a) Arauak eginez.
- b) Administrazio-prozedurak erraztuz.
- c) Metodoak eta irizpide teknikoak homogeneizatuz.
- d) Joan-etorriko informazio-sistemak ezarriz.
- e) Aurrezpen eta efizientzia energetikorako jarraibideak eta teknikak hedatuz.
- f) Jasangarritasun energetikoaren alorreko ekintzak eta proiektuak sustatzeko planak eta laguntza-programak landuz.
- g) Lege honek ezarritako betebeharren betetze maila ebaluatuz.

[254/2020 DEKRETUA] 5. artikulua.– Jasangarritasun energetikoari buruzko politika koordinatzea.

1.– Otsailaren 21eko 4/2019 Legean xedatutakoaren ondorioetarako, euskal jasangarritasun energetikoari buruzko politika guztia koherentea dela bermatzeko, Eusko Jaurlaritzan energiaren arloko eskumena duen sailak eskundantzia hauek ditu:

- a) Otsailaren 21eko 4/2019 Legea garatzeko arauak egitea.
- b) Administrazio-prozedurak sinplifikatzea.
- c) Metodoak eta irizpide teknikoak homogeneizatzea.
- d) Elkarrekiko informazio-sistemak ezartzea Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen artean.
- e) Aurrezpen eta eraginkortasun energetikorako jarraibideak eta teknikak hedatzea.
- f) Aurrezpen eta eraginkortasun energetikorako eta energia berriztagarriak erabiltzeko ekintzak eta proiektuak sustatzeko planak eta laguntza-programak lantzea.
- g) Dekretu honetan ezarritako jarduketekin zerikusia duen kontrataziorako klausulak proposatzea.
- h) Nahitaezko diren aldeko txostenak eta salbuespen-ebazpenak ematea, dekretu honetan jasotako kasuetarako.
- i) Lantokietan garraio-planak lantzeko irizpideak proposatzea.
- j) Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen titulartasuneko eraikin berriak energia-kontsumo ia nuluko eraikinak direla zaintzea.



k) Eraikinen energia-ziurtapena egiteko betebeharrak eta eraikinok Euskadiko Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagirien Erregistroan inskribatzeko betebeharrak betetzen dituztela zaintzea.

l) Energia kontsumitzen duten pertsona guztiek energiaren hornidura-merkatuan parte-hartze aktiboa edukitzeko eskubidea dutela bermatzea, baita energia-kontsumo errealararen eta horri lotutako kostu ekonomikoen berri izateko eskubidea ere kontsumo propioa arautu ahal izateko behar duten bezain maiz.

m) Otsailaren 21eko 4/2019 Legean eta dekretu honetan ezarritako xedapenak betetzen direla zaintzea, eta, horretarako, egoki iritzitako errekerimendu, ikuskapen eta auditoretza guztiak egitea.

2.– Otsailaren 21eko 4/2019 Legeak Euskal Autonomia Erkidegoaren sektore publikoari ezarritako betebeharren barruan, jasangarritasun energetikoari dagokionez, Eusko Jaurlaritzan energiaren arloko eskumena duen sailari dagokio arlo horren barruan koherentzia bermatzen duten ahalmenak egikaritzea, besteak beste, honako jarduera hauen bidez:

a) Energia-kontsumo osoaren erreferentziako oinarrizko maila zehaztea, horren gainean otsailaren 21eko 4/2019 Legeak ezarritako energia-aurrezpenak eta eraginkortasun energetikoaren hobekuntzak aplikatzeko.

b) Eraikinen, instalazioen eta ibilgailuen inbentarioa egitea eta eguneratuta edukitzea.

c) Otsailaren 21eko 4/2019 Legeak ezarritako helburuak lortzeko energia-jarduketan plan orokorra idaztea eta Gobernu Kontseiluari aurkeztea, onar dezan, betiere Jasangarritasun Energetikoaren Batzordeak alde aurreko adostasuna eman ondoren.

d) Energia-jarduketako unitateen artean banatu beharreko aurrezpen eta eraginkortasun energetikoaren ehuneko osoa proposatzea Jasangarritasun Energetikoaren Batzordeari, adostasuna eman dezan.

e) Otsailaren 21eko 4/2019 Legean zein dekretu honetan ezarritako helburuak betetzeko beharrezkotzat jotako jarraibide guztiak proposatzea Jasangarritasun Energetikoaren Batzordeari, alde aurreko adostasuna eta onespena eman diezazkien.

f) Banaka zein taldeka, energia-jarduketako unitate bakoitzak aurkeztutako energia-jarduketan berariazko planak aztertzea planok ebaluatzeko eta zehazteko ea ahalbidetzen duten otsailaren 21eko 4/2019 Legeak ezarritako betebeharrak betetzea. Eta, horrez gain, Jasangarritasun Energetikoaren Batzordeari zuzendu behar zaion txostena ere egitea.

g) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren energia-kontsumoaren jarraipenaren gaineko urteko txostena egitea.

h) Gobernu Kontseiluari laburpen-txosten bat helaraztea urtean behin, alderdi hauek labur azalduta: otsailaren 21eko 4/2019 Legeak ezarritako betebeharren eta xedapenen betetze-maila, Eusko Jaurlaritzako sail bakoitzak horretarako bideratutako baliabide ekonomikoak nahiko diren ala ez, eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren energia-jarduketan planaren jarraipen-maila. Txosten horretan, gainera, aurrezpen eta eraginkortasun energetikoaren adierazleen bilakaera eta energia berriztagarrien erabilerari buruzko adierazleen bilakaera ere jasoko dira.



9. artikulua.– Jasangarritasun energetikoaren batzordeak.

1.– Lege honek lortu nahi dituen helburuak bete daitezzen, administrazio bakoitzeko erakundeak koordinatzeko, jasangarritasun energetikoaren batzorde bana edo izan daitezkeen eta antzeko ezaugarriak eta zereginak dituzten erakundeak izango dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, lurralde historikoetako administrazioek eta udalerrietako administrazioek.

2.– Lurralde historikoetako administrazioek eta udalerriek lege hau indarrean sartu eta urtebeteko epean sortu behar dituzte beren batzordeak.

3.– Administrazio bakoitzak erabakiko du bere batzordeak zer kide eta funtzionamendu izango dituen, eta betiere emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua bermatuko da, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3.7 eta 23. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

4.– Jasangarritasun energetikoaren batzordeen eginkizun izango dira:

a) 11. artikuluan aipatzen den inbentarioa onetsi dadin proposatzea.

b) Lege hau betetzeko hartzen diren neurriak gauzaten ari direla eta legean ezarritako helburuak betetzen ari direla gainbegiratzea eta bermatzea.

c) Energia-jarduketan plana zer egoeratan duten eta zenbat garatu den adieraztea aldiari behin.

[254/2020 DEKRETUA] 9. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Jasangarritasun Energetikoaren Batzordea.

1.– Koordinazio-organo gisa eratzen da Sektore Publikoaren Jasangarritasun Energetikoaren Batzordea, jasangarritasun energetikoarekin zerikusia duen gai orori dagokionez; hain zuzen, hauek koordinatuko ditu: Euskal Autonomia Erkidegoko Eusko Jaurlaritzako sailak, horren erakunde autonomoak, zuzenbide pribatuko ente publikoak, sozietate publikoak, autonomia-erkidegoko sektore publikoko fundazioak eta nortasun juridiko propioa duten partzuergoak, zeinak Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 7.4.c) artikuluan aipatuta baitaude.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Jasangarritasun Energetikoaren Batzordea atxikita dago Eusko Jaurlaritzan energiaren arloko eskumena duen sailera.

Eusko Jaurlaritzan energiaren arloko eskumena duen saila Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila da, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuan jasotzen den bezala.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Jasangarritasun Energetikoaren Batzordeak zaindu beharko du otsailaren 21eko 4/2019 Legeak zein dekretu honek ezartzen dituen eta Euskal Autonomia Erkidegoaren sektore publikoari dagozkion betebeharrak betetzen direla.

[254/2020 DEKRETUA] 10. artikulua.– Osaera.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Jasangarritasun Energetikoaren Batzordea honako kide hauek osatuko dute:

a) Batzordeburua: Eusko Jaurlaritzako lehendakaria. Ez badago edo gaixorik badago, batzordeburuordea izango da haren ordezkaria.

Batzordeburua kide kualifikatutzat joko da, eta kalitatezko botoa izango du.



b) Batzordeburuordea, energiaren arloko eskumena duen Eusko Jaurlaritzako saileko titularra da. Ez badago edo gaixorik badago, energiaren arloko eskumena duen sailburuordetzaren titularrak ordezkatu du.

c) Batzordekideak:

- Energiaren arloko sailburuordetza eskudunaren titularra.
- Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusia.
- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren energia-jarduketako unitate bakoitzeko pertsona bat, erabakitzeko eta jarduteko gaitasuna duena, otsailaren 21eko 4/2019 Legeak ezarritako betebeharren betetze tekniko, legezko eta ekonomikoaren esparruan.

Energia-jarduketako unitatea Eusko Jaurlaritzako sail bati badagokio, sail horrek izendatutako pertsona batek beteko du batzordekidearen postua, eta sail horren sailburuordetzeko baten titularra edo Zerbitzu Zuzendaritzaren titularra izan beharko da.

Energia-jarduketako unitatea, zehazki, Eusko Jaurlaritzako sail baten sailburuordetza batekin bat datorrenean, sailburuordetza horretako titularrak edo Zerbitzu Zuzendaritzako titularrak beteko du batzordekidearen postua, dagokion sailak izendatu ondoren.

Energia-jarduketako unitatea erakunde autonomo, erakunde edo sozietate publiko bati badagokio, haren zuzendaritza nagusiko edo antzeko organoko titularrak beteko du batzordekidearen postua.

d) Idazkaria, energiaren arloko eskumena duen zuzendaritzaren titularra, hitzarekin baina botorik gabe.

2.– Batzordea osatuko duten pertsonak izendatu eta hautatzean, ahaleginak egingo dira gaikuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakume eta gizonen presentzia orekatua izan dadin, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 23. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

3.– Batzordea behar bezala eratu eta bilkurak egiteko, eztabaidak izateko eta erabakiak hartzeko helburuz, batzordeburua eta idazkaria, edo, hala badagokio, ordezkioak, eta batzordekideen erdiak gutxienez bertaratu beharko dira, aurrez aurre edo urrutitik.

4.– Gaiak espezifikoko direnean, baldin eta beharrezkoa bada espezialistek edo teknikariek parte hartzea, batzordeburuak gonbidatu ahal izango ditu, batzordekideren batek hala eskatuta, planteatzen zaizkien gaiei buruz iritziak eta analisiak azaltzeko, botorik izango ez duten arren.

[254/2020 DEKRETUA] 11. artikulua.– Eginkizunak.

1.– Jasangarritasun Energetikoaren Batzordeak eginkizun hauek izango ditu bere eskumen-esparruaren barruan:

- a) Eraikinen, instalazioen eta ibilgailuen inbentarioa onartzea.
- b) Energia-kontsumo osoaren erreferentziako oinarritzko maila onartzea.
- c) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikora banakatuta dagoen energia-jarduketako unitateen definizioa onartzea.
- d) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren energia-jarduketan plan orokorrari alde aurreko adostasuna ematea, planaren garapena gainbegiratzea eta urtero Gobernu Kontseiluari plan horren garapenaren berri ematea.



e) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren energia-jarduketako unitateek aurrezpen eta eraginkortasun energetikorako garatutako jarduketa guztiei dagozkien jarraipen-lanen eta -txostenen berri jasotzea.

f) Energia-jarduketako unitate bakoitzaren energia-jarduketan berriazko planak onartzea.

g) Aurrezpen eta eraginkortasun energetikoaren ehuneko osoa banatzeko proposamenari adostasuna ematea –Eusko Jaurlaritzan energiaren arloko eskumena duen sailak egingo du proposamena–, eta Gobernu Kontseiluari aurkeztea, onetsi dezan.

Banatzeko proposamenarekin ados egon ezean, horren berri emango zaio Gobernu Kontseiluari, hark ebatzi dezan.

h) Eusko Jaurlaritzan ogasunaren arloko eskumena duen sailari urtero proposatzea Eusko Jaurlaritzako sail bakoitzak jasangarritasun energetikoaren arloan bideratzea aurreikusten duen aurrekontuaren ehunekoa, otsailaren 21eko 4/2019 Legearen helburuak lortzeko.

i) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren energia-konsumoaren urteko jarraipen-txostena onartzea; Eusko Jaurlaritzan energiaren arloko eskumena duen sailak egingo du txosten hori.

j) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren zerbitzupeko langileen gaikuntza eta sentsibilizaziorako planen eta lantokietarako garraio-planen garapena gainbegiratzea.

k) Aurrezpen eta eraginkortasun energetikoaren inguruko gaietan Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio publikoekiko elkarlanean eta lankidetzan aritzeko irizpideak ezartzea, betiere Eusko Jaurlaritzan energiaren arloko eskumena duen sailaren eta, hala badagokio, Gobernu Kontseiluaren eskumenei kalterik egin gabe.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Jasangarritasun Energetikoaren Batzordeko idazkariak honako eginkizun hauek ditu:

a) Batzordearen bilerak prestatzea.

b) Bileren deialdiak egitea, batzordeburuak proposatuta, eta zitazioak ere egitea batzordeburuordetzarako eta batzordekidetzarako izendatutako pertsoneri.

c) Batzordekideen jakinarazpen-egintzak, jakinarazpenak, gai-zerrendarako proposamenak zein datu-eskaerak jasotzea eta, oro har, batzordearen jardunarekin zerikusia duten era guztietako dokumentazioak edo komunikazioak jasotzea.

d) Gaiak bideratzea eta bilkuretako aktak egitea.

e) Hartutako erabakien ziurtagiriak ematea.

f) Jasangarritasun Energetikoaren Batzordearen ordezkartzan jardutea.

g) Energia-jarduketako unitateei jarduteko eta informazioa igortzeko eskaerak egitea, energia-jarduketan plana betetzeko aplikatu beharreko edo aplikatu diren jarduketa eta neurriei dagokienez.

h) Lantalde teknikoko burua den aldetik, batzordeari aurrezpen eta eraginkortasun energetikoaren arloan beharrezko irizten dien jarduteko proposamen tekniko guztiak egitea.

i) Idazkaritzaren eginkizunaren berezko gainerako eginkizun guztiak, eta batzordeburuak zein batzordeak berak esleitutakoak.



[254/2020 DEKRETUA] 12. artikulua.– Deialdia eta bilkurak.

1.– Batzordeburuak erabakiko du bilkuren deialdia, eta idazkariak bidaliko die batzordeburuordeari eta batzordekideei, gai-zerrendarekin eta landuko den dokumentazioarekin batera. Bilkura bakoitzaren deialdia informazio eta komunikazioaren teknologia berrien bidez egingo da, bilkura izan baino hilabete lehenago gutxienez.

Batzordeburuak, larrialdi-egoeretan, deialdia egiteko epea gutxienez 48 ordura murriztea erabaki ahal izango du.

2.– Ohiko bilkuran parte hartu behar duten batzordekideen izendapenak eta errebokatzeko bilkura izan baino 5 egun lehenago jakinarazi beharko zaizkio batzordeko idazkariari, behar bezala justifikatutako salbuespenak alde batera utzita.

3.– Batzordea, normalean, urtean behin bilduko da.

Batzordeburuak beharrezko irizten duenean egingo ditu ezohiko bilkuretarako deialdiak, edo batzordekideen erdiek gutxienez hala eskatzen dutenean.

4.– Erabakiak botoen gehiengo soilaren bidez hartuko dira eta ezin da eztabaidatu edo erabaki gai-zerrendan ageri ez den gairik; baldin eta, batzordekide guztiak egonik, botoen gehiengoaren bidez erabakitzen ez badute gaia premiazkoa dela. Bestela, gaia batzordearen hurrengo bileran aztertuko da.

[254/2020 DEKRETUA] 13. artikulua.– Aktak.

1.– Batzordeko idazkariak bilkura bakoitzaren akta laburra egingo du, eta batzordekide guztiei emango zaie haren berri, hilabeteko epean adostasuna ager dezaten edo zuzenketak egin ditzaten.

2.– Aktan honako kontu hauek behintzat adieraziko dira:

a) Bilera noiz eta non egin den.

b) Parte-hartzaileak.

c) Gai-zerrenda.

d) Eztabaiden gai nagusiak.

e) Hartutako erabakien edukia.

3.– Aktak batzordearen hurrengo bilkuran onartuko dira. Edonola ere, idazkariak premiaz egiaztatu beharreko erabakiei buruzko ziurtagiria egin dezake, aurrerago akta onartzearen kalterik gabe. Ziurtagiri horretan berariaz jasoko da hori.

[254/2020 DEKRETUA] 14. artikulua.– Araubide juridikoa.

Dekretu honetan aurreikusi ez den guztirako, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean kide anitzeko organoetarako xedatutakoa aplikatuko da.

[254/2020 DEKRETUA] 15. artikulua.– Lantalde teknikoa.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Jasangarritasun Energetikoaren Batzordearen lantalde teknikoa sortzen da, batzordeari laguntza eta babesa emateko. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa banatuta dauden energia-jarduketako unitateak koordinatzen dituzten pertsonak osatuko dute lantaldea.



Jasangarritasun Energetikoaren Batzordean jarduketa-unitatearen izenean jarduten duen batzordekideak proposatuko du jarduketa-unitatearen izenean lantalde teknikoan parte hartuko duen pertsona.

Lantalde teknikoko kide izateko pertsonaren proposamena lantalde teknikoko buruari bidaliko zaio, izenda dezan, eta, onartzen badu, izendapen hori lantalde teknikoaren hurrengo bilerako gai-zerrendan sartuko du.

2.– Lantalde teknikoak honako eginkizun hauek ditu:

a) Jasangarritasun Energetikoaren Batzordeari aholkularitza teknikoa ematea.

b) Azken aurrerapen teknikoak aplikatzeko aukerez eta garapen-mailaz taldean hitz egiteko eta eztabaidatzeko esparrua izatea, otsailaren 21eko 4/2019 Legeak zein dekretu honek ezarritako betebeharrak bete ahal izateko.

3.– Jasangarritasun Energetikoaren Batzordeko idazkaria izango da lantalde teknikoko burua. Batzordeko idazkaria ez badago edo gaixorik badago, hark izendatzen duen funtzionarioa izango da ordezkoa.

4.– Lantalde teknikoa, normalean, Jasangarritasun Energetikoaren Batzordea baino lehenago bilduko da.

Lantalde teknikoko buruak beharrezko irizten duenean egingo ditu ezohiko bilkuretarako deialdiak, edo kideen erdiek gutxienez hala eskatzen dutenean.

5.– Lantalde teknikoko buruak erabakiko du bilkuren deialdia, eta lantaldea osatzen duten pertsonen bidaliko die, gai-zerrendarekin eta bilkuran landuko duten dokumentazioarekin batera. Bilkura bakoitzaren deialdia informazio eta komunikazioaren teknologia berrien bidez egingo da, bilkura izan baino 15 egun lehenago gutxienez.

Larrialdi-egoeretan, lantalde teknikoko buruak deialdia egiteko epea murrizteko erabakia hartu ahal izango du. Gutxienerako epea 48 ordukoa izango da.

6.– Erabakiak botoen gehiengo soilaren bidez hartuko dira eta ezin da eztabaidatu edo erabaki gai-zerrendan jarri ez den gairik; halakorik eztabaidatu eta erabakitzeko, lantalde teknikoko kide guztiek egon behar dute, eta gehiengo batek adierazi behar du aztergaia premiazkoa dela.

7.– Lantalde teknikoko buruak bilkura bakoitzaren akta laburra egingo du, eta haren berri emango die kide guztiei, 10 egun balioduneko epean adostasuna ager dezaten edo behar diren zuzenketak egin ditzaten.

Akta Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Jasangarritasun Energetikoaren Batzordeari helaraziko zaio, horren berri izan dezan. Batzordeak hurrengo bilera-deialdiko gai-zerrendan sartuko du akta, aztertu eta ebaluatu dezan.

Aktan honako kontu hauek behintzat jasoko dira:

a) Bilera noiz eta non egin den.

b) Parte-hartzaileak.

c) Gai-zerrenda.

d) Eztabaiden gai nagusiak.

e) Hartutako erabakien edukia.

Lantalde teknikoaren hurrengo bilkuran onetsiko dira aktak.



10. artikulua.– Parte-hartzea.

Administrazio publikoek, lege honetako 6 h) artikuluan jasotako herritarren parte-hartzearen printzipioarekin bat, ezarri beharreko mekanismoak ezarriko dituzte gizarte-eragileek, kontsumitzaileen elkarteek, erakunde publiko adituek, gizartearen ordezkariak eta langileen ordezkariak jasangarritasun energetikoko politiken diseinuan eta erabakietan benetan parte hartzen dutela ziurtatzeko.

II. KAPITULUA

HELBURUAK ETA EKINTZAK

1. ATALA

HELBURUAK ETA EKINTZA OROKORRAK

11. artikulua.– Inbentarioa.

1.– Administrazio publikoek beren jarduera-eremuaren barruan dituzten eraikinen, ibilgailu-atalen eta argiteria publikoko instalazioen inbentarioa egin behar dute. Informazio hau jaso behar da inbentarioan:

a) Dagokion administrazioaren titulartasuneko eraikinen eta instalazioen inbentarioa, bakoitzak metro koadrotan duen azalera erabilgarria eta eraiki osoa, duen kalifikazio energetikoa eta energia-kontsumo eta -gastua. Betebehar horretan ez dira sartzen partikularrek eremu pribatuan erabiltzen dituzten etxebizitzak edo lokalen kontsumoak edo enpresek alokairuan dituztenak.

b) Ibilgailu-atalak eragindako kontsumoen inbentarioa; ibilgailu motorizatu eta ez-motorizatuen kopurua, erabilitako erregai mota bakoitzaren zenbatekoa guztira eta ibilgailu bakoitza zertarako erabiltzen den zehaztu behar da. Ibilgailu-atalaren barruan sartzen dira, lurreko ibilgailuez gain, itsas eta aire-ibilgailuak ere.

c) Argiteria publikoak eragindako kontsumoen inbentarioa.

2.– Lege hau indarrean sartzen den egunetik gehienez ere sei hilabeteko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari buruzko inbentarioa egingo du energia alorrean eskumena duen sailak.

3.– Gainerako administrazioek legea indarrean sartzen denetik urtebete izango dute inbentarioa egiteko.

4.– Inbentarioak eta haiekin erlazionatutako informazioa publikoak izango dira, eta onetsi eta gehienez ere hiru hilabeteko epean publikoaren esku egon beharko dute, eta energia alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren sailari bidali beharko zaizkie.

[254/2020 DEKRETUA] 16. artikulua.– Inbentarioa.

1.– Urtero, urte bakoitzaren lehen hiruhilekoan, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak erabiltzen dituen eraikinen, eraikin-zatien, instalazioen eta ibilgailuen inbentarioa eguneratuko du Eusko Jaurlaritzan energiaren arloko eskumena duen sailak, energia-jarduketa unitateen koordinatzaileen laguntzarekin.

2.– Otsailaren 21eko 4/2019 Legearen eraginpeko gainerako administrazio publikoek beren inbentarioak igorri beharko dizkiote Eusko Jaurlaritzan energiaren arloko eskumena duen zuzendaritzari, otsailaren 21eko 4/2019 Legeak ezarritako epeetan, sailaren webgunean argitaratutako formatuetan (www.euskadi.eus/prozedurak-energia).



3.– Inbentarioei buruzko informazioa urtero eguneratu beharko da, eta informazio hori eguneratuta igorri beharko dute urte bakoitzaren lehen hiruhilekoan, aurreko lerrokadan adierazitakoaren arabera.

Eusko Jaurlaritzan energiaren arloko eskumena duen saila Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila da, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituena eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituena Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuan jasotzen den bezala.

12. artikulua.– Kontsumoen kontrola.

1.– Lege hau indarrean sartu eta urtebeteko epean, energia elektrikoaren kontagailuak eduki beharko dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publiko bakoitzaren eraikin eta instalazio guztiek, eta kontagailu horiek gai izan beharko dute ordubete baino gutxiagoko denbora-tartean karga-kurba transmititzeko, erregistratzeko eta teleneurketa egiteko. Kontagailuen bidez lortutako informazioa eskuragarri egongo da, gutxienez egunero eta modu zentralizatuan, eraikin eta instalazio guztietarako.

Kontagailuek eta horien instalazioak bete egin behar dituzte abuztuaren 24ko 1110/2007 Errege Dekretuaren bidez onartutako Espainiako sistema elektrikoaren neurketa-puntuaren Erregelamendu bateratuan eta jarraibide tekniko osagarriak onartzen dituen abenduaren 19ko TEC/1281/2019 Aginduan ezarritako eskakizunak.

Kontagailuak instalatu ondoren, instalazioa erabilgarri geratu beharko da, sistema elektrikoaren neurketa-puntuaren Erregelamendu bateratuan agintzen den moduan, neurriaren arduraduna den energia elektrikoaren banatzailea eta sartzeko eskubidea duten gainerako agenteak sartu ahal izateko.

2.– Eraikin bakoitzaren energia-kontsumoa urtean behin kontrolatuko da gutxienez, hilabeteetan oinarrituta. Erabilitako energia guztien kontsumoak eta haien kostu ekonomikoa hartuko dira kontuan kontrolean.

[254/2020 DEKRETUA] 17. artikulua.– Energia-kontsumoen kontrola.

1.– Gutxienez, ekitaldi bakoitzaren lehen hiruhilekoan, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren energia-jarduketako unitateek eta otsailaren 21eko 4/2019 Legearen eraginpean dauden gainerako administrazio publikoek Eusko Jaurlaritzan energiaren arloko eskumena duen sailari emango diote aurreko ekitaldian eginiko energia mota bakoitzaren kontsumoen berri, bakoitzak kudeatutako eraikin, erainkin-zati, instalazio eta ibilgailuei dagokienez. Hala badagokio, bereizita banakatuko dira autokontsumo bidez estalitako kontsumoak.

Eusko Jaurlaritzan energiaren arloko eskumena duen sailaren webgunean argitaratutako formatuetan igorri beharko da informazioa (www.euskadi.eus/prozedurak-energia).

Giga honen I. Eranskinean ENERGIA-MOTA BAKOITZEKO KONTSUMOAREN URTEKO JAKINARAZPENA dokumentuaren eredia argitaratzen da, non jakinarazi beharreko gutxieneko datuak adierazten dira.

2.– Eman beharreko energia-kontsumoei dagokienez, kontuan hartu behar da dekretu honen 3.3 artikuluan jasotakoa.

3.– Eusko Jaurlaritzan energiaren arloko eskumena duen sailak urteko txostena egingo du Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren energia-kontsumoaren jarraipenari buruz, eta webgunean emango du horren berri, Jasangarritasun Energetikoaren Batzordeak onartu ondoren. Txosten hori



egiteko, informazio hori zuzenean eskatu ahal izango die energia banatzen duten enpresei.

Eusko Jaurlaritzan energiaren arloko eskumena duen saila Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila da, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuan jasotzen den bezala.

4.– Dekretu hau indarrean jartzen den egunean dauden bizitegi-eraikinen titulartasuna duten administrazio publikoek banakako kontsumoak zenbatzeko sistemak jarri behar dituzte erakinetan, dekretu honen 38. artikuluan jasotakoa jarraituz, baldin eta eraikin horiek etxebizitzako bizitegi-erabilera badute eta berokuntza- edo hozte-sistemaren hornidura badute, hiriko berokuntza- eta hozte-sare baten bidez edo zenbait kontsumitzaile hornitzen dituen instalazio zentralizatu baten bidez, baldin eta instalazio termiko horiek ez badute zerbitzu bakoitzari dagozkion gastuak kontsumitzaileen artean banatzea ahalbidetzen duen sistemarik, uztailaren 20ko 1027/2007 Errege Dekretuak onetsitako Eraikinetako Instalazio Termikoei buruzko Erregelamenduaren 1.2.4.4 jarraibide teknikoak xedatu bezala.

13. artikulua.– Auditoretza energetikoak.

1.– Lege hau indarrean sartu eta gehienez ere bi urteko epean dagokien auditoretza energetikoa eginda eduki behar dute 70 kW baino gehiagoko potentzia termikoa duten Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen eraikinek.

Eraikin berean bero-sorgailuak, hotz-sorgailuak edo bi motatakoak daudenean, eraikinaren instalazio termikoaren potentzia termiko nominala lortzeko, eskaria estaltzeko behar diren bero-sorgailuen eta hotz-sorgailuen potentzia termiko nominalak batu behar dira.

[254/2020 DEKRETUA] 19. artikulua.– Euskal Administrazio Publikoen energia-auditoretzak.

7.– 2021eko martxoaren 1a baino lehenago, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren eraikin eta instalazio guztiek energia-auditoretza egina izango dute.

2.– Auditoretza energetikoek helburu dute energia-kontsumoari eta aurrezpen eta efizientzia energetikoaren maila potentzialei buruzko diagnostiko bat egitea, bai eta hori guztia hobetzeko eta energia berriztagarriak ezartzeko gomendioak ematea ere.

3.– Kanpoko argiteria publikoari aparteko auditoretza energetikoa egingo zaio; nolahi ere, kanpoko argiteria publikoa osatzen duten osagaiak berritzea eta gutxitzea izan behar du lehentasun, pertsonen edo instalazioen segurtasunagatik posible ez den kasuetan izan ezik, eta bide publiko bakoitzerako argiztapen maila egokien aldez aurreko azterketa ere egin beharko da.

[254/2020 DEKRETUA] 19. artikulua.– Euskal Administrazio Publikoen energia-auditoretzak.

6.– Argiteria publikoen energia-auditoretzak gehienez 2 urteko epean egin beharko dira, dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrera zenbatuta, eta, horiek egiteko, Dibertsifikaziorako eta Energia Aurrezteko Institutuak (IDAE) Kanpoko Argiteria Publikoko Instalazioen Energia Ikuskapenerako Protokoloan eta horren etorkizuneko eguneratzeetan adierazitakoari jarraituko diote. Auditoretza horiek otsailaren 21eko 4/2019 Legeak aipatzen ditu 13.3 artikuluan.

<https://www.idae.es/tecnologias/eficiencia-energetica/servicios/alumbrado-exterior>



4.– Auditoretza energetikoei lotutako adierazleak, ahaztu gabe Europar Batasunean indarrean dauden arauetan ezarritakoa, energiaren alorrean eskumena duen organoak zehaztuko ditu, lege honetan aipatzen diren gainerako euskal instituzioekin elkarlanean, lege hau onartzen denetik sei hilabeteko epean, eta, gutxienez, honako eduki hau izango dute:

- a) Energia-jarduketako unitate bakoitzaren urteko kontsumoa.
- b) Kontsumo espezifikoak eta haien banaketa, kontuan hartuz hauek guztiak: instalazioak, prozesuak, ekipoak, ibilgailu-atala, berokuntza, klimatizazioa, barruko argiztapena eta kanpoko argiteria publikoa.
- c) Energia-hornikuntzaren portzentajeak, iturri konbentzionalak eta energia berriztagarrietatik lortutako beste iturri batzuk bereizita.
- d) Eraikinen, instalazioen, ekipoen eta prozesuen efizientziaren azterketa.
- e) Hartzen ari diren neurriak eraginkorrak diren jakiteko azterketak.
- f) Eraikin, instalazio, berokuntza, klimatizazio, ibilgailu-atal, barruko argiztapen, kanpoko argiteria publiko, kontsumo-, aurrezpen- eta efizientzia-prozesu eta erosketei buruzko gomendioak eta haietan egin daitezkeen hobekuntzak, auditoretzaren arabera lehentasunezkoak zeintzuk diren adieraziz.
- g) Energia berriztagarrien alorreko praktika onak.
- h) Zer metodologia erabili den auditatutako elementuetako bakoitzean.
- i) Laburpen exekutiboa.

[254/2020 DEKRETUA] 19. artikulua.– Euskal Administrazio Publikoen energia-auditoretzak.

1.– Energia-auditoretzak arau hauen arabera egin behar dira: UNE-EN 16247-1. Energia-auditoretzak. 1. zatia: Baldintza orokorrak, UNE-EN 16247-2. Energia-auditoretzak. 2. zatia: Eraikinen, UNE-EN 16247-3. Energia-auditoretzak. 3. zatia: Prozesuak eta UNE-EN 16247-4. Energia-auditoretzak. 4. zatia: Garraioa. Edo, hala badagokio, arau horiek ordeztzen dituzten arauen arabera egingo dira, eta energiaren arloko eskumena duen ministerioak baimendu behar ditu arauok.

Energia-auditoretzei buruzko adierazleak aurreko paragrafoan izendatutako arauetan ezarritako auditoretza-txostenaren gutxienezko edukiarekin bat etorriko dira.

1. Egikaritze-laburpena:

1.1 *Eraginkortasun energetikoa hobetzeko aukeren sailkapen ordenatua.*

1.2 *Proposatutako ezarpen-programa.*

2. Aurrekariak:

2.1 *Auditatutako erakundeari, energia-auditoreari eta auditoriaren metodologiari buruzko informazio orokorra.*

2.2 *Auditoretza energetikoaren testuingurua.*

2.3 *Auditatutako objektu edo objektuen deskribapena.*

2.4 *Arau eta araudi garrantzitsuak.*

3. Auditoretza energetikoa:

3.1 *Auditoretza energetikoaren deskribapena, irismena, xedea eta xehetasun-maila, bere epea eta mugak.*

3.2 *Datuak biltzeari buruzko informazioa:*

3.2.1 *Kontagailuen instalazioa (egungo egoera).*



3.2.2 Erabilitako datuei buruzko argibideak, horietatik neurketa bidez zein lortu diren eta zenbatetsi diren.

3.2.3 Erabilitako funtsezko datuen eta kalibraketa-ziurtagirien kopia.

3.3 Energia-kontsumoaren azterketa.

3.4 Eraginkortasun energetikoa hobetzeko neurrien sailkapen ordenatua ezartzeko irizpideak.

4. Eraginkortasun energetikoa hobetzeko aukerak:

4.1 Proposatutako neurriak, gomendioak, ezarpen-plana eta programa.

4.2 Aurrezkoa kalkulatzeko eta, ondorioz, gomendioak zehazteko erabilitako suposizioak.

4.3 Laguntza eta diru-laguntza aplikagarriei buruzko informazioa.

4.4 Analisi ekonomiko egokia.

4.5 Proposatutako beste gomendio batzuekiko elkarreagin posibleak.

4.6 Gomendatutako aukerak inplementatu ondoren haiek ebaluatzeko erabiliko diren neurketa- eta egiaztapen-metodoak.

5. Ondorioak.

5.– Auditoretza energetikoak lau urtean behin egin beharko dira. Egindako jarduketan laburpen bat eta aurreko auditoretzaz geroko energia-kontsumoaren bilakaeraren konparaziozko azterketa bat jasoko dira auditoretza berrian.

[254/2020 DEKRETUA] 19. artikulua.– Euskal Administrazio Publikoen energia-auditoretzak.

2.– Behar bezalako kualifikazioa duten auditoreek egingo dituzte energia-auditoretzak, otsailaren 12ko 56/2016 Errege Dekretuak ezarritakoari edo haren ordeaz ematen den arauari jarraikiz. Errege Dekretu horrek eraginkortasun energetikoari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012ko urriaren 25eko 2012/27/EB Zuzendarauaren transposizioa egiten du energia-auditoretzei, energia-zerbitzuen hornitzaileen eta energia-auditoreen akreditazioari eta energia-hornikuntzaren eraginkortasuna sustatzeari dagokienez.

Nolanahi ere, dena delako erakundeko teknikari gaituek egin ahal izango dituzte energia-auditoretzak, betiere ez badute zuzeneko loturarik ikuskatutako instalazioekin eta, dena delako erakunde behartuaren barruan, zeharkako eginkizunak garatzen dituen organo batekoak badira.

Berezko teknikari kualifikatuek ikuskatutako instalazioarekiko duten objektibotasuna eta independentzia bermatu behar da. Horretarako, behartutako subjektuaren sail, organo, zuzendaritza eta/edo zerbitzu guztietarako zeharkakoa den organo, sail, zuzendaritza eta/edo zerbitzu bateko kide izan behar da, adibidez: zerbitzu zuzendaritza orokorrak, kudeaketa bateratuko zerbitzu zentralizatuak, ingurumen- eta kalitate-kudeaketako sailak.

3.– Proposatutako neurrietarako zehaztu eta balidatutako kalkuluak jasoko dira energia-auditoretzetan, eta, era horretan, aurrezteko ahalmenaren gaineko informazio argia emango dute. Gordetzeko modukoak izango dira energia-auditoretzetan erabilitako datuak, analisi historikoak egiteko eta energia-portaeraren trazabilitatea egiteko.

Energia-auditoretzetan ez da klausularik jasoko auditoretzaren ondorioak energia-zerbitzuak hornitzen dituzten enpresa gaitu eta akreditatuei helaraztea



eragozteko, eta informazioaren konfidentziasuna errespetatu beharko da edozelan ere.

4.– Behartuta dauden subjektuek telematikoki jakinarazi beharko diote energia-auditoretza, baita haren aldizkako eguneratzeak ere, egin dutela Eusko Jaurlaritzan energiaren arloko eskumena duen zuzendaritzari, egiten denetik hilabeteko epearen barruan, eta Eusko Jaurlaritzan energiaren arloko eskumena duen sailaren webgunean argitaratutako prozedura erabiliko dute horretarako (www.euskadi.eus/prozedurak-energia).

Eusko Jaurlaritzan energiaren arloko eskumena duen saila Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila da, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituena eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituena Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuan jasotzen den bezala.

Egitera behartuta dauden subjektuek energia-auditoretza indarrean eduki behar dute eta arduratuko dira auditoretzetan dagoen informazioa eguneratzeaz, hala otsailaren 12ko 56/2016 Errege Dekretuan, hori aplikagarri zaien kasuan, nola otsailaren 21eko 4/2019 Legean, eta dekretu honetan ezarritakoaren arabera.

5.– Energia-auditoretzak egiteko betebeharra energia- edo ingurumen-kudeaketarako sistema bat ezarri eta aplikatuz ere justifikatu ahalko da, erakunde independente batek ziurtatua Europako edo nazioarteko arauen arabera, baldin eta dena delako kudeaketa-sisteman energia-auditoretza bat egiten bada dekretu honetan adierazten diren gutxieneko jarraibideen arabera.

Aurreko paragrafoan xedatutakoak ez du salbuesten arestian aipatutako informazioa komunikatzeko eta eguneratzeko betebeharretatik.

ISO 50001 arauaren arabera ziurtatutako energia-kudeaketako sistema bat xedatzeak eta aplikatzeak energia-kudeaketako sistemaren auditoretza-prozesu jarraitua dakar berekin, baina ISO 14001 arauaren arabera ziurtatutako ingurumen-kudeaketako sistema bat xedatzeak ez dakar berez energia-auditoretzak egitea. Horregaitik, ISO 14001 arauaren arabera ziurtatutako ingurumen-kudeaketako sistema bat izateagatik eta aplikatzeagatik auditoretza energetikoak ez direla egin behar justifikatu nahi denean, behartutako subjektuari eskatuko zaio berariaz adieraz dezala bere ingurumen-kudeaketako sistemak barne hartzen dituela 254/2020 DEKRETUAK zehaztutako gutxieneko jarraibideen arabera egindako auditoretza energetikoak.

14. artikulua.– Energia-jarduketaren planak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publiko guztiek energia-jarduketaren hainbat urtetarako planak egin beharko dituzte; plan horietan, beren jarduera-eremuan zer egoera dagoen jakiteko diagnostikoak egin behar dituzte, eta plana indarrean dagoen bitartean gauzatu beharreko estrategiak zehaztu. Horretaz gain, planak egiteko prozesuetan herritarrek parte hartuko dutela bermatu behar dute administrazioek.

[254/2020 DEKRETUA] 21 artikulua.– Energia-jarduketaren planak.

1.– Energia-jarduketaren planak lehen energia-jarduketaren plan orokorra izan behar du sorburu, eta bertan jasoko dira administrazio publiko bakoitzaren abiapuntuko egoeraren diagnostikoa eta otsailaren 21eko 4/2019 Legearen helburuak lortzeko estrategiak.

Energia-jarduketaren plan orokorra da, otsailaren 21eko 4/2019 Legeak 14. artikuluan ezarritako epeen barruan, euskal administrazio publiko guztiek onartu behar duten dokumentua.



2.– Administrazio publiko bakoitzak honako informazio hau jaso beharko du energia-jarduketaren plan orokor horretan:

a) Eraikinen, eraikin-zatien, eta instalazioen inbentarioa, baita eraikin, edo eraikin-zati, bakoitzaren metro karratuko azalera erabilgarri eta eraikia, haren energia-kalifikazioa eta energia-kontsumoa energia-iturri bakoitzari dagokionez, dekretu honen 3.3 artikuluan jasotakoa kontuan hartuta.

Ez dira kontuan hartu behar errentamendu-, biztantz- edo gozamen-araubideko pertsona fisiko edo juridikoek eremu pribatuan erabilitako etxebizitzak edo lokalen barruan egindako energia-kontsumoak.

b) Ibilgailuen inbentarioa, eta horren ondoriozko kontsumoak, energia-iturrien arabera, motordun eta motorrik gabeko ibilgailuen kopurua zehaztuta (lehorrekoak zein itsaso eta airekoak), baita ibilgailu bakoitza zertan erabiltzen den ere.

c) Energia-jarduketako unitateen zehaztapena.

d) Energia-kontsumoaren erreferentziako oinarritzko maila zein den.

e) Lortu nahi diren helburuak zeintzuk diren.

f) Auditoretza- eta ziurtatze-planen definizioa, horiek burutzeko irizpideak eta epeak adierazita.

g) Langileak prestatzeko eta sentsibilizatzeko planen definizioa.

h) Behar diren inbertsioen zenbatespena.

i) Jarduketaren plangintza eta programazioa.

Energia-jarduketaren planarentzako ondoko aurkibidea proposatzen da.

Energia-jarduketaren planaren hastapeneko den Energia-jarduketaren plan orokorra egiteko, "5. Jarduketak" atalean azpialde bakoitzean aipatutako betebeharren betetzea nola planifikatuko den zehaztu beharko da.

1. Sarrera.

2. Aplikazio-eremua.

3. Jarduketaren koordinazioa.

** Jarduketak koordinatzen dituen organoaren informazioa (jasangarritasun energetikoaren batordea edo antzeko ezaugarriak eta zereginak dituen erakundea)*

4. Abiapuntuko datuak.

4.1 Energia-jarduketako unitateen definizioa.

4.2 Eraikinen, instalazioen eta ibilgailu-atalaren inbentarioa.

4.3 Energia-kontsumoaren oinarritzko erreferentzia maila.

5. Jarduketak.

5.1 Energia-kontsumoaren kontrola eta bilakaera.

** Energia-iturri bakoitzerako oinarritzko erreferentzia urtetik aurrera.*

5.2 Instalazioak, ekipoak, flotak eta ibilgailuak berritzea.

** Energia berriztagarriak aprobetxatzeko instalazioen ezarpena kontuan hartu behar da.*

5.3 Mugikortasun jasangarria.

5.4 Lehendik dauden eraikinen kalifikazio energetikoa.

** Lehendik dauden eraikinen eraginkortasun energetikoa hobetzeko jarduketei buruzko informazioa sartu behar da.*



5.5 *Eraikin berrien eta eraberritze garrantzitsuak egin behar zaizkien lehendik dauden eraikinen kalifikazio energetikoa.*

5.6 *Eraikinen eta instalazioen auditoretza energetikoak.*

5.7 *Energia-jarduketako unitateen berariazko energia-jarduketa planak.*

5.8 *Prestakuntza-planak.*

5.9 *Sentsibilizazio Plana.*

5.10 *Hedapen- eta gardentasun-planak.*

6. Planaren aurrekontua eta finantzaketa.

7. Jarduketan plangintza eta programazioa.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta Euskal Herriko Unibertsitateak lege hau indarrean sartu eta gehienez ere urtebeteko epean onetsi behar dituzte beren jarduketa-planak.

[254/2020 DEKRETUA] 21 artikulua.– Energia-jarduketan planak.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren energia-jarduketan plana, eta horren ondoko ondoko eguneratzeak, Gobernu Kontseiluan onetsi beharko dira, Jasangarritasun Energetikoko Batzordeak alde aurreko adostasuna eman ondoren.

3.– Lurralde historikoetako eta udaletako administrazioek lege hau indarrean sartu eta urtebeteko epean onartu behar dituzte beren energia-jarduketan planak.

5.000 biztanletik beherako udalek, berriz, energia-jarduketan plan mankomunatuak edo eskualde mailakoak egin ahal izango dituzte; horretarako, bi urteko epea izango dute lege hau indarrean sartzen denetik.

4.– Energiaren alorrean eskumena duen organoak, gainerako instituzioekin elkarlanean, lege hau onartu eta urtebete baino gehiagokoa izango ez den epean, jarraibide-gida bat egingo du, zeinean hainbat urtetarako energia-planak egiteko adierazleak eta metodologia zehaztuko diren. Edozein kasutan, energia-jarduketan planek gutxienezko eduki hau izan behar dute:

a) Administrazio bakoitzak energia-diagnostikoa egin eta zer oinarritzko erreferentzia maila duen zehaztu beharko du, eta, horretarako, kontsumo-iturriak banakatu beharko ditu, argiteria publikoa ere kontuan hartuz.

b) Jasangarritasun energetikoko neurriak ezartzeko plana egin beharko du, sektoreka banakatuta. Aldi baterako plangintza horietan, hala badagokio, dagokion auditoretza energetikoko ondorioak eta lege honek eta berau garatzeko arauak ezartzen dituzten betebeharrak hartu behar dira kontuan.

c) Planaren ekintzen urteroko ebaluazioa egiteko mekanismoak eta neurri zuzentzaileen ezarpena, helburuak betetzen ez badira.

[254/2020 DEKRETUA] 21 artikulua.– Energia-jarduketan planak.

4.– Energia-kontsumoaren erreferentziako oinarritzko maila ezartzeko, horrela xedatzen baitu otsailaren 21eko 4/2019 Legeak, hori indarrean jarri aurreko azken 3 urteetako batezbestekoa hartu beharko da kontuan. Horren ordez, halere, justifikatuz gero, indarrean jarri aurreko azken urteko edo beste urte batekoa hartu ahal izango da energia-kontsumoaren oinarritzko mailatzat, otsailaren 21eko 4/2019 Legea onetsi aurretik eginiko jarduketan balioa nabarmentzeko.



5.– Energia-auditoretzak egindakoan, administrazio publiko bakoitzeko zehaztutako energia-jarduketako unitate bakoitzak dagozkion energia-jarduketan berriazko planak egingo ditu.

254/2020 DEKRETUAK, bere 18. artikuluan, energia-jarduketako unitateen definizioa arautzen du.

Behartutako administrazio bakoitzaren eskumenen barne-banaketaren eta erabakiak hartzeko erantzukizunen eta eskumenen arabera zehatz daitezke energia-jarduketako unitateak, eta sail osoen, zuzendaritzen, zerbitzuen eta/edo aurrekoen konbinazioaren arabera definitu daitezke.

Energia-jarduketako unitateek energia-jarduketan berriazko planen bitartez zehaztuko dute nola lagundu otsailaren 21eko 4/2019 Legeak finkatutako helburu osoak betetzen, kide diren administrazio publikoari dagokionez; hori dela eta, beharrezkoa da jarduketa-unitatea zuzentzen duen organoak energia-jarduketan berriazko planak berrestea.

Energia-jarduketan berriazko plan bakoitzak adierazi behar du zein neurritan lagunduko den otsailaren 21eko 4/2019 Legean ezarritako helburuak betetzen, energia-arloko jarduketa-unitate bakoitzetik, epe labur, ertain eta luzera dagozkion hobekuntza-jarduketak planifikatuz eta programatuz, 2050. urtera arte.

Energia-jarduketan planen eta Energia-jarduketan berriazko planen lehen bertsioetan 2030erako ezarritako betebeharrak betetzeko egin beharreko jarduketak zehatzago zehaztuko dira, eta zehaztasun gutxiago izan ditzakete, baina ez horregatik ahaztuak izan gabe, 2050erako ezarritakoek. Behin 2030erako muga gaindituta, zehatzago zehaztuko dira 2050erako jarduketak.

6.– Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko energia-jarduketako unitateek, Jasangarritasun Energetikoaren Batzordeak berretsitako aurrezki-ehuneko globalaren banaketa hartu beharko dute kontuan beren Energia-jarduketan berriazko planak egiteko orduan. Horri dagokionez, unitate bakoitzak bere aldetik jaso eta justifikatu beharko du, bere berriazko jarduketa planaren barruan, batzordeak esleitutako aurrezkiaren ehunekoa, eraikin eta instalazioetan egindako jarduketan bidez estali dena, eta ibilgailu-parkean egindako jarduketan bidez estali dena.

7.– Beren eraikin, instalazio edo parke mugikorren energia-kontsumoa murriztea eragin duten jarduketak ezarri dituzten jarduketa-unitateen kasuan, dagokien administrazio publikoak onartutako erreferentziazko oinarritzko maila baino lehenagoko energia-kontsumo maila batera erreferentzia eginda, eta horren ondorioz erreferentzia-maila horri erreferentzia eginez ezarritako aurrezki-ehunekoak justifikatzeko zailtasunak badituzte, jarduketa-unitate horiek hobekuntza-jarduera horiek sartu ahal izango dituzte haien Energia-jarduketan berriazko planak, eta erreferentziako oinarri-mailatzat hartu duten erreferentzia-urtearekin alderatuta lortutako aurrezkiak justifikatu beharko dituzte.

Erreferentziako oinarritzko maila desberdin baten aukeraketa argi eta garbi adierazi eta justifikatu behar da Energia-jarduketan berriazko planean.

8.– Energia-jarduketan berriazko planen definizioan, energia-jarduketako unitatearen funtzionamenduan eragina izango duten erabakiak hartu behar dira (baliabideen esleipena, aurrekontu-partiden definizioa, lizitazio- eta kontratazio-prozesuak, etab.). Horren ondorioz, plan horien definizioan energia-jarduketako unitatearen barruan aurrekontu-eskumena esleituta duten eta kontratazio-organoen izaera duten izaera horizontaleko organoek parte hartu beharko dute.



Energia-jarduketan berariazko planek atal edo kapitulu espezifiko bat izango dute, eta bertan haietan jasotako jarduerak gauzatu ahal izateko inbertsio ekonomikoak jasoko dira, hala xedatuak nola aurrekontuan jasotakoak.

9.– 2021eko urriaren 1a baino lehen, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren energia-jarduketan unitate bakoitzak energia-jarduketan berariazko plana igorriko dio Eusko Jaurlaritzan energiaren arloko eskumena duen sailari, hark azter dezan.

Eusko Jaurlaritzan energiaren arloko eskumena duen sailak Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren energia-jarduketan berariazko planak banaka zein batera aztertuko ditu, otsailaren 21eko 4/2019 Legeak ezarritako betebeharrak betetzeko aukera ematen duten ebaluatu eta zehazteko.

10.– Administrazio bakoitzak Energia-jarduketan berariazko planetatik bildutako informazioarekin Energia-jarduketan plan orokorra eguneratuko dute, eta otsailaren 21eko 4/2019 Legearen helburuak lortzeko onetsitako jarduketak planifikatu eta programatuko ditu.

11.– Otsailaren 21eko 4/2019 Legearen eraginpeko administrazio publikoek, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren barruan sartzen ez direnek, ekitaldi bakoitzeko lehen hiruhilekoan, Eusko Jaurlaritzan energiaren arloko eskumena duen zuzendaritzari informazio eguneratua emango diote beren jarduketa-planen garapenari buruz, eraikinen, instalazioen eta parke mugikorraren inbentario eguneratuarekin batera, eta Eusko Jaurlaritzan energiaren arloko eskumena duen zuzendaritzak bere sailaren webgunean argitaratutako formatuak erabiliko dute horretarako (www.euskadi.eus/prozedurak-energia).

Eusko Jaurlaritzan energiaren arloko eskumena duen saila Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila da, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuan jasotzen den bezala.

15. artikulua.– Bultzada-neurriak.

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek, beren eskumenak baliatuz eta energiaren alorrean eskumena duen sailaren laguntzarekin eta koordinazioarekin, lege honetako helburuak lortzeko beharrezko diren neurriak bultzatuko dituzte. Energiaren ekoizpen, banaketa eta merkaturatetik lortutako mozkin eta etekinak –bai eta efizientzia energetikoaren neurrietatik lortutako aurrezpenak ere– energia berriztagarriekin eta efizientzia energetikoarekin zerikusia duten neurrietan berrinbertitu beharko dira.

16. artikulua.– Energia-aurrezpenaren ehunekoak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek lege honetan ezarritako energia-aurrezpen eta efizientzia energetikoaren eta energia berriztagarrien ehunekoak bete behar dituzte, Euskadiko Energia Estrategian ezarritako helburuekin bat eginik.

Euskadiko energia-politikaren oinarriak jasotzen dituen plangintza-tresna, gaur egun indarrean dagoena, Euskadiko Energia Estrategia 2030 da, eta esteka honetan kontsulta daiteke:

<https://www.euskadi.eus/plan-programa-proiektua/euskadiko-energia-estrategia-2030/web01-a2energi/eu/>



2.– Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek, bakoitzak bere jarduera-eremuaren barruan, irizpide orokor gisa, 2050erako % 60 gutxitu beharko dute energia-kontsumoa, tarteko helburu gisa, eta 2030erako % 35 gutxituko dute.

3.– Energia-kontsumoa zenbat murriztu behar den zehazteko, kontabilizatuko dira bakoitzaren eraikinak, ibilgailu-atala eta argiteria publikoa.

[254/2020 DEKRETUA] 20. artikulua.– Energia-aurrezpenaren ehunekoak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikorako, energiaren arloko eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak, energia-auditoretzek ematen duten emaitza ikusita, Energiaren Jasangarritasunerako Batzordeari proposatuko dio otsailaren 21eko 4/2019 Legean ezarritako energia-aurrezpenaren eta energia-eraginkortasunaren ehuneko globala banatzea energia-jarduketako unitateen artean.

Banaketa hori erreferentziatzen hartuko da Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikorako zehaztutako energia-jarduketa unitateen energia-jarduketaren berriazko planak egiteko eta onesteko.

2.– Euskal administrazio publikoek otsailaren 21eko 4/2019 Legeak ezarritako aurrezpen-ehuneko globala aplikatu behar dute inbentarioan jasotako energia-kontsumo guztien gainean, eta dekretu honen 3.3 artikuluan jasotakoa hartu behar da kontuan.

17. artikulua.– Iturri berriztagarrietatik datorren energia erabiltzea.

1.– Lege hau indarrean sartzen denetik aurrera, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek energia elektrikoa erosteko egiten dituzten lizitazioetan erositako energiaren % 100 jatorri berriztagarrikoa izatea exijituko da.

2.– Europako arautegiaren arabera, lizitazio-agiriak egokitu egingo dira enpresa txiki eta ertainen eta kooperatiben konkurrentzia bermatzeko. Era berean, agiri horien balorazio ekonomikoan kontuan izango dira enpresa merkaturatzaileen onura soziala eta energiaren ekoizpenean dagoen hurbiltasuna.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publiko bakoitzak 2030erako lortu beharra dauka bere eraikin guztietan energia berriztagarriez baliatzeko instalazioak edukitzea, administrazio horren kontsumoaren % 32 zuzkitzeko adinakoak, ustiapen termikoko sistemak nahiz elektrizitatea sortzekoak barne direla.

4.– Behin lege hau indarrean sartzen denean, 2. artikuluan adierazten diren instituzio eta erakundeek egiletsi, adjudikatu edo sinaturiko kontratu publikoetan, honako alderdi hauek kontuan hartzen dituzten klausulak ezarri beharko dituzte:

a) Joan-etorrien arrazionalizazioaren bitartez baliabide fosilen murrizketak bultzatzea.

b) Kontratuaren arabera makinak edo ibilgailuak erabili behar badira, haien efizientzia altua eta kontsumo baxua hobestea, bai eta erregai edo energia-iturri alternatiboak dituztenak ere.

c) Gas kutsatzaileen isuriak eta zarata murriztea, isurtze eta soinu maila baxuko makineria eta ibilgailuak erosiz edo moldatuz.

18. artikulua.– Instalazioak, ekipoak, flotak eta ibilgailuak berritzea.

1.– Instalazioak kudeatzeko sistema zentralizatuak instalatzeaz gain –kontsumoen monitorizazioa ere sar daiteke sistema horietan–, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publiko bakoitzak bere instalazioak, ekipoak, flotak eta ibilgailuak berritzeko garaian kontuan izan behar ditu energia-aurrezpeneko eta efizientzia



energetikoko irizpideak, produktu, ondasun eta zerbitzuaren kostu eta birtza baliagarrikoak, bai eta berotegi-efektuko isurketak gutxitzen lagunduko duten ordezko energiak erabiltzea ere.

2.– Sektorre publikoko kontratuei buruzko legerian xedatutakoa ahaztu gabe, eta erregulazio harmonizatuari lotutako sektorre publikoko kontratuen kasuan, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek energia-errendimendu handiko produktuak, zerbitzuak eta eraikinak erosi behar dituzte, irizpide hauen arabera, besteak beste:

a) Efizientzia mailarik handienekoak izatea, aintzat hartuz kostuetako ondorioak, bideragarritasun ekonomikoa eta egokitzapen teknikoa, bai eta behar besteko lehia egotea ere. Hori bereziki aplikatuko da hauek erosterakoan: klimatizazio-ekipoak, etxeko ur beroko ekipoak, ekipo ofimatikoak eta argiteriako ekipoak.

b) Errepide-garraioko ibilgailuak eta pneumatikoak erosterakoan, kontuan hartu beharko da zer bizi-ziklo duten eta zer energia- eta ingurumen-inpaktu eragingo dituzten.

[254/2020 DEKRETUA] 27. artikulua.– Ordezko erregaiak erretzen dituzten ibilgailuak.

1.– Ordezko erregaiak erabiltzeko betebeharra aplikagarri izango zaie administrazio publikoek jabetzan eskuratutako ibilgailuei zein horiek alokairu-araubidean edo era guztietako finantza-errentamendu edo erabilera-kontratuekin eskuratzen dutenei.

2.– Ondorio horietarako, ordezko erregaiak kontsumitzen dituen ibilgailu gisa ulertzen da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko ekainaren 20ko 2019/1161 (EB) Zuzentarauan adierazitakoarekin bat datorren ibilgailua. Zuzentaru horrek 2009/33/EE Zuzentaru aldutzen du, zeina errepide bidezko garraio-ibilgailu garbiak eta energetikoki efizienteak sustatzeari buruzkoa baita, azken horren 4. artikuluko 4.b azpiataleko testuaren aldaketaren arabera, «ibilgailu garbia» definituta.

3.– Ibilgailuak eskuratzeko lizitazio-prozesuetan, kontratazio-zerbitzuek neutraltasun teknologikoa bermatu beharko dute, betiere alternatibotzat jotzen diren teknologien barruan; horrela bada, ordezko erregai duen ibilgailu bat eskuratzea ekonomikoki baloratzeko orduan, hori erosteko kostuaz gain, ibilgailuaren birtza baliagarri osoko kostu eta aurrezpen guztiak ere hartu beharko dira kontuan, baita, besteak beste, erregai-aurrezpenaren kostua, mantentze-lanetan aurrezten dena, baita kutsatzaileen isuriak gutxitzeagatik izango lituzkeen hobariak ere.

c) Balioetsi zerbitzu-kontratuak esleitzeko lizitazioetan zerbitzuaren hornitzaileek erabil ditzatela, kontratu horien xedeetarako, aurreko apartatuetan adierazitako baldintzak betetzen dituzten produktuak kasuan kasuko zerbitzuak ematerakoan.

2. ATALA ERAIKINAK

19. artikulua.– Lehendik dauden eraikinen kalifikazio energetikoa.

1.– Eraikinen energia-kontsumoak ezagutzeko, kontrolatzeko eta murrizteko, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen titulartasuneko eraikin guztiek Euskadiko Efizientzia Energetikoaren Ziurtagirien Erregistroan behar bezala inskribatutako ziurtapen energetikoa eduki behar dute, lege hau indarrean sartzen denetik urtebeteko epean.



[254/2020 DEKRETUA] 23. artikulua.– Eraikinen eraginkortasun energetikoa ziurtatzea.

Eraikinen eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko prozedura otsailaren 26ko 25/2019 Dekretuan ezarritakoari jarraikiz egin behar da (Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen eraginkortasun energetikoaren ziurtapenari eta ziurtapenaren kontrol-prozedurari eta erregistroari buruzkoa da dekretu hori).

Euskadiko Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagirien Erregistroaren egoitza elektronikoan eskuragarri dago autonomia-erkidego honetan eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko prozedurari buruzko informazioa (www.euskadi.eus/ziurtagiri-energetikoa).

Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak eta Sustapen Ministerioak eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko onartutako eta gaur egun indarrean dauden kalkulu-metodologiak eta dokumentuek ez dute aukerarik ematen industria-, defentsa- edo nekazaritza-eraikinak, edo horien zatiak, ziurtatzeko, tailerrei, industria-prozesuei, defentsari eta bizitegitarako ez diren nekazaritza eremuei dagokien zatian, ezta bizitzeko moduko esparrutzat hartzen ez diren lokalak ziurtatzeko ere, hau da, Eraikingintzaren Kode Teknikoan ezarritakoaren arabera pertsonen erabilera iraunkorrerako ez direnak edo, noizbehinka edo salbuespenez okupatzen delako eta egonaldiak laburrak izanagatik, osasungarritasun-baldintza egokiak baino eskatzen ez dituztenak. Azken kategoria honetan esplizituki ez-bizigarritzat hartzen dira garajeak, trastelekuak, areto teknikoak eta egokitu gabeko ganbarak.

2.– B mailako kalifikazio energetikoa baino baxuagoa duten Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publiko bakoitzaren eraikinen % 40k kalifikazio hori hobetu beharko dute B mailaraino, gutxienez, 2030. urtea baino lehen, salbu eta 3.2 artikuluaaren arabera justifikatutako arrazoi bat dagoen.

Kalifikazio energetikoa hobetzeko lehentasuna emango zaio betiere energia-kontsumoaren murrizketari eta ez isurketen murrizketari, energia-eskaeraren adierazle partzialetan maila bat gutxienez hobetuz.

[254/2020 DEKRETUA] 24. artikulua.– Dauden eraikinen kalifikazio energetikoa hobetzea.

1.– Otsailaren 21eko 4/2019 Legeak 19.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, kalifikazio energetikoa hobetzeko jarduketak kontsumo energetiko handiena duten eraikinetara bideratu beharko dira hasiera batean.

2.– 3.2 artikuluko d) egoeran dauden eraikinei dagokienez, otsailaren 21eko 4/2019 Legean ezarritako neurriak ezartzea bideraezina dela azaltzen duen justifikazioa bidali beharko dio jabe den administrazio publikoak Eusko Jaurlaritzan energiaren arloko eskumena duen zuzendaritzari, aztertu ondoren, eta hala badagokio, salbuespen-ebazpena eman dezan.

Esanbidezko edo ustezko ebazpenaren aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkez dezakete interesdunek, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluei jarraikiz.

3.– Era berean, otsailaren 21eko 4/2019 Legearen 3.2 artikuluaaren salbuespenei lotutako eraikinak birgaitzen dituztenean, jabeek teknikoki justifikatu beharko diote, obra-lizentzia eskatu aurretik, Eusko Jaurlaritzan energiaren arloko eskumena duen zuzendaritzari, birgaitze horrek alderdi energetikoa barnean hartzen duela eta ahalik eta eraginkortasun energetiko handiena lortzea ahalbidetzen duela.



4.– 2. eta 3. paragrafoetan aipatutako kasuen justifikazio teknikoa, Eusko Jaurlaritzan energiaren arloko eskumena duen sailak horretarako garatutako prozedura elektronikoaren bidez bidali behar dira (www.euskadi.eus/prozedurak-energia).

Eusko Jaurlaritzan energiaren arloko eskumena duen saila Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila da, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioa sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituena eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituena Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuan jasotzen den bezala.

20. artikulua.– Eraikin berrien eta eraberritze integralak egin behar zaizkien eraikinen kalifikazio energetikoa.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen titulartasuneko eraikin berriek energia-kontsumo ia nulukoak izan behar dute. Hala izan beharko dute aurretik dauden eraikinek ere, eraberritze integralak egiten badizkiete, obra horiek lege hau onartu eta bi urte geroagotik aurrera hasten badira, edo aplikagarri dakikeen araudiak hala esaten duenetik aurrera.

[254/2020 DEKRETUA] 25. artikulua.– Eraikin berrien eta eraberritze integrala jasotzen duten eraikinen kalifikazio energetikoa.

Euskal administrazio publikoen jabetzako eraikin berriak eta erabat berritutakoak energia-kontsumo ia ezdeusekoak izan beharko dira, martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak onartutako Eraikuntzaren Kode Teknikoa aldatzen duen abenduaren 20ko 732/2019 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera, eta bertan zehaztutako epeetan.

2.– Betebehar hori salbuetsi daiteke kasu hauetan, baldin eta kalifikazio energetikoa hobetzearen bideragarritasunik eza teknikoki justifikatzen bada:

a) Eraikin eta monumentu ofizialki babestuak badira, kultura-ondare aitortutako ingurune baten zati direlako edo balio arkitektonikoa edo historikoa dutelako.

b) Bi urtean edo gutxiagoan erabiltzekoak diren behin-behineko eraikuntzak badira.

c) Industria- eta nekazaritza-eraikinak edo haien zatiak, baldin eta lantegi modura edo industria- eta nekazaritza-prozesuetarako erabiltzen badira eta ez bizitegi gisa.

d) Isolatuta dauden eraikinak edo eraikin-zatiak, baldin eta 50 metro koadro baino gutxiagoko azalera erabilgarria badute.

e) Urtean lau hilabete baino gutxiagoan edo urtean zehar denbora mugatu batean erabiltzen diren eraikinak edo eraikin-zatiak, baldin eta urte osoan erabiliz gero gastatuko luketen energiaren % 25 baino gutxiagoko energia-kontsumoa izango dutela aurreikusten bada, jabearen erantzukizunpeko adierazpen baten bidez.

3. ATALA

GARRAIOA ETA MUGIKORTASUNA

21. artikulua.– Ibilgailuetan ordezko erregaiak erabiltzea.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek ordezko erregaiak erabiltzea sustatuko dute, ingurumen-inpaktua arintzeko eta beren ibilgailu-flotaren petrolioarekiko mendekotasuna gutxitzeko.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko urriaren 22ko 2014/94/EB Zuzentarauak, ordezko erregaietarako azpiegitura bat ezartzeari



buruzkoak, honela definitzen du bere 2. artikuluan ordezeko erregaia: erregai fosil klasikoak, neurri batean behintzat, garraioaren energia-iturri gisa ordezkatzeko erregaiak edo energia-iturriak, azken horiek deskarbonizatzen eta garraio-sektorearen ingurumen-portaera hobetzen lagun dezaketenak.

Barnean hartzen ditu elektrizitatea, hidrogenoa, bioerregaiak (2009/28/EE Zuzentarauko 2. artikuluko i) letran definitzen diren bezala), erregai sintetikoak eta parafinikoak, gas naturala [biometanoa barne, gas natural konprimatu gisa (GNK) eta gas natural likidotuaren (GNL) forma likidotuan], eta petroliotik likidotutako gasa (PLG).

2.– 2020tik aurrera, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek erosten dituzten ibilgailu guztiek (% 100) ordezeko erregaiak erabili beharko dituzte.

3.– Aurreko apartatuan zehaztutako betebeharrak beharbada ez die eragingo, egiten duten jardueraren ezaugarri berariazkoak erreparatuta, petrolioaren deribatuak diren erregaien bidez higiarazitako gutxieneko ibilgailu kopuru bat behar dutela justifikatzen duten sailei edo erakundeei.

Lege hau garatzeko emango diren xedapenek zehaztuko dute aurreko paragrafoan aurreikusitako salbuespena eraginkor bihurtu ahal izateko prozedura.

[254/2020 DEKRETUA] 27. artikulua.– Ordezko erregaiak erretzen dituzten ibilgailuak.

1.– Ordezko erregaiak erabiltzeko betebeharra aplikagarri izango zaie administrazio publikoek jabetzan eskuratutako ibilgailuei zein horiek alokairu-araubidean edo era guztietako finantza-errentamendu edo erabilera-kontratuekin eskuratzen dutenei.

2.– Ondorio horietarako, ordezeko erregaiak kontsumitzen dituen ibilgailu gisa ulertzen da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko ekainaren 20ko 2019/1161 (EB) Zuzentzarauan adierazitakoarekin bat datorren ibilgailua. Zuzentzari horrek 2009/33/EE Zuzentzaria aldatzen du, zeina errepide bidezko garraio-ibilgailu garbiak eta energetikoki efizienteak sustatzeari buruzkoa baita, azken horren 4. artikuluko 4.b azpiataleko testuaren aldaketaren arabera, «ibilgailu garbia» definituta.

3.– Ibilgailuak eskuratzeko lizitazio-prozesuetan, kontratazio-zerbitzuek neutraltasun teknologikoa bermatu beharko dute, betiere alternatibotzat jotzen diren teknologien barruan; horrela bada, ordezeko erregaia duen ibilgailu bat eskuratzeko ekonomikoki baloratzeko orduan, hori erosteko kostuaz gain, ibilgailuaren bizitza baliagarri osoko kostu eta aurrezpen guztiak ere hartu beharko dira kontuan, baita, besteak beste, erregai-aurrezpenaren kostua, mantentze-lanetan aurrezten dena, baita kutsatzaileen isuriak gutxitzeagatik izango lituzkeen hobariak ere.

4.– Administrazio publikoen kontratazio-organismoek, lizitazio-prozesuak argitaratu aurretik, nahitaezko txostena eskatu beharko diote Eusko Jaurlaritzan energiaren arloko eskumena duen zuzendaritzari, otsailaren 21eko 4/2019 Legearen 21.2 artikulua betetzearen aldeko txostena egiteko. Txosten hori jasotzeko, baldintza tekniko zehatzen agiria bidali beharko da.

5.– Otsailaren 21eko 4/2019 Legearen 21.3 artikuluan ezarritakoaren arabera ordezeko erregaiak erabiltzetik salbuetsi daitezkeen sail edo entitateei dagokienez, Eusko Jaurlaritzan energiaren arloko eskumena duen zuzendaritzari justifikatu beharko diote ibilgailuen lizitazio bakoitzean, banaka, ordezeko erregaiak erretzen dituen ibilgailurik ez dagoela merkatuan beren premiei erantzuten dienik, dela zehaztutako tekniko zehatzengatik, dela erabiltzeko ezaugarri bereziengatik.



Justifikazioa onartu ondoren, eta hala badagokio, salbuespen-ebazpena emango da. Kasu horietan, kontratazio-organoei, lizitazio-prozesuak argitaratu aurretik, salbuespen-ebazpena bildu beharko dute.

6.– Nahitaezko aldeko txostena zein salbuespen-ebazpena jasotzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa prozedura telematikoaren bidez bidali behar da, Eusko Jaurlaritzan energiaren arloko eskumena duen sailaren webgunetik eskura daitekeena (www.euskadi.eus/prozedurak-energia).

Eusko Jaurlaritzan energiaren arloko eskumena duen saila Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila da, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituena eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituena Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuan jasotzen den bezala.

7.– Esanbidezko edo ustezko ebazpenaren aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkez dezakete interesdunek, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluei jarraikiz.

8.– Administrazio publikoek era guztietako araubideetan eskuratutako ibilgailuek Barne-arazoetako Ministerioaren Trafiko Zuzendaritza Orokorrek emandako ingurumen-bereizgarria eraman beharko dute, eta horrez gain, kontsumitzen duten ordezkotza erregaiaren berri ematen duen etiketa ere eramango dute ageriko tokian.

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak euskal administrazio publikoen eskura jartzen du, erabil dezaten, ordezkotza erregaiak (elekttrizitatea edo gasa) identifikatzeko etiketa-eredua. Eredu horren formatua gida honen II. eranskinean dago erantsita. Etiketak s-energia@euskadi.eus posta elektronikoen bidez eska daitezke

Ordezko erregaiak identifikatzeko etiketek osatu egin behar dute Barne Ministerioaren Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak jaulkitako ingurumen-bereizgarriak ematen duen informazioa; beraz, komeni da haren tamaina ez gainditzea (97 mm-ko diametroa) eta haren ondoan jartzea.

4.– Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen titulartasuneko eraikin berriek ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak eta bizikletak erabiltzeko eta aparkatzeko lekuak izan beharko dituzte.

5.– Euskal administrazioek ibilgailu ez-motorizatuak izango dituzte, ahal den neurrian, herritarrei eskaintzen dizkieten zerbitzuen artean.

22. artikulua.– Bidaiariak errepidez eramateko zerbitzu publikorako ibilgailuak.

1.– Bidaiariak errepidez eramateko zerbitzu publikoa ordezkotza erregaiak erabiltzen dituzten ibilgailuen bidez eskaini behar da, lege honetan eta berau garatzen duten arauetan xedatutakoaren arabera.

2.– 2020tik aurrera, berritzen den ibilgailu-flota guztiak (% 100) ordezkotza erregaiak erabili behar dituela hartu behar da kontuan administrazio baimenak edo emakidak eramateko eta egiteko edo, hala badagokio, baimen horiek berritzeko onartzen diren baldintza-agiri edo tresnetan.

3.– Bidaiarien garraio publikoko zerbitzuak edo beste era bateko zerbitzu publikoak ustiatzeko diren administrazio-emakiden edo -baimenen adjudikazioa duten enpresak izango dira aurretik adierazitako betebeharrak betetzeko ardura izango dutenak.

4.– Administrazioek energia berriztagarriak higiarazitako erabilera partekatuko ibilgailu-flotak ezartzea sustatuko dute.



23. artikulua.– Ibilgailuen zirkulazioari mugak jartzea.

1.– Energia gehiegi erabili ez dadin eta berotegi-efektuko gasen isurketak gehiegi igo ez daitezzen edo atmosferako airearen kalitateak okerrera egin ez dezan, udalerriek ordezeko erregaiak erabiltzen ez dituzten edo, higiarazteko erabiltzen duten teknologia dela-eta, isurtze maila jakin batzuk gainditzen dituzten ibilgailuei beren udalerriko leku jakin batzuetara sartzeko ez uztea edo sarrera mugatzea erabaki dezakete.

2.– Udalerriek ordezeko erregaiak erabiltzen dituzten ibilgailuetarako ordezeko bideak zabaltzea eta aparkalekuak erreserbatu ahal izango dituzte, bai eta aparkatzeko eremu publikoetan edo udal-aparkalekuetan prezio merkeagoak ezarri ere.

3.– Udalerriek lehenetsi egin beharko dituzte oinezkoen esparruak eta bizikleta-bideak, ibilgailu motordunen zirkulaziorako erreserbatutako esparruen aldean.

4.– Administrazioek, beren antolamendu-eskumenen alorrean, beren langileek garraio publikoa edo mugikortasun partekatua erabiltzea bultzatzeko neurriak hartuko dituzte.

24. artikulua.– Mugikortasun-planak.

1.– Lege hau indarrean sartu eta bi urteko epean, 5.000 biztanletik gorako udalerriek hiri-mugikortasuneko plan bat onartu beharko dute.

Aurreko paragrafoan ezarritakoarekin estali gabe gelditzen den lurralde-zatien foru-aldundiek egingo dituzte hiriarteko mugikortasunari erantzuteko mugikortasun-planak.

2.– Hiri-mugikortasuneko planek atal hauek izango dituzte:

a) 1. zatia. Diagnostikoa; alderdi hauek jaso behar dira:

– Lurralde- eta hirigintza-ereduak mugikortasunean duen eragina eta, orokorrean, garraioan duena.

– Udalerrian dauden garraio-moduak, eta energiaren erabilera duten eragina. Diagnostiko horretan, besteak beste, hauek adierazi behar dira: garraiobideak, edukierak, mugikortasun ez-motorizaturako ibilbide estrategikoak, ibilgailu mota bakoitzerako aparkatzeko lekuak, erregaiak kargatzeko sistema publikoak eta jende gehien biltzen duten ekonomia, lan edo zerbitzuetako jarduerazentzok.

b) 2. zatia. Neurriak; alderdi hauek izan behar ditu:

– Ordezko erregaien karga-puntuak eta ordezeko erregaiez hornitzeko guneak jartzea jendearen eskura.

– Garraio publikoa sustatzea.

– Erabilera partekatuko ibilgailuak (car-sharing delakoa) sustatzea.

– Garraio pribatua pixkanaka gutxituz joateko ordezeko beste aukera batzuk ematea.

– Salgaiak banatzeko logistika hobetzea.

– Bizikleten erabilera eta, oro har, joan-etorri ez-motorizatuak bultzatzea.

– Oinezkoentzako bakarrik diren eremu gehiago jartzea.

– Ordezko erregaiak darabiltzaten ibilgailuak erabil daitezzen sustatzea.

3.– Planean argi eta garbi azaldu behar da zer helburu lortu nahi diren, plana egin duen administrazioak zer inbertsio hitzeman dituen, zein diren urteko jarraipen-



adierazleak eta zenbat denboratan gauzatzea aurreikusi den, eta 4/2005 Legearen 46. artikuluan ezarritakoa bete beharko du. Plana eta plana egiteko beharrezkoak diren azterketak gizonak eta emakumeak hiriarri eta espazioari ematen dioten erabilera desberdinak kontuan hartuta idatzi behar dira, eta generoen artean egon daitezkeen aldeak gutxitzeko proposamenak jaso behar dira, hiri integratzailea eta erantzunkidea lor dadin aurrera egiteko.

4.– Hiri-mugikortasuneko plana izapidetzeko, lehendabizi, hasierako onespena emango zaio, eta, ondoren, behin betikoa; horretaz gain, herritarrei informazioa emango zaiela eta haien parte-hartzea izango dela bermatu behar da, plana izapidetzea adosten denetik. Hasierako onspena eman ondoren, planari aldaketa asko egiten bazaizkio, berriz jarri beharko da jendaurrean. Bi kasuetan, alegazioak aurkezteko epea ezingo da 45 egun baino gutxiago izan.

Plana eta hura izapidetzen ari den bitartean planaren osagarri diren agiriak publikoak izango dira.

5.– Planak bost urteko indarraldia izango du; epe hori igarotakoan, planaren bidez lortutako emaitzak ebaluatu behar dira, eta helburuak eta neurriak aldatzeari ekin. Emaitzek publikoak izan behar dute.

[254/2020 DEKRETUA] 28. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Arlo Publikoaren lantokietarako mugikortasun-planak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren zerbitzuean gutxienez ehun pertsona dituzten lantokiek lantokietarako mugikortasun-plan bat onartu beharko dute gehienez ere 2 urteko epean, dekretu hau indarrean jartzen den egunetik aurrera zenbatuta.

2.– Atal honetan xedatutakoaren ondorioetarako, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren zerbitzuekotasun hartuko dira honako kolektibo hauek:

- a) Karrerako funtzionarioak eta bitarteko funtzionarioak.
- b) Lan-kontratadun langile finkoak, mugagabeak edo aldi baterakoak.
- c) Behin-behineko langileak.
- d) Zuzendaritzako langileak.

3.– Lantokia kudeatzeaz arduratzen den organoak izango du mugikortasun-planak egiteko erantzukizuna, eta egitura organikoari buruzko dekretuan edo antzeko antolaketa-arauetan ezarritakoaren arabera eskumena duen organoari dagokio horiek onartzea.

4.– Honako hau izango da lantokiaren mugikortasun-planaren gutxieneko edukia:

a) Lantokiaren karakterizazioa, gutxienez, datu hauekin: lantokiaren konfigurazioaren deskribapen laburra, jardueraren datu nagusien kuantifikazioa, langile kopurua, bisitari kopurua, jarduera zein zerbitzuen deskribapena eta garrantzizkotzat jotzen den beste edozein datu.

b) Lantokiaren mugikortasun-diagnostikoa, gutxienez, azterketa honetan oinarritua:

- Lantokietara joateko mugikortasunaren karakterizazioa.
- Mugikortasun-eskaeraren azterketa.
- Mugikortasun-eskaintzaren azterketa.
- Aparkaleku-kudeaketaren azterketa.



c) Helburu eta adierazleen definizioa. Planaren helburu nagusiarekin lerrokatutako helburu espezifikoak ezarriko dira. Helburuak zenbatzeko eta neurtzeko modukoak izango dira, eta denbora-eremu zehaztua izango dute. Helburuek adierazle bana izango dute lotuta, horien betetze-maila anbiguotasunik gabe ezagutu ahal izateko. Adierazle guztiek abiatze-datuak izango dituzte.

d) Ekintza-plana. Adierazitako helburu espezifikoak lortzeko gauzatu beharreko ekintzak deskribatuko dira, eta horiek egiteko epeak eta arduradunak identifikatuko dira. Ekintzak honako eremu hauen barruan sartuko dira:

- Mugikortasunaren eskaria gutxitzeko ekintzak, hala nola telelanaren aukera eta bideokonferentziak edo bideodeiak egitea sustatzea.
- Mugikortasun motorizatuaren arazoizko kudeaketarako ekintzak.
- Modu ez-motordunak sustatzeko ekintzak.
- Ibilgailu elektrikoetarako kargaguneak eta gas bidezko ibilgailuak kargatzeko instalazioak sustatzeko ekintzak.
- Garraio publiko kolektiboaren alorreko ekintzak, ibilgailu pribatuaren aldean lehiakorragoa izatea lortzen dutenak.
- Garraio konbinatua, garraio-moduak koordinatzea eta abarrak sustatzen duten ekintzak.
- Sentsibilizazio, dinamizazio eta hedapenerako ekintzak.

4. ATALA

BESTE BETEBEHAR BATZUK

25. artikulua.– Eragindako administrazio publikoen laguntza.

Lege honek eragindako administrazioek bermatuko dute ziurtapen energetikoari buruzko arauetan jasotako printzipio eta betekizunak integratzen direla beren politika publikoetan eta jardun-eremuan, bereziki administrazio horien sustapen-, plangintza-, erregulazio- eta fiskalitate-tresnen arloan. Era berean, ziurtapen energetikoa balioan jartzen lagundu beharko dute, lege honetan eta gai honi buruzko berariazko xedapenetan jasotako eskakizunak beren arau-xedapenetara eramanez.

[254/2020 DEKRETUA] 26. artikulua.– Eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria beste administrazio-prozedura batzuen esparruan.

1.– Otsailaren 21eko 4/2019 Legea eraginkortasun energetikoaren ziurtapenaren balioa nabarmentzen lagundu beharraz aritzen da, 25. artikuluan, baldin eta, administrazio-prozedura baten barruan, eraikinaren edo haren zati baten eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria eskatzen bada zerga-onurak edo laguntzak eskuratzeko baldintza gisa. Hala bada, eta horretan laguntzeko, prozedura hori kudeatzeaz edo zerga-onura edo laguntza horiek emateaz arduratzen den administrazio publikoak zaindu beharko du ziurtagiria behar bezala inskribatuta dagoela Euskadiko Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagirien Erregistroan, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen eraginkortasun energetikoaren ziurtapenari eta ziurtapenaren kontrol-prozedurari eta erregistroari buruzko otsailaren 26ko 25/2019 Dekretuan ezarritako prozedurari jarraikiz, eta ondorioz, Eraginkortasun Energetikoaren Etiketa eskuratu duela.



2.– Toki-administrazioek, obra berria eraikitzeko, eraberritze integraletako eta birgaitzeko lizentziak emateko orduan, zaindu behar dute proiektuan zein obra amaituan aplikatu beharreko araudiak ezarritako energia-kalifikazioko baldintzak betetzen direla, eta eskatu behar dute eraginkortasun energetikoko ziurtagiriak, proiektuarenak zein obra amaituarenak, Euskadiko Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagirien Erregistroan inskribatuta egon daitezela, eta ondorioz, dagokien Eraginkortasun Energetikoaren Etiketa eskuratu izana.

Euskadiko Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagirien Erregistroaren kontsulta publikoaren bidez (www.euskadi.eus/ziurtagiri-energetikoa), bertan inskribatuta eta indarrean dauden ziurtagirien Eraginkortasun Energetikoaren Etiketak deskarga daitezke.

26. artikulua.– Neurriak publiko egitea.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publiko bakoitzak aditzera eman beharko du energia gehiago aurrezteko eta efizientzia energetikoa areagotzeko zer neurri hartu dituen, 14. artikuluan zehaztutako energia-jarduketan planak barne direla.

2.– Zehazki, lege hau indarrean sartu eta bi urtetik behin, gutxienez, administrazio bakoitzak txosten bat argitaratu beharko du, eta alderdi hauek, behintzat, nabarmendu beharko dira:

a) Energia-kontsumoa, eraikinen eta erabilitako energia-iturrien arabera banakatua.

b) Egindako auditoretzak eta emaitzak.

c) Zer neurri hartu eta zer inbertsio egin diren energia aurrezteko eta efizientzia energetikoa hobetzeko, eta energia berriztagarriak sortzen dituzten instalazioak ezartzeko; horrez gain, lortutako emaitzak ere adierazi beharko dira.

d) Lege honetan ezarritako betebeharrak gauzatzeko hartu dituzten konpromisoak zenbateraino bete dituzten.

e) Energiaren alorrean eskumena duen organoak, gainerako administrazioekin koordinazioan, lege hau onartu eta hilabeteko epean, urteroko txostenetan argitaratuko diren adierazleen gida proposatuko du.

27. artikulua.– Prestakuntza.

1.– Lege hau indarrean sartu eta urtebetera, 2. artikuluan adierazitako Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek plan bat onartu behar dute beren jarduera-eremuetako langileak aurrezpen eta efizientzia energetikoko teknikan prestatzeko.

25.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriek, berriz, lege hau indarrean sartu eta bi urteko epean onartu behar dute prestakuntza-plan hori.

2.– Plan horren helburua da energia kontsumitzen duten instalazioak erostearekin, mantentzearekin eta erabiltzearekin zerikusia duten kudeatzaileak eta teknikariak prestatzea energia aurrezteko eta efizientzia energetikoko teknikan eta energia berriztagarrietan.

[254/2020 DEKRETUA] 22. artikulua.– Prestakuntza eta sentsibilizazioa.

1.– Administrazio publiko bakoitzak berari atxikitako sektore publikoko langileen prestakuntza eta sentsibilizaziorako plan bat egin beharko du, eta haren energia-jarduketan planaren barruan jasoko da hori.



2.– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak, prestakuntzarako zeharkako planak planifikatu, diseinatu eta ezartzea bultzatzeko eskumenen barruan, hainbat urtetarako prestakuntza-jarduerak planifikatu, diseinatu eta ezarri behar izango ditu jasangarritasun energetikoaren arloan, euskal administrazio publikoetako langile guztiei zuzenduta.

3.– Energia kontsumitzen duten instalazioak erostearekin, mantentzearekin eta erabiltzearekin zerikusia duten kudeatzaileak eta teknikariak prestatzeko izan beharko dira bereziki prestakuntza-jarduerak, eta aurrezpen eta eraginkortasun energetikoa handitzeko eta energia berriztagarriak ezartzeko eta horiez baliatzeko teknikei buruzkoak izango dira.

4.– Halaber, garraioaren erabilera efiziente eta jasangarriari buruzko prestakuntza-ekintzak ere zehaztu beharko dira.

5.– Administrazio publiko bakoitzak aurrezpen eta eraginkortasun energetikoari buruzko informazioa emango die bere zerbitzura dauden langileei, aurrezpen eta eraginkortasun energetikoa lortzeko jarraibideak eta teknikak hedatuz, bitarteko hauek erabilia:

a) Sentsibilizazio-kanpainak.

b) Erabilera-teknikak eta jarraibideak ezartzeari buruzko gidaliburuak eta jardunbide egokiak zabaltzea, instalazioetan erabiltzen duten energiaren aurrezpen eta eraginkortasuna handiagoa lortzeko.

28. artikulua.– Etiketak ikusgai jartzea.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek eraikinen efizientzia energetikoari buruzko etiketak jarri behar dituzte ikusgai nahitaez, erraz ikusteko lekuren batean, lege honen 19. eta 20. artikuluetan xedatutakoaren arabera efizientzia energetikoari buruzko ziurtagirien Euskadiko Efizientzia Energetikoko Ziurtagirien Erregistroan inskribatu bezain laster.

Eraginkortasun Energetikoaren Etiketak egiaztatzen du eraikinak edo haren zati batek Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiri bat duela inskribatuta Euskadiko Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagirien Erregistroan, eta lortutako eraginkortasun energetikoaren kalifikazio-maila adierazten duen bereizgarria da.

Euskadiko Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagirien Erregistroaren kontsulta publikoaren bidez (www.euskadi.eus/ziurtagiri-energetikoa), bertan inskribatuta eta indarrean dauden ziurtagirien Eraginkortasun Energetikoaren Etiketak deskarga daitezke.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek lege hau indarrean sartzen denetik ordezko erregaiak erabiltzen dituztelako erosten dituzten ibilgailu berriek zer erregai mota erabiltzen duten jakiteko eta erregelamenduz zehaztutako beste datu batzuei buruzko informazioa emateko etiketa bat erakutsi behar dute erraz ikusteko lekuren batean.

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak euskal administrazio publikoen eskura jartzen du, erabil dezaten, ordezko erregaia (elektrizitatea edo gasa) identifikatzeko etiketa-eredua. Eredu horren formatua gida honen II. eranskinean dago erantsita. Etiketak s-energia@euskadi.eus posta elektronikoaren bidez eska daitezke

Ordezko erregaia identifikatzeko etiketek osatu egin behar dute Barne Ministerioko Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak jaulkitako ingurumen-bereizgarriak ematen duen informazioa; beraz, komeni da haren tamaina ez gainditzea (97 mm-ko diametroa) eta haren ondoan jartzea.



III. TITULUA
SEKTORE PRIBATUA
I. KAPITULUA
INDUSTRIA-SEKTOREA

29. artikulua.– Aplikazio-eremua.

1.– Lege honek ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean dauden jarduera industrialek, honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionalarekin (JESN-2009) bat etorrira, honako jarduera hauetakoren batean sailkatzen direnak:

– B taldea: Erauzteko industriak.

– C taldea: Manufaktura-industria.

– D taldea: Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornidura.

– E taldea: Ur-hornidura, saneamendu jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa.

– F taldea: Eraikuntza.

b) Azken energia-kontsumoa urteko 500 tona petroliotik gorakoaren baliokide denean (ptb).

Petrolio-tona baliokideak kalkulatzeko konbertsio-faktore energetiko hauek erabili behar dira:

Energia elektrikoa: 0,086 ptb / MWh

Gas naturala: 0,086 ptb / MWh

PGL: 1,13 ptb / t

Gasolina: 0,7752 ptb / 1000 litro

A eta B gasoleoa: 0,8467 ptb / 1000 litro

C gasoleoa: 0,9157 ptb / 1000 litro

Fueloleoa: 0,8881 ptb / 1000 litro

2.– Lege honetan xedatutakoaren ondorioetarako, aurreko apartatuan aipatutako jarduerak urteko kontsumoaren arabera sailkatuko dira honako hauetan:

– I1 tipoa: enpresa handiak, industria handiak, bat etorritz arloko araudian (56/2016 Errege Dekretua, otsailaren 12koa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren energia-efizientziari buruzko 2012ko urriaren 25eko 2012/27/EB Zuzentarauaren transposizioa egiten duena, energia-ikuskaritzei, energia-zerbitzuen hornitzaileen eta energia-ikuskatzaileen egiaztapenari eta energia-hornikuntzaren efizientzia sustatzeari dagokienez) edo hura ordezkatzan duen araudian ezarritakoarekin.

Enpresa handi moduan ulertzen da, 250 pertsonari gutxienez lana ematen diena edo, nahiz eta aurreko baldintza ez bete, 50 milioi euroko negozio-bolumena eta, aldi berean, 43 milioi euroko balantze orokorra gainditzen duena. Era berean, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan zehaztutako sozietate-taldeei ere aplikagarria da, betiere, taldea osatzen duten sozietateen magnitudeak gehituz enpresa handia izateko baldintzak betetzen badituzte.



Enpresa batek enpresa handiaren sailkapena duen baloratzeko, enpleguak eta negozio-zifrak modu globalean zenbatzen dira, hau da, ez soilik Euskal Autonomia Erkidegoari dagozkionak.

– I2 tipoa: kolektibo horretan sartuta geratuko dira I1 tipokoak ez diren enpresak eta beren urteko energia-kontsumoa, lege hau indarrean sartzen denean 500 tona petroliotik gorakoaren baliokide denean (ptb).

[254/2020 DEKRETUA] 29. artikulua.– I2 motako sailkapeneko industria-sektorea.

Dekretu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, eta otsailaren 21eko 4/2019 Legearen 29. artikuluan jasotako sailkapenaren arabera, industria-sektoreko enpresak I2 motakotzat hartuko dira, baldin eta, I1 motakoak ez izanik, 500 tona petrolio baliokide (tpb) baino gehiagoko guztizko energia-kontsumoa badute urtean. Kontsumo hori kalkulatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean dituzten eraikin, instalazio eta ibilgailu guztiek kontsumitzen duten azken energiaren guztizkoa hartuko da kontuan, baldin eta enpresa horiek jarduera ekonomikoa garatzeko kudeatzen dituzten industria, merkataritza eta zerbitzuko jardueren parte badira.

3.– Establezimendu baten urteko energia-kontsumo osoa ezartze aldera, lege hau indarrean sartzean, azken hiru urteetako urteko kontsumoaren batezbestekoa egingo da.

30. artikulua.– Auditoretza energetikoak.

1.– I1 eta I2 tipoko enpresek auditoretza energetikoak egin beharko dituzte beren ekipo, instalazio, eraikin, berokuntza- eta hozte-sistema, ibilgailu-atal eta argiterian, helburua izanik aurrezpeneko eta efizientzia energetikoko neurriak hartzea eta instalazio berriztagarriak txertatzea.

Auditoretza energetikoak lehenetsunak ezarri beharko ditu energia-kontsumoa berriztatzeko eta murrizteko, eta energia berriztagarriak ustiatzeko sistemak instalatzeko, eta horretarako egutegi bat zehaztuko da.

2.– Lege hau garatzeko ematen diren xedapenek zehaztuko dute establezimendu horien titularrek duten obligazioa, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoan energia alorrean eskumena duen sailari auditoretza energetiko bakoitza egin izana jakinarazteko betebeharra.

Halaber, xedapen horietan epeak zehaztuko dira lehenengo auditoretza energetikoa egiteko, bai eta haren maiztasuna eta iraunaldia, auditoretzan jaso beharreko alderdiak eta dagoeneko egindakoen jarraipena egiteko ere.

Eusko Jaurlaritzan energiaren arloko eskumena duen saila Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila da, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuan jasotzen den bezala.

[254/2020 DEKRETUA] 32. artikulua.– Energia-auditoretzak.

1.– I1, I2 eta S1 motako enpresek energia-auditoretza jaso beharko dute 4 urtean behin, lehenengo energia-auditoretza egin zitzaientetik zenbatzen hasita. Auditoretza horrek eraikin, instalazio eta ibilgailu guztien azken energiaren guztizko kontsumo osoaren ehuneko 100a hartuko du barnean, betiere horiek Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean badaude eta enpresa horiek jarduera ekonomikoa garatzeko kudeatzen dituzten industria, merkataritza eta zerbitzuko jardueren parte badira.

2.– Aurreko paragrafoetan adierazitako enpresek urtebeteko epean egin beharko dute lehen energia-auditoretza, dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrera,



salbu eta energia-auditoretza eginda, indarrean, eta Eusko Jaurlaritzan energiaren arloko eskumena duen zuzendaritzari jakinarazita dutenek, hain zuzen ere, honako dekretu honen eraginpean daudelako: 56/2016 Errege Dekretua, otsailaren 12koa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012ko urriaren 25eko 2012/27/EB Zuzentarauaren transposizioa egiten duena (zuzentaria eraginkortasun energetikoari buruzkoa da) energia-ikuskaritzei, zerbitzu-hornitzaile eta energia-ikuskarien akreditazioari eta energia-horniduraren eraginkortasuna sustatzeari dagokienez.

3.– Otsailaren 12ko 56/2016 Errege Dekretuak eragindako enpresen edo enpresa taldeen barruko enpresek eta establezimenduek, baldin eta, dekretu hori aplikatuta, ez badituzte auditatu Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean kokatutako beren eraikinetako, instalazioetako eta ibilgailuetako batzuk, iritzita ez zeudela Espainiako lurraldean kokatutako instalazio guztien azken energia-kontsumo auditagarri osoaren % 85en barruan, horien auditoretza egin beharko dute aurreko paragrafoan ezarritako epean.

4.– Dekretu hau indarrean jarri ondoren, otsailaren 21eko 4/2019 Legeak ezarritako betebeharren eraginpeko bilakatzen diren enpresa eta establezimenduek lehen energia-auditoretza egin beharko dute otsailaren 21eko 4/2019 Legearen eraginpean egoteko baldintzak bete zituzten urtearen ondorengo urteko lehen seihilekoaren barruan, betiere auditoretza eginda, indarrean eta jakinarazita ez badute aurreko apartatuetan adierazitakoari jarraikiz.

5.– Behartuta dauden subjektu horiei dekretu honen 19. artikuluko 1. puntutik 5.era bitarteko puntuetan, biak barne, ezarritakoa ere izango zaie aplikagarri.

1.– Energia-auditoretzak arau hauen arabera egin behar dira: UNE-EN 16247-1. Energia-auditoretzak. 1. zatia: Baldintza orokorrak, UNE-EN 16247-2. Energia-auditoretzak. 2. zatia: Eraikinak, UNE-EN 16247-3. Energia-auditoretzak. 3. zatia: Prozesuak eta UNE-EN 16247-4. Energia-auditoretzak. 4. zatia: Garraioa. Edo, hala badagokio, arau horiek ordeztzen dituzten arauen arabera egingo dira, eta energiaren arloko eskumena duen ministerioak baimendu behar ditu arauok.

Energia-auditoretzei buruzko adierazleak aurreko paragrafoan izendatutako arauetan ezarritako auditoretza-txostenaren gutxieneko edukiarekin bat etorriko dira.

1. Egikaritze-laburpena:

1.1 Eraginkortasun energetikoa hobetzeko aukeren sailkapen ordenatua.

1.2 Proposatutako ezarpen-programa.

2. Aurrekariak:

2.1 Auditatutako erakundeari, energia-auditoreari eta auditoriaren metodologiari buruzko informazio orokorra.

2.2 Auditoretza energetikoaren testuingurua.

2.3 Auditatutako objektu edo objektuen deskribapena.

2.4 Arau eta araudi garrantzitsuak.

3. Auditoretza energetikoa:

3.1 Auditoretza energetikoaren deskribapena, irismena, xedea eta xehetasun-maila, bere epea eta mugak.

3.2 Datuak biltzeari buruzko informazioa:

3.2.1 Kontagailuen instalazioa (egungo egoera).

3.2.2 Erabilitako datuei buruzko argibideak, horietatik neurketa bidez zein lortu diren eta zenbatetsi diren.

3.2.3 Erabilitako funtsezko datuen eta kalibraketa-ziurtagirien kopia.

3.3 Energia-kontsumoaren azterketa.



3.4 Eraginkortasun energetikoa hobetzeko neurrien sailkapen ordenatua ezartzeko irizpideak.

4. Eraginkortasun energetikoa hobetzeko aukerak:

4.1 Proposatutako neurriak, gomendioak, ezarpen-plana eta programa.

4.2 Aurrezkoa kalkulatzeko eta, ondorioz, gomendioak zehazteko erabilitako suposizioak.

4.3 Laguntza eta diru-laguntza aplikagarriei buruzko informazioa.

4.4 Analisi ekonomiko egokia.

4.5 Proposatutako beste gomendio batzuekiko elkarreagin posibleak.

4.6 Gomendatutako aukerak inplementatu ondoren haiek ebaluatzeko erabiliko diren neurketa- eta egiaztapen-metodoak.

5. Ondorioak.

2.– Behar bezalako kualifikazioa duten auditoreek egingo dituzte energia-auditoretzak, otsailaren 12ko 56/2016 Errege Dekretuak ezarritakoari edo haren ordezkari ematen den arauari jarraikiz. Errege Dekretu horrek eraginkortasun energetikoari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012ko urriaren 25eko 2012/27/EB Zuzendaritza transposizioa egiten du energia-auditoretzei, energia-zerbitzuen hornitzaileen eta energia-auditoreen akreditazioari eta energia-hornikuntzaren eraginkortasuna sustatzeari dagokienez.

Nolanahi ere, dena delako erakundeko teknikari gaituek egin ahal izango dituzte energia-auditoretzak, betiere ez badute zuzeneko loturarik ikuskatutako instalazioekin eta, dena delako erakunde behartuaren barruan, zeharkako eginkizunak garatzen dituen organo batekoak badira.

Berezko teknikari kualifikatuek ikuskatutako instalazioarekiko duten objektibotasuna eta independentzia bermatu behar da. Horretarako, behartutako subjektuaren sail, organo, zuzendaritza eta/edo zerbitzu guztietarako zeharkakoa den organo, sail, zuzendaritza eta/edo zerbitzu bateko kide izan behar da, adibidez: zerbitzu zuzendaritza orokorrak, kudeaketa bateratuko zerbitzu zentralizatuak, ingurumen- eta kalitate-kudeaketako sailak.

3.– Proposatutako neurrietarako zehaztu eta balidatutako kalkuluak jasoko dira energia-auditoretzetan, eta, era horretan, aurrezteko ahalmenaren gaineko informazio argia emango dute. Gordetzeko modukoak izango dira energia-auditoretzetan erabilitako datuak, analisi historikoak egiteko eta energia-portaeraren trazabilitatea egiteko.

Energia-auditoretzetan ez da klausularik jasoko auditoretzaren ondorioak energia-zerbitzuak hornitzen dituzten enpresa gaitu eta akreditatuei helaraztea eragozteko, eta informazioaren konfidentzialtasuna errespetatu beharko da edozelan ere.

4.– Behartuta dauden subjektuek telematikoki jakinarazi beharko diote energia-auditoretza, baita haren aldizkako eguneratzeak ere, egin dutela Eusko Jaurlaritzan energiaren arloko eskumena duen zuzendaritzari, egiten denetik hilabeteko epearen barruan, eta Eusko Jaurlaritzan energiaren arloko eskumena duen sailaren webgunean argitaratutako prozedura erabiliko dute horretarako (www.euskadi.eus/prozedurak-energia).

Egitera behartuta dauden subjektuek energia-auditoretza indarrean eduki behar dute eta arduratuko dira auditoretzetan dagoen informazioa eguneratzeaz, hala otsailaren 12ko 56/2016 Errege Dekretuan, hori aplikagarri zaienen kasuan, nola otsailaren 21eko 4/2019 Legean, eta dekretu honetan ezarritakoaren arabera.

5.– Energia-auditoretzak egiteko betebeharra energia- edo ingurumen-kudeaketarako sistema bat ezarri eta aplikatuz ere justifikatu ahalko da, erakunde independente batek ziurtatua Europako edo nazioarteko arauen arabera, baldin eta dena delako kudeaketa-sisteman energia-auditoretza bat



egiten bada dekretu honetan adierazten diren gutxieneko jarraibideen arabera.

Aurreko paragrafoan xedatutakoak ez du salbuesten arestian aipatutako informazioa komunikatzeko eta eguneratzeko betebeharratik.

ISO 50001 arauaren arabera ziurtatutako energia-kudeaketako sistema bat xedatzeak eta aplikatzeak energia-kudeaketako sistemaren auditoretza-prozesu jarraitua dakar berekin, baina ISO 14001 arauaren arabera ziurtatutako ingurumen-kudeaketako sistema bat xedatzeak ez dakar berez energia-auditoretzak egitea. Horregaitik, ISO 14001 arauaren arabera ziurtatutako ingurumen-kudeaketako sistema bat izateagatik eta aplikatzeagatik auditoretza energetikoak ez direla egin behar justifikatu nahi denean, behartutako subjektuari eskatuko zaio berariaz adieraz dezala bere ingurumen-kudeaketako sistemak barne hartzen dituela 254/2020 DEKRETUAK zehaztutako gutxieneko jarraibideen arabera egindako auditoria energetikoak.

31. artikulua.– Kudeaketa energetikoa.

Lege hau indarrean sartzen denetik urtebeteko epean, legeak aipatutako establezimendu industrialek energia alorrean eskumena duen sailari jakinarazi beharko diote kudeaketa energetikorako sistemen eskuragarritasuna eta aplikazioa, zerbitzu energetikoen hornitzaile baten edo hornitzaile horren pareko kanpoko kudeatzaile energetiko baten bidez, eta hark bermatuko du lege honetan ezarritako obligazioak betetzen direla.

Ez da derrigorrezkoa energia-kudeaketa sistema ISO 50001 arauaren arabera ziurtatuta izatea.

[254/2020 DEKRETUA] 33. artikulua.– Energia kudeatzeko sistemak.

1.– Energia kudeatzeko sistema bat ezartzeko, honako hau lortzeko behar diren jarduerak jaso behar dira:

- a) Erabilera edo prozesuetan energia-kontsumoaren aldagaiak neurtzea.
- b) Behar diren azterketa, erregulazioa eta kontrola egiteko informatika-sistemen prozesu eta ezarpenerako parametroak arautu eta kontrolatzeko elementuak ezartzea.
- c) Instalazioa behar bezala jardutea; azken energiaren kontsumoak eta kostuak gutxitzea.
- d) Isuriak murriztea.
- e) Instalazioaren energia-kudeaketarako behar den informazioa azkar eta zehatz ematea.

Energia kudeatzeko sistemak, gutxienez, honako hau ahalbidetu behar du:

- a) Kontsumitzen den energia kopurua ezagutzea, energia-iturrien eta erabileren arabera banakatuta.
- b) Energia aurrezteko eta eraginkortasuna hobetzeko neurriak zehaztu eta ezartzea, baita horien jarraipena modu sistematiko batez egitea ere.
- c) Erakundearen energia-politika betetzen dela bermatzea, baita eraginkortasun energetikoaren arloan ezarritako betebeharrak betetzen direla ere, bereziki otsailaren 21eko 4/2019 Legean eta dekretu honetan ezarritakoei dagokienez.

2.– Energia kudeatzeko sistema energia-zerbitzuak hornitzen dituen kanpoko enpresa batek edo energia-kudeatzaile batek hornitzen edo kudeatzen badu, energia-zerbitzuak hornitzeko lanbide-jardueran aritzeko baldintzak bete beharko ditu horrek (Eraginkortasun energetikoari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012ko urriaren 25eko 2012/27/EB Zuzentarauaren transposizioa egiten duen otsailaren 12ko 56/2016 Errege Dekretuan ezarrita daude, energia-ikuskaritzei, zerbitzu-hornitzaile eta energia-ikuskarrien akreditazioari eta energia-



horniduraren eraginkortasuna sustatzeari dagokienez). Horrez gain, dekretu horretan ezarritako baldintzak betetzeari buruzko gaikuntza eta adierazpenari lotutako baldintzak ere bete beharko ditu.

Otsailaren 12ko 56/2016 Errege Dekretuaren 7. artikuluan jasota daude energia-zerbitzuen hornitzailearen lanbide-jarduera gauzatzeko betekizunak, eta 9. artikuluan, berriz, energia-zerbitzuen hornitzailearen betekizunak betetzeari buruzko gaikuntza eta erantzukizunpeko adierazpena.

Energia-zerbitzuen hornitzailearen lanbide-jardueran aritzeko gaitutako enpresek alta emanda egon behar dute Energia-zerbitzuen Hornitzaileen Zerrendan, Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuaren egoitza elektronikotik sarbide publikoa duen zerrendan:

<https://www.idae.es/informacion-y-publicaciones/bases-de-datosherramientas/proveedores-de-servicios-energeticos>

3.– Energia kudeatzeko sistema bat xedatu eta aplikatzeari buruzko jakinarazpena, baita informazio horren beste edozein eguneratze ere, Eusko Jaurlaritzan energiaren arloko eskumena duen zuzendaritzari egin beharko zaio, energia-kontsumitzaile handien adierazpena aldiari behin eguneratzearekin batera.

Jakinarazpena horretarako garatutako prozedura telematikoaren bidez egingo da, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren webgunetik eskuragarri dagoena: (www.euskadi.eus/prozedurak-energia)

4.– Energia kudeatzeko sistema hori erakunde independente batek ziurtatzen badu Europako edo nazioarteko arauekin bat etorriz, Eusko Jaurlaritzan energiaren arloko eskumena duen zuzendaritzari ere jakinarazi beharko zaio hori, aurreko paragrafoan adierazitakoaren arabera. Horrelakoetan, jakinarazpenarekin batera energia kudeatzeko sistemaren ziurtagiria eta hori indarrean dagoela egiaztatzen duen erakunde ziurtatzaile independentearen ziurtagiria ere aurkeztu beharko dute.

32. artikulua.– Lantokietako mugikortasun-planak.

Lege hau garatzeko ematen diren xedapenetan ezartzen diren baldintzetan, atal honek aipatutako establezimenduek, txanda bakoitzean 100 langile baino gehiagok lan egiten duten establezimenduek, betiere, lantokira joateko garraio-plana izan beharko dute. Plan horrek neurriak jasoko ditu, ahalbidetzeko garraio publikoen erabilera edo titulartasun pribatuko ibilgailu alternatiboena. 100 pertsonako zifraren barruan sartuko dira, era berean, lantokian lan egiten duten guztiak, bai kontratazio zuzeneko erregimenean daudenak, bai pertsona autonomoak edo enpresa azpikontratatuak.

[254/2020 DEKRETUA] 34. artikulua.– Lantokien mugikortasun-planak.

1.– Otsailaren 21eko 4/2019 Legeak behartzen dituen lantokiek lantokietarako garraio-plan bat eduki beharko dute gehienez ere 2 urteko epean, dekretu hau indarrean jartzen den egunetik aurrera zenbatuta.

2.– Mugikortasun-planen helburu nagusia lantokirako joan-etorrien eragin txarra gutxitzea da, horretarako garraibidearen aldaketa eraginkor eta arrazionalagoa eginez. Lantokirako joan-etorriak arrazionalizatzerako bideratutako garraio-neurri guztiak jasoko dira, eta, batez ere, ibilgailu pribatuaren erabilera ez-eraginkorra amaitzera zuzenduta daudenak, hala langileei, nola hornitzaile, bisitari eta bezeroei dagokienez.

3.– Txandetako batean gutxienez 100 langile baino gehiago dituzten lantokiak behartuta egongo dira.



4.– Behartuta dauden subjektu horiei dekretu honen 28. artikuluko 4. paragrafoan ezarritakoa ere izango zaie aplikagarri.

4.– *Honako hau izango da lantokiaren mugikortasun-planaren gutxieneko edukia:*

a) *Lantokiaren karakterizazioa, gutxienez, datu hauekin: lantokiaren konfigurazioaren deskribapen laburra, jardueraren datu nagusien kuantifikazioa, langile kopurua, bisitari kopurua, jarduera zein zerbitzuen deskribapena eta garrantzizkotzat jotzen den beste edozein datu.*

b) *Lantokiaren mugikortasun-diagnostikoa, gutxienez, azterketa honetan oinarritua:*

- *Lantokietara joateko mugikortasunaren karakterizazioa.*
- *Mugikortasun-eskaeraren azterketa.*
- *Mugikortasun-eskaintzaren azterketa.*
- *Aparkaleku-kudeaketaren azterketa.*

c) *Helburu eta adierazleen definizioa. Planaren helburu nagusiarekin lerrokatutako helburu espezifikoak ezarriko dira. Helburuak zenbatzeko eta neurtzeko modukoak izango dira, eta denbora-eremu zehaztua izango dute. Helburuek adierazle bana izango dute lotuta, horien betetze-maila anbiguotasunik gabe ezagutu ahal izateko. Adierazle guztiek abiatze-datuak izango dituzte.*

d) *Ekintza-plana. Adierazitako helburu espezifikoak lortzeko gauzatu beharreko ekintzak deskribatuko dira, eta horiek egiteko epeak eta arduradunak identifikatuko dira. Ekintzak honako eremu hauen barruan sartuko dira:*

- *Mugikortasunaren eskaria gutxitzeko ekintzak, hala nola telelanaren aukera eta bideokonferentziak edo bideo-deiak egitea sustatzea.*
- *Mugikortasun motorizatuaren arrazoizko kudeaketarako ekintzak.*
- *Modu ez-motordunak sustatzeko ekintzak.*
- *Ibilgailu elektrikoetarako kargaguneak eta gas bidezko ibilgailuak kargatzeko instalazioak sustatzeko ekintzak.*
- *Garraio publiko kolektiboaren alorreko ekintzak, ibilgailu pribatuaren aldean lehiakorragoa izatea lortzen dutenak.*
- *Garraio konbinatua, garraio-moduak koordinatzea eta abarrak sustatzen duten ekintzak.*
- *Sentsibilizazio, dinamizazio eta hedapenerako ekintzak.*

Mugikortasun-planak egiteko, gomendagarria da Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) eta Dibertsifikaziorako eta Energia Aurrezteko Institutuak (IDAE) ezarritakoari jarraitzea.

33. artikulua.– Eraikinen ziurtapen energetikoa.

1.– Erregelamenduz ezarritako forman eta epean, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden eraikin industrial guztiek izan beharko dute eraikinaren efizientzia energetikoaren ziurtagiria.



[254/2020 DEKRETUA] 36. artikulua.– Eraikinen eraginkortasun energetikoaren ziurtapena.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko industria-eraikinek eraikinaren eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria eduki beharko dute, gehienez 2 urteko epean, dekretu hau indarrean jartzen den egunetik aurrera.

Eraikinek edo horien zatiek energia-ziurtapena egin beharko dute, baldin eta tailerren edo industria-prozesuen erabilerarik ez badute, azalera erabilgarria gutxienez 50 m²-koa bada eta berokuntza- edo hozte-sistema badute erabiltzaileen erosotasuna zaintzearen.

3.– Eraginkortasun energetikoaren ziurtapena egiteko prozesurako, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen eraginkortasun energetikoaren ziurtapenari eta ziurtapenaren kontrol-prozedurari eta erregistroari buruzko otsailaren 26ko 25/2019 Dekretuan ezarritakoa, edo haren ordezkari ematen den araua, bete beharko da.

Euskadiko Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagirien Erregistroaren egoitza elektronikoa eskuragarri dago autonomia-erkidego honetan eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko prozedurari buruzko informazioa (www.euskadi.eus/ziurtagiri-energetikoa).

Eraikin guztietan, edo haien zatietan, eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria eduki behar izanez gero, nahitaezkoa da Euskadiko Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagirien Erregistroak emandako Eraginkortasun Energetikoaren Etiketa toki nabarmenean eta agerikoan erakustea, haien erabiltzaileek ikusteko moduan.

Eraginkortasun Energetikoaren Etiketak egiaztatzen du eraikinak edo haren zati batek Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiri bat duela inskribatuta Euskadiko Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagirien Erregistroan, eta lortutako eraginkortasun energetikoaren kalifikazio-maila adierazten duen bereizgarria da.

Euskadiko Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagirien Erregistroaren kontsulta publikoaren bidez (www.euskadi.eus/ziurtagiri-energetikoa), bertan inskribatuta eta indarrean dauden ziurtagirien Eraginkortasun Energetikoaren Etiketak deskarga daitezke.

2.– Establezimendu industrial bat berritu edo zaharberritu behar denean, edo eraikin berriak egin behar zaizkionean, establezimendu horiek bete egin beharko dituzte une horretan erregelamenduz ezarritakoaren arabera exijitu dakizkieken kalifikazio energetikorako baldintzak.

Eraikuntzaren Kode Teknikoak, martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua eta abenduaren 20ko 732/2019 Errege Dekretuaren bidez aldatua, energia aurrezteko oinarriko eskakizunen bidez, eska daitezkeen kalifikazio energetikoaren betekizunak ezartzen ditu.

34. artikulua.– Hidrokarbuero likidoak ezabatzea.

Industria-sektorean energia-iturri gisa hidrokarbuero likidoak kontsumitzea gutxituz joan beharko da pixkanaka, 2030eko abenduaren 31ra arte, helburua izanik data horretatik aurrera erabat aldatzea eta, haien ordezkari, gutxiago kutsatzen duten energia-iturriak erabiltzea.



II. KAPITULUA

BESTE JARDUERA-SEKTORE BATZUK

1. ATALA

ZERBITZU PRIBATUAK ETA MERKATARITZA

35. artikulua.– Aplikazio-eremua.

1.– Lege honek ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean dauden establezimendu pribatuek, Jarduera Ekonomikoen Saikapen Nazionalarekin (JESN-2009) bat etorrira, honako jarduera hauetakoren bat badute:

– G taldea: Handizkako eta txikizkako merkataritza; ibilgailu motordunen eta motozikleten

konponketa.

– I taldea: Ostalaritza.

– J taldea: Informazioa eta komunikazioak.

– K taldea: Finantza-jarduerak eta aseguruetakoa.

– L taldea: Jarduerak higiezinekin.

– M taldea: Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak.

– P taldea: Hezkuntza.

– Q taldea: Osasun- eta gizarte-zerbitzuetako jarduerak.

– R taldea: Arte, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak.

– S taldea: Beste zerbitzu batzuk.

2.– Aurreko apartatuaren ondorioetarako, establezimendutzat hartuko da aipatutako jarduerak garatzeko erabiltzen den espazio fisikoa, dela izaera indibidualekoa, dela kolektibokoa.

3.– Jarduera horiek egiten badira batzen dituzten establezimenduetan, eta zehazten den gutxienekoa baino azalera handiagoa hartzen badute, establezimendu osoaren kontsumo globala hartuko da kontuan, alegia, jarduera bakoitzaren kontsumoen batura, zeinari gehituko zaion, hala baldin badago, jarduera guztien elementu komunena.

[254/2020 DEKRETUA] 30. artikulua.– S2 motako sailkapeneko zerbitzu pribatuen eta merkataritzako sektorea.

2.– Otsailaren 21eko 4/2019 Legearen 35.3 artikuluan adierazitako establezimenduei dagokienez, establezimendu horietan 35.1 artikuluan adierazitako jardueretako batzuk elkartzen badira, establezimenduaren kontsumoa, osotara hartuta, 40 tona petrolio baliokide (tpb) baino handiagoa bada eta kontsumo hori jarduera bakoitzak egindakoaren batura bada –horri, hala badagokio, elementu komunaren kontsumoa gehituta–, establezimendu osoaren kudeaketaz arduratzen den pertsona fisiko edo juridikoak otsailaren 21eko 4/2019 Legearen eta dekretu honen xedapenak ere bete beharko ditu, jarduera bakoitzaren arduradunak horretara behartuta dauden edo ez alde batera utzita.

4.– Lege honen ondorioetarako, 1. apartatuan aipatutako jarduera horiek guztiak honela sailkatuko dira urteko kontsumoaren arabera:

– S1 tipoa: zerbitzu-enpresa handiak, bat etorriz arloko araudian (56/2016 Errege Dekretua, otsailaren 12koa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren energia-



efizientziari buruzko 2012ko urriaren 25eko 2012/27/EB Zuzentarauaren transposizioa egiten duena, energia-ikuskaritzei, energia-zerbitzuen hornitzaileen eta energia-ikuskatzaileen akreditazioari eta energia-hornikuntzaren efizientzia sustatzeari dagokienez) edo hura ordezkatzeko duen araudian ezarritakoarekin.

Enpresa handi moduan ulertzen da, 250 pertsonari gutxienez lana ematen diena edo, nahiz eta aurreko baldintza ez bete, 50 milioi euroko negozio-bolumena eta, aldi berean, 43 milioi euroko balantze orokorra gainditzen duena. Era berean, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan zehaztutako sozietate-taldeei ere aplikagarria da, betiere, taldea osatzen duten sozietateen magnitudeak gehituz enpresa handia izateko baldintzak betetzen badituzte.

Enpresa batek enpresa handiaren sailkapena duen baloratzeko, enpleguak eta negozio-zifrak modu globalean zenbatzen dira, hau da, ez soilik Euskal Autonomia Erkidegoari dagozkionak.

– S2 tipoa: kolektibo horretan sartuta geratuko dira S1 tipokoak ez diren enpresa guztiak, azpisektore hauetan daudenak: hotelak, kiroldegi-gimnasio pribatuak, merkataritza-gune handiak eta bulego-eraikinak (S1 tipologian jasotakoez gain), eta beren urteko energia-kontsumoa, lege hau indarrean sartzen denean, 40 tona petroliotik gorakoaren baliokide denean (ptb).

[254/2020 DEKRETUA] 30. artikulua.– S2 motako sailkapeneko zerbitzu pribatuen eta merkataritzako sektorea.

1.– Dekretu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, eta otsailaren 21eko 4/2019 Legearen 35. artikuluan jasotako sailkapenaren arabera, enpresak S2 motakotzat hartuko dira, baldin eta, S1 motakoak ez izanik, 40 tona petrolio baliokide (tpb) baino gehiagoko guztizko energia-kontsumoa badute urtean. Kontsumo hori kalkulatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean dauden establezimendu, instalazio eta ibilgailu guztiek kontsumitzen duten azken energiaren guztizkoa hartuko da kontuan, baldin eta enpresa horiek jarduera ekonomikoa garatzeko kudeatzen dituzten merkataritza eta zerbitzuko jardueren parte badira.

Petrolio-tona baliokideak kalkulatzeko konbertsio-faktore energetiko hauek erabili behar dira:

Energia elektrikoa: 0,086 ptb / MWh

Gas naturala: 0,086 ptb / MWh

PGL: 1,13 ptb / t

Gasolina: 0,7752 ptb / 1000 litro

A eta B gasoleoa: 0,8467 ptb / 1000 litro

C gasoleoa: 0,9157 ptb / 1000 litro

Fueloleoa: 0,8881 ptb / 1000 litro

5.– Establezimendu baten urteko energia-kontsumo osoa ezartze aldera, lege hau indarrean sartzean, azken hiru urteetako urteko kontsumoaren batezbestekoa egingo da.

36. artikulua.– Auditoretza energetikoak.

1.– S1 eta S2 tipoko enpresek auditoretza energetikoak egin beharko dituzte beren ekipa, instalazio, eraikin, berokuntza- eta hozte-sistema, ibilgailu-atal eta argiterian, helburua izanik aurrezpeneko eta efizientziako neurriak hartzea eta instalazio berriztagarriak txertatzea.



2.– Energia-kontsumo altuko instalazio eta ekipoak berritzen direnean, kontuan izango dira merkatuan dauden efizienteenak eta energia kalifikazio handienekoak.

3.– Lege hau garatzeko ematen diren xedapenek zehaztuko dute establezimendu horien titularrek duten obligazioa, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoan energia alorrean eskumena duen sailari auditoretza energetiko bakoitza egin izana jakinarazteko betebeharra.

Halaber, xedapen horietan epeak zehaztuko dira lehenengo auditoretza energetikoa egiteko, bai eta haren maiztasuna eta iraunaldia, auditoretzan jaso beharreko alderdiak eta dagoeneko egindakoen jarraipena egiteko ere.

Eusko Jaurlaritzan energiaren arloko eskumena duen saila Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila da, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituena eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituena Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuan jasotzen den bezala.

[254/2020 DEKRETUA] 32. artikulua.– Energia-auditoretzak.

1.– I1, I2 eta S1 motako enpresek energia-auditoretza jaso beharko dute 4 urtean behin, lehenengo energia-auditoretza egin zitzaienetik zenbatzen hasita. Auditoretza horrek eraikin, instalazio eta ibilgailu guztien azken energiaren guztizko kontsumo osoaren ehuneko 100a hartuko du barnean, betiere horiek Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean badaude eta enpresa horiek jarduera ekonomikoa garatzeko kudeatzen dituzten industria, merkataritza eta zerbitzuko jardueren parte badira.

S2 motako enpresek energia-auditoretza jaso beharko dute 6 urtean behin, aurreko energia-auditoretza egin zitzaienetik zenbatzen hasita. Auditoretza horrek eraikin, instalazio eta ibilgailu guztien azken energiaren guztizko kontsumo osoaren ehuneko 100a hartuko du barnean, betiere horiek Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean badaude eta enpresa horiek jarduera ekonomikoa garatzeko kudeatzen dituzten merkataritza eta zerbitzuko jardueren parte badira.

2.– Aurreko paragrafoetan adierazitako enpresek urtebeteko epean egin beharko dute lehen energia-auditoretza, dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrera, salbu eta energia-auditoretza eginda, indarrean, eta Eusko Jaurlaritzan energiaren arloko eskumena duen zuzendaritzari jakinarazita dutenek, hain zuzen ere, honako dekretu honen eraginpean daudelako: 56/2016 Errege Dekretua, otsailaren 12koa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012ko urriaren 25eko 2012/27/EB Zuzentarauaren transposizioa egiten duena (zuzentaria eraginkortasun energetikoari buruzkoa da) energia-ikuskaritzei, zerbitzu-hornitzaile eta energia-ikuskarien akreditazioari eta energia-horniduraren eraginkortasuna sustatzeari dagokienez.

3.– Otsailaren 12ko 56/2016 Errege Dekretuak eragindako enpresen edo enpresa taldeen barruko enpresek eta establezimenduek, baldin eta, dekretu hori aplikatuta, ez badituzte auditatu Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean kokatutako beren eraikinetako, instalazioetako eta ibilgailuetako batzuk, iritzita ez zeudela Espainiako lurraldean kokatutako instalazio guztien azken energia-kontsumo auditagarri osoaren % 85en barruan, horien auditoretza egin beharko dute aurreko paragrafoan ezarritako epean.

4.– Dekretu hau indarrean jarri ondoren, otsailaren 21eko 4/2019 Legeak ezarritako betebeharren eraginpeko bilakatzen diren enpresa eta establezimenduek lehen energia-auditoretza egin beharko dute otsailaren 21eko 4/2019 Legearen eraginpean egoteko baldintzak bete zituzten urtearen ondorengo urteko lehen seihilekoaren barruan, betiere auditoretza eginda, indarrean eta jakinarazita ez badute aurreko apartatuetan adierazitakoari jarraikiz.



5.– Behartuta dauden subjektu horiei dekretu honen 19. artikuluko 1. puntutik 5.era bitarteko puntuetan, biak barne, ezarritakoa ere izango zaie aplikagarri.

1.– *Energia-auditoretzak arau hauen arabera egin behar dira: UNE-EN 16247-1. Energia-auditoretzak. 1. zatia: Baldintza orokorrak, UNE-EN 16247-2. Energia-auditoretzak. 2. zatia: Eraikinak, UNE-EN 16247-3. Energia-auditoretzak. 3. zatia: Prozesuak eta UNE-EN 16247-4. Energia-auditoretzak. 4. zatia: Garraioa. Edo, hala badagokio, arau horiek ordeztzen dituzten arauen arabera egingo dira, eta energiaren arloko eskumena duen ministerioak baimendu behar ditu arauok.*

Energia-auditoretzei buruzko adierazleak aurreko paragrafoan izendatutako arauetan ezarritako auditoretza-txostenaren gutxienezko edukiarekin bat etorriko dira.

1. Egikaritze-laburpena:

1.1 Eraginkortasun energetikoa hobetzeko aukeren sailkapen ordenatua.

1.2 Proposatutako ezarpen-programa.

2. Aurrekariak:

2.1 Auditatutako erakundeari, energia-auditoreari eta auditoriaren metodologiari buruzko informazio orokorra.

2.2 Auditoretza energetikoaren testuingurua.

2.3 Auditatutako objektu edo objektuen deskribapena.

2.4 Arau eta araudi garrantzitsuak.

3. Auditoretza energetikoa:

3.1 Auditoretza energetikoaren deskribapena, irismena, xedea eta xehetasun-maila, bere epea eta mugak.

3.2 Datuak biltzeari buruzko informazioa:

3.2.1 Kontagailuen instalazioa (egungo egoera).

3.2.2 Erabilitako datuei buruzko argibideak, horietatik neurketa bidez zein lortu diren eta zenbatetsi diren.

3.2.3 Erabilitako funtsezko datuen eta kalibraketa-ziurtagirien kopia.

3.3 Energia-kontsumoaren azterketa.

3.4 Eraginkortasun energetikoa hobetzeko neurrien sailkapen ordenatua ezartzeko irizpideak.

4. Eraginkortasun energetikoa hobetzeko aukerak:

4.1 Proposatutako neurriak, gomendioak, ezarpen-plana eta programa.

4.2 Aurrekia kalkulatzeko eta, ondorioz, gomendioak zehazteko erabilitako suposizioak.

4.3 Laguntza eta diru-laguntza aplikagarriei buruzko informazioa.

4.4 Análisi ekonomiko egokia.

4.5 Proposatutako beste gomendio batzuekiko elkarreagin posibleak.

4.6 Gomendatutako aukerak inplementatu ondoren haiek ebaluatzeko erabiliko diren neurketa- eta egiaztapen-metodoak.

5. Ondorioak.

2.– *Behar bezalako kualifikazioa duten auditoreek egingo dituzte energia-auditoretzak, otsailaren 12ko 56/2016 Errege Dekretuak ezarritakoari edo haren ordeztu ematen den arauari jarraikiz. Errege Dekretu horrek eraginkortasun energetikoari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012ko urriaren 25eko 2012/27/EB Zuzentarauaren transposizioa egiten du energia-auditoretzei, energia-zerbitzuen hornitzaileen eta energia-auditoreen akreditazioari eta energia-hornikuntzaren eraginkortasuna sustatzeari dagokienez.*



Nolanahi ere, dena delako erakundeko teknikari gaituek egin ahal izango dituzte energia-auditoretzak, betiere ez badute zuzeneko loturarik ikuskatutako instalazioekin eta, dena delako erakunde behartuaren barruan, zeharkako eginkizunak garatzen dituen organo batekoak badira.

Berezko teknikari kualifikatuek ikuskatutako instalazioarekiko duten objektibotasuna eta independentzia bermatu behar da. Horretarako, behartutako subjektuaren sail, organo, zuzendaritza eta/edo zerbitzu guztietarako zeharkakoa den organo, sail, zuzendaritza eta/edo zerbitzu bateko kide izan behar da, adibidez: zerbitzu zuzendaritza orokorrak, kudeaketa bateratuko zerbitzu zentralizatuak, ingurumen- eta kalitate-kudeaketako sailak.

3.– Proposatutako neurrietarako zehaztu eta balidatutako kalkuluak jasoko dira energia-auditoretzetan, eta, era horretan, aurrezteko ahalmenaren gaineko informazio argia emango dute. Gordetzeko modukoak izango dira energia-auditoretzetan erabilitako datuak, analisi historikoak egiteko eta energia-portaeraren trazabilitatea egiteko.

Energia-auditoretzetan ez da klausularik jasoko auditoretzaren ondorioak energia-zerbitzuak hornitzen dituzten enpresa gaitu eta akreditatuei helaraztea eragozteko, eta informazioaren konfidentziasuna errespetatu beharko da edozelan ere.

4.– Behartuta dauden subjektuek telematikoki jakinarazi beharko diote energia-auditoretza, baita haren aldizkako eguneratzeak ere, egin dutela Eusko Jaurlaritzan energiaren arloko eskumena duen zuzendaritzari, egiten denetik hilabeteko epearen barruan, eta Eusko Jaurlaritzan energiaren arloko eskumena duen sailaren webgunean argitaratutako prozedura erabiliko dute horretarako (www.euskadi.eus/prozedurak-energia).

Egitera behartuta dauden subjektuek energia-auditoretza indarrean eduki behar dute eta arduratuko dira auditoretzetan dagoen informazioa eguneratzeaz, hala otsailaren 12ko 56/2016 Errege Dekretuan, hori aplikagarri zaien kasuan, nola otsailaren 21eko 4/2019 Legean, eta dekretu honetan ezarritakoaren arabera.

5.– Energia-auditoretzak egiteko betebeharra energia- edo ingurumen-kudeaketarako sistema bat ezarri eta aplikatuz ere justifikatu ahalko da, erakunde independente batek ziurtatua Europako edo nazioarteko arauen arabera, baldin eta dena delako kudeaketa-sisteman energia-auditoretza bat egiten bada dekretu honetan adierazten diren gutxieneko jarraibideen arabera.

Aurreko paragrafoan xedatutakoak ez du salbuesten arestian aipatutako informazioa komunikatzeko eta eguneratzeko betebeharretatik.

ISO 50001 arauaren arabera ziurtatutako energia-kudeaketako sistema bat xedatzeak eta aplikatzeak energia-kudeaketako sistemaren auditoretza-prozesu jarraitua dakar berekin, baina ISO 14001 arauaren arabera ziurtatutako ingurumen-kudeaketako sistema bat xedatzeak ez dakar berez energia-auditoretzak egitea. Horregaitik, ISO 14001 arauaren arabera ziurtatutako ingurumen-kudeaketako sistema bat izateagatik eta aplikatzeagatik auditoretza energetikoak ez direla egin behar justifikatu nahi denean, behartutako subjektuari eskatuko zaio berariaz adieraz dezala bere ingurumen-kudeaketako sistemak barne hartzen dituela 254/2020 DEKRETUAK zehaztutako gutxieneko jarraibideen arabera egindako auditoria energetikoak.

37. artikulua.– Kudeaketa energetikoa.

35. artikuluko 4. apartatuan aipatutako edozein tipologiatan aurreikusitako zerbitzu-sektoreko establezimenduek nahitaez jakinarazi beharko diote kudeaketa energetikorako sistemen eskuragarritasuna eta aplikazioa energiaren alorrean eskumena duen sailari, ezartzen diren baldintzetan.

Ez da derrigorrezkoa energia-kudeaketa sistema ISO 50001 arauaren arabera ziurtatuta izatea.



[254/2020 DEKRETUA] 33. artikulua.– Energia kudeatzeko sistemak.

1.– Energia kudeatzeko sistema bat ezartzeko, honako hau lortzeko behar diren jarduerak jaso behar dira:

- f) Erabilera edo prozesuetan energia-kontsumoaren aldagaiak neurtzea.
- g) Behar diren azterketa, erregulazioa eta kontrola egiteko informatika-sistemen prozesu eta ezarpenerako parametroak arautu eta kontrolatzeko elementuak ezartzea.
- h) Instalazioa behar bezala jardutea; azken energiaren kontsumoak eta kostuak gutxitzea.
- i) Isuriak murriztea.
- j) Instalazioaren energia-kudeaketarako behar den informazioa azkar eta zehatz ematea.

Energia kudeatzeko sistemak, gutxienez, honako hau ahalbidetu behar du:

- d) Kontsumitzen den energia kopurua ezagutzea, energia-iturrien eta erabileren arabera banakatuta.
- e) Energia aurrezteko eta eraginkortasuna hobetzeko neurriak zehaztu eta ezartzea, baita horien jarraipena modu sistematiko batez egitea ere.
- f) Erakundearen energia-politika betetzen dela bermatzea, baita eraginkortasun energetikoaren arloan ezarritako betebeharrak betetzen direla ere, bereziki otsailaren 21eko 4/2019 Legean eta dekretu honetan ezarritakoei dagokienez.

2.– Energia kudeatzeko sistema energia-zerbitzuak hornitzen dituen kanpoko enpresa batek edo energia-kudeatzaile batek hornitzen edo kudeatzen badu, energia-zerbitzuak hornitzeko lanbide-jardueran aritzeko baldintzak bete beharko ditu horrek (Eraginkortasun energetikoari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012ko urriaren 25eko 2012/27/EB Zuzentarauaren transposizioa egiten duen otsailaren 12ko 56/2016 Errege Dekretuan ezarrita daude, energia-ikuskaritzei, zerbitzu-hornitzaile eta energia-ikuskarien akreditazioari eta energia-horniduraren eraginkortasuna sustatzeari dagokienez). Horrez gain, dekretu horretan ezarritako baldintzak betetzeari buruzko gaikuntza eta adierazpenari lotutako baldintzak ere bete beharko ditu.

Otsailaren 12ko 56/2016 Errege Dekretuaren 7. artikuluan jasota daude energia-zerbitzuen hornitzailearen lanbide-jarduera gauzatzeko betekizunak, eta 9. artikuluan, berriz, energia-zerbitzuen hornitzailearen betekizunak betetzeari buruzko gaikuntza eta erantzukizunpeko adierazpena.

Energia-zerbitzuen hornitzailearen lanbide-jardueran aritzeko gaitutako enpresek alta emanda egon behar dute Energia-zerbitzuen Hornitzaileen Zerrendan, Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuaren egoitza elektronikotik sarbide publikoa duen zerrendan:

<https://www.idae.es/informacion-y-publicaciones/bases-de-datos/herramientas/proveedores-de-servicios-energeticos>

3.– Energia kudeatzeko sistema bat xedatu eta aplikatzeari buruzko jakinarazpena, baita informazio horren beste edozein eguneratze ere, Eusko Jaurlaritzan energiaren arloko eskumena duen zuzendaritzari egin beharko zaio, energia-kontsumitzaile handien adierazpena aldiari behin eguneratzearekin batera.

Jakinarazpena horretarako garatutako prozedura telematikoaren bidez egingo da, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura



Sailaren webgunetik eskuragarri dagoena: (www.euskadi.eus/prozedurak-energia)

4.– Energia kudeatzeko sistema hori erakunde independente batek ziurtatzen badu Europako edo nazioarteko arauekin bat etorriz, Eusko Jaurlaritzan energiaren arloko eskumena duen zuzendaritzari ere jakinarazi beharko zaio hori, aurreko paragrafoan adierazitakoaren arabera. Horrelakoetan, jakinarazpenarekin batera energia kudeatzeko sistemaren ziurtapena eta hori indarrean dagoela egiaztatzen duen erakunde ziurtatzaile independentearen ziurtagiria ere aurkeztu beharko dute.

38. artikulua.– Lantokietako mugikortasun-planak.

Lege hau garatzeko ematen diren xedapenetan ezarritako baldintzetan, atal honek aipatutako establezimenduek, txanda bakoitzeko 100 pertsonatik gora lanean dauzkatenek, lantokira joateko garraio-plana izan beharko dute. Plan horrek neurriak jasoko ditu garraio publikoa edo titulartasun pribatuko ibilgailu alternatiboak erabiltzeko. Txanda bakoitzeko 100 pertsona horietan sartuko dira lantokian lan egiten duten guztiak, bai kontratazio zuzenekoak, bai autonomoak edo azpikontratatuak enpresetan daudenak.

[254/2020 DEKRETUA] 34. artikulua.– Lantokien mugikortasun-planak.

1.– Otsailaren 21eko 4/2019 Legeak behartzen dituen lantokiek lantokietarako garraio-plan bat eduki beharko dute gehienez ere 2 urteko epean, dekretu hau indarrean jartzen den egunetik aurrera zenbatuta.

2.– Mugikortasun-planen helburu nagusia lantokirako joan-etorrien eragin txarra gutxitzea da, horretarako garraibidearen aldaketa eraginkor eta arrazionalagoa eginez. Lantokirako joan-etorriak arrazionalizatzen bideratutako garraio-neurri guztiak jasoko dira, eta, batez ere, ibilgailu pribatuaren erabilera ez-eraginkorra amaitzera zuzenduta daudenak, hala langileei, nola hornitzaile, bisitari eta bezeroei dagokienez.

3.– Txandetako batean gutxienez 100 langile baino gehiago dituzten lantokiak behartuta egongo dira.

4.– Behartuta dauden subjektu horiei dekretu honen 28. artikuluko 4. paragrafoan ezarritakoa ere izango zaie aplikagarri.

4.– Honako hau izango da lantokiaren mugikortasun-planaren gutxieneko edukia:

a) Lantokiaren karakterizazioa, gutxienez, datu hauekin: lantokiaren konfigurazioaren deskribapen laburra, jardueraren datu nagusien kuantifikazioa, langile kopurua, bisitari kopurua, jarduera zein zerbitzuen deskribapena eta garrantzizkotzat jotzen den beste edozein datu.

b) Lantokiaren mugikortasun-diagnostikoa, gutxienez, azterketa honetan oinarritua:

- Lantokietara joateko mugikortasunaren karakterizazioa.
- Mugikortasun-eskaeraren azterketa.
- Mugikortasun-eskaintzaren azterketa.
- Aparkaleku-kudeaketaren azterketa.

c) Helburu eta adierazleen definizioa. Planaren helburu nagusiarekin lerrotutako helburu espezifikoak ezarriko dira. Helburuak zenbatzeko eta neurtzeko modukoak izango dira, eta denbora-eremu zehaztua izango dute. Helburuek adierazle bana izango dute lotuta, horien betetze-maila

anbiguotasunik gabe ezagutu ahal izateko. Adierazle guztiek abiatze-datuak izango dituzte.

d) *Ekintza-plana.* Adierazitako helburu espezifikoak lortzeko gauzatu beharreko ekintzak deskribatuko dira, eta horiek egiteko epeak eta arduradunak identifikatuko dira. Ekintzak honako eremu hauen barruan sartuko dira:

- *Mugikortasunaren eskaria gutxitzeko ekintzak, hala nola telelanaren aukera eta bideokonferentziak edo bideo-deiak egitea sustatzea.*
- *Mugikortasun motorizatuaren arrazoizko kudeaketarako ekintzak.*
- *Modu ez-motordunak sustatzeko ekintzak.*
- *Ibilgailu elektrikoetarako kargaguneak eta gas bidezko ibilgailuak kargatzeko instalazioak sustatzeko ekintzak.*
- *Garraio publiko kolektiboaren alorreko ekintzak, ibilgailu pribatuaren aldean lehiakorragoa izatea lortzen dutenak.*
- *Garraio konbinatua, garraio-moduak koordinatzea eta abarrak sustatzen duten ekintzak.*
- *Sentsibilizazio, dinamizazio eta hedapenerako ekintzak.*

Mugikortasun-planak egiteko, gomendagarria da Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) eta Dibertsifikaziorako eta Energia Aurrezteko Institutuak (IDAE) ezarritakoari jarraitzea.

39. artikulua.– Eraikinen ziurtapen energetikoa.

1.– Erregelamenduz ezartzen diren forma eta epeetan, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden zerbitzu-sektoreko establezimendu guztiek eraikinen efizientzia energetikoaren ziurtagiria izan beharko dute.

[254/2020 DEKRETUA] 36. artikulua.– Eraikinen eraginkortasun energetikoaren ziurtapena.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza eta zerbitzuen sektoreko eraikinek eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria eduki beharko dute, gehienez 3 urteko epean, dekretu hau indarrean jartzen den egunetik aurrera.

3.– Eraginkortasun energetikoaren ziurtapena egiteko prozesurako, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen eraginkortasun energetikoaren ziurtapenari eta ziurtapenaren kontrol-prozedurari eta erregistroari buruzko otsailaren 26ko 25/2019 Dekretuan ezarritakoa, edo haren ordez ematen den araua, bete beharko da.

Euskadiko Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagirien Erregistroaren egoitza elektronikoan eskuragarri dago autonomia-erkidego honetan eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko prozedurari buruzko informazioa (www.euskadi.eus/ziurtagiri-energetikoa).

Eraikin guztietan, edo haien zatietan, eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria eduki behar izanez gero, nahitaezkoa da Euskadiko Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagirien Erregistroak emandako Eraginkortasun Energetikoaren Etiketa toki nabarmenean eta agerikoan erakustea, haien erabiltzaileek ikusteko moduan.

Eraginkortasun Energetikoaren Etiketak egiaztatzen du eraikinak edo haren zati batek Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiri bat duela inskribatuta Euskadiko Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagirien Erregistroan, eta



lortutako eraginkortasun energetikoaren kalifikazio-maila adierazten duen bereizgarria da.

Euskadiko Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagirien Erregistroaren kontsulta publikoaren bidez (www.euskadi.eus/ziurtagiri-energetikoa), bertan inskribatuta eta indarrean dauden ziurtagirien Eraginkortasun Energetikoaren Etiketak deskarga daitezke.

2.– Zerbitzu-sektoreko establezimendu batek bere eraikinak berritu edo birgaitu behar dituzenean, haiek kalifikazio energetikoko baldintzak –une horretan exijitu daitezkeenak eta erregelamenduz ezarritakoak– bete beharko dituzte.

Eraikuntzaren Kode Teknikoak, martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua eta abenduaren 20ko 732/2019 Errege Dekretuaren bidez aldatua, energia aurrezteko oinarriko eskakizunen bidez, eska daitezkeen kalifikazio energetikoaren betekizunak ezartzen ditu.

40. artikulua.– Hidrokarbuero likidoak ezabatzea.

Zerbitzu- eta merkataritza-sektoreetan energia-iturri gisa hidrokarbuero likidoak kontsumitzea gutxituz joan beharko da pixkanaka, 2030eko abenduaren 31ra arte, helburua izanik data horretatik aurrera erabat aldatzea eta, haien ordez, gutxiago kutsatzen duten energia-iturriak erabiltzea.

2. ATALA

BIZITEGI-SEKTOREA ETA HIRIGINTZA-GARAPEN BERRIAK

41. artikulua.– Aplikazio-eremua.

1.– Lege honetan jasotako obligazioak bete beharko dituzte etxebizitza-erakinek, titulartasun publikoak zein pribatuak, Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta daudenean alegia.

2.– Lege honen ondorioetarako, aurreko apartatuan aipatutako eraikinak bi motatan sailkatuko dira:

– R1 tipoa: aurretik dauden etxebizitza-erakinek.

– R2 tipoa: etxebizitza eraikin berriak.

42. artikulua.– Bizitegi-sektorearen betebeharrak aurretik dauden eraikinetan.

Etxebizitzarako erabiltzen diren eta aurretik dauden eraikinek, titulartasun publikoak zein pribatukoak, honako betebeharrak hauek izango dituzte:

a) Berokuntzarako, etxeko ur berorako edota hozketarako ekoizpenaren instalazio zentralizatu bat daukaten eraikinetan, kontsumo indibidualak zenbatzeko sistemak eduki beharko dituzte, erregelamenduz ezarritako moduan eta epeetan, helburua izanik gardentasuna eta kostu energetikoen banaketa egokia bermatzea.

[254/2020 DEKRETUA] 38. artikulua.– Banakako kontsumoak zenbatzeko sistemak.

1.– Banakako kontsumoak zenbatzeko sistemak edukitzeko betebeharrak dekretu hau indarrean jartzen den egunean dauden bizitegi-erakinen titularrei eragiten die, baldin eta eraikin horiek etxebizitzako bizitegi-erabilera badute eta berokuntza- edo hozte-sistemaren hornidura badute, hiriko berokuntza- eta hozte-sare baten bidez edo zenbait kontsumitzaile hornitzen dituen instalazio zentralizatu baten



bidez, baldin eta instalazio termiko horiek ez badute zerbitzu bakoitzari dagozkion gastuak kontsumitzaileen artean banatzea ahalbidetzen duen sistemarik, uztailaren 20ko 1027/2007 Errege Dekretuaz onetsitako Eraikinetako Instalazio Termikoei buruzko Erregelamenduaren 1.2.4.4 jarraibide teknikoak xedatu bezala.

Instalazio zentralizatutzat joko dira Eraikinetako Instalazio Termikoei buruzko Erregelamenduak zehazten dituen horiek.

Instalazio zentralizatutzat hartzen dira bero- edo hotz-ekoizpena eraikin osorako bakarra dutenak, zeintzuk zentral sortzailetik dagozkien etxebizitza eta/edo lokaletara banaketa egiten duten fluido termikoen bidez.

2.– Banakako kontsumoak zenbatzeko sistemak eraikinetako instalazio termikoetako kontsumo indibidualen kontabilizazioa arautzen duen abuztuaren 4ko 736/2020 Errege Dekretuaren eta dekretu honetan jasotako aginduen arabera instalatu behar dira.

3.– Abuztuaren 4ko 736/2020 Errege Dekretuak agintzen duen justifikazio-dokumentazioa elektronikoki aurkeztu behar dute errege-dekretu horrek behartuta dauden subjektuek Eusko Jaurjaritzan energiaren arloko eskumena duen sailak bere webgunean argitaratutako ereduaren arabera (www.euskadi.eus/prozedurak-industria-segurtasuna).

Eusko Jaurjaritzan energiaren arloko eskumena duen saila Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila da, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuan jasotzen den bezala.

4.– Berokuntza-kontsumoa banaka zenbatzeko ekipoen instalazioaren errentagarritasun ekonomikoa zehazteko, aurrekontu estandarizaturik egitean (abuztuaren 4ko 736/2020 Errege Dekretuaren III. eranskinean dago zehaztuta), aurrekontua egiten duen instalatzaileak zehaztu beharreko urteko energia-aurrezkiaren ehuneko zenbatetsia ez da % 15etik beherakoa izango. Energiaren arloko eskumena duen Eusko Jaurjaritzako Zuzendaritzak eguneratu ahal izango du ehuneko hori.

5.– Ekonomikoki errentagarritzat jotzen da banakako kontabilizaziorako ekipoen instalatzea, inbertsioaren itzulera-urteak 6 edo gutxiago badira.

6.– Banaka zenbatzeko ekipoei batera instalatu behar diren kontsumoak kontrolatzeko sistemak aukera eman behar dute ekipoen terminalei fluido eroalea automatikoki mozteko, giro-tenperaturaren arabera.

7.– Banakako kontsumoak zenbatzeko sistemak edo, hala badagokio, kostu-banatzailak ezartzea teknikoki bideragarria eta ekonomikoki errentagarria den alde batera utzita, behartuta dauden subjektuek, abuztuaren 4ko 736/2020 Errege Dekretuan jasotako epe berberetan, sortutako edo eskatutako energia termikoa neurtzeko gailuak ezarri beharko dituzte hozte edo berokuntzarako produkzio termiko zentralizatuko zentraletan.

Etxeko ur beroko zerbitzua dagoenean, energia neurtzeko gailu bat egongo da produkzioaren primarioan eta beste bat birzirkulazioan. Neurgailu horiek hornitzeko eta muntatzeko kostua ez da inola ere kontuan hartuko banakako kontsumoak zenbatzeko ekipoen instalazioaren errentagarritasun ekonomikoa zehazteko

b) Aurretik dauden bizitegi-eraikinetan, gutxieneko etxebizitza kopuru bat daukatenean, eraberritze-lan handi bat egiteko asmoa dagoenean, aurretiaz auditoretza energetikoa egin beharko da, araudi bidez erregulatzen den moduan, zehaztu ahal izateko hartu beharreko neurri gehigarri batzuk aurrezpen eta



efizientzia energetikoa hobetze aldera, bai eta energia berriztagarrien instalazioak txertatzeko aukerak ere.

Titulartasun publikoko bizitegi-eraikinek auditoretza energetikoak egin behar dituzte aldian-aldian, LEGEak bere II. Tituluan, "Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoa", ezarritakoaren arabera.

[254/2020 DEKRETUA] 39. artikulua.– Etxebizitzetarako bizitegi-erabilerako eraikinen energia-auditoretzak.

1.– Titulartasun pribatuko eraikinek, etxebizitzako bizitegi-erabilera dutenek, osatzen dituzten etxebizitzak direnak direla, jabetzak eraberritze garrantzitsua egin nahi badu, aldeztu aurretik, eraikinaren energia-auditoretza kontratatu beharko du, aurrezpen eta eraginkortasun energetikoa hobetzeko har litezkeen neurriak zehazteko, energia hornitzeko sistema zentralizatuak edo alternatiboak gehitzeko, baita energia berriztagarriez baliatzeko instalazioak jartzeko ere.

2.– Honako jarduketak hauek hartuko dira eraberritze garrantzitsuetan:

- a) Eraikinaren itxituren ehuneko 25i baino gehiagori eragiten dietenak.
- b) Berokuntza, hozte-sistema edo etxeko ur beroa produzitzeko instalazio termikoa handitu edo eraberritzean, lanek sorgailuei eragiten dietenean.
- c) Etxebizitza bakoitzean berokuntza, hozte-sistema edo etxeko ur beroa ekoizteko banakako sistema edukita ere, sorgailuen hiru laurdenak gutxienez batera ordeztzeko jarduketak egin nahi dituztenean.

3.– Behar bezalako kualifikazioa duten auditoreek egingo dituzte energia-auditoretzak, otsailaren 12ko 56/2016 Errege Dekretuak edo haren ordeztu ematen den arauak ezarritakoari jarraikiz. Dekretu horrek eraginkortasun energetikoari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012ko urriaren 25eko 2012/27/EB Zuzentarauaren transposizioa egiten du energia-auditoretzei, energia-zerbitzuen hornitzaileen eta energia-auditoreen akreditazioari eta energia-hornikuntzaren eraginkortasuna sustatzeari dagokienez.

4.– Energia-auditoretzak arau hauen arabera egin behar dira: UNE-EN 16247-1. Energia-auditoretzak. 1. zatia: Baldintza Orokorrak eta UNE-EN 16247-2. Energia-auditoretzak. 2. zatia: Eraikinak; edo energia-auditoretzen eskumena duen ministerioak baimendutako etorkizuneko energia-auditoretzen betekizunak zehazten dituzten UNE EN arauak.

Proposatutako neurrietarako zehaztu eta balidatutako kalkuluak jasoko dira energia-auditoretzetan, eta, era horretan, aurrezteko ahalmeneren gaineko informazio argia emango dute. Gordetzeko modukoak izango dira energia-auditoretzetan erabilitako datuak, analisi historikoak egiteko eta energia-portaeraren trazabilitatea egiteko.

Energia-auditoretzetan ez da klausularik jasoko auditoretzaren ondorioak energia-zerbitzuak hornitzen dituzten enpresa gaitu eta akreditatuei helaraztea eragozteko, eta informazioaren konfidentzialtasuna errespetatuko da edozelan ere.

5.– Behartuta dauden subjektuek energia-auditoretza indarrean atxiki behar dute, eta Eusko Jaurlaritzako energiaren eta etxebizitzaren arloko eskumena duten sailen eskuragarri eduki, ikuskatzeko edo beste edozein errekerimenduri erantzuteko.

Toki-administrazioek, eraberritze horiei ekiteko obra-lizentziaren izapideak egiteko orduan, erantzukizunpeko adierazpena aurkezteko eskatu beharko dute, eraikinaren jabetzak energia-auditoretza egin duela adieraz dezan horren bitartez.



c) Erregelamenduz ezarritako eran eta epeetan, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden bizitegi-eraikin guztiek eraikinaren efizientzia energetikoko ziurtagiria eduki beharko dute 2022ko abenduaren 31 baino lehenago.

Titulartasun publikoko bizitegi-eraikinek auditoretza energetikoak egin behar dituzte aldiari aldi, LEGEak bere II. Tituluan, "Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoa", ezarritakoaren arabera.

[254/2020 DEKRETUA] 37. artikulua.– Etxebizitzetarako bizitegi-erabilerako eraikinen energia-ziurtagiria.

1.– Titulartasun pribatuko bizitegi-eraikinek, dekretu hau indarrean jartzen denean bizitegi-etxebizitzako erabilerara zuzenduta daudenek, indarrean dagoen eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria eduki beharko dute Euskadiko Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagirien Erregistroan inskribatuta, 2022ko abenduaren 31 baino lehenago.

Eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria eraikinean etxebizitzako bizitegi-erabilera duen zatiarena izango da.

2.– Eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria egiteko prozesurako, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen eraginkortasun energetikoaren ziurtagiriari eta ziurtagiriaren kontrol-prozedurari eta erregistroari buruzko otsailaren 26ko 25/2019 Dekretuan ezarritakoa, edo haren ordean ematen den araua, bete beharko da.

Euskadiko Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagirien Erregistroaren egoitza elektronikoa eskuragarri dago autonomia-erkidego honetan eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko prozedurari buruzko informazioa (www.euskadi.eus/ziurtagiri-energetikoa).

3.– Eraikin batek, dekretu hau indarrean jarritakoan, ikuskapen teknikoa jaso behar badu eta, eraginkortasun energetikoaren ebaluazioa justifikatzeko, eraginkortasun energetikoa kalifikatzeko prozedurak, eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko dokumentu aitortuen erregistro orokorrean dokumentu aitortu gisa inskribatuta daudenak, erabiltzen badira, Euskadiko Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagirien Erregistroan inskribatu beharko da prozedura horien bitartez lortzen den eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria, otsailaren 26ko 25/2019 Dekretuan ezarritako prozedurari jarraikiz.

EUSKOREGITE Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen ikuskapen teknikoaren informaziorako eta kudeaketarako ataria da, eta esteka honetatik eskura daiteke: <https://www.euskadi.eus/web01-a1ite/eu/>

Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioari atxikitako eraginkortasun energetikoaren ziurtaginerako aitortutako dokumentuen erregistro orokorra esteka honetatik eskura daiteke: <https://energia.gob.es/desarrollo/EficienciaEnergetica/CertificacionEnergetica/DocumentosReconocidos/Paginas/documentosreconocidos.aspx>

4.– Eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria Euskadiko Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagirien Erregistroan inskribatzeko betebeharra ez da, inola ere, nahitaezko izapidea izango eraikinaren ikuskapen teknikoa aurkezteko, zeina autonomia-erkidego honetan eraikinen ikuskapen teknikoa arautzen duen erregelamendua ezarritako arauzko organoari aurkeztu behar baitaie.

5.– Euskadiko Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagirien Erregistroak ofizioz igorriko du Eraginkortasun Energetikoaren Etiketa, dekretu hau indarrean sartu aurretik honako baldintza hauek betetzen dituzten etxebizitzetarako bizitegi-erabilerako eraikinetarako:

a) Ikuskapen teknikoa egina edukitzea autonomia-erkidego honetan eraikinen ikuskapen teknikoak arautzen dituen erregelamendua beteta.



b) Ikuskapen teknikoaren esparruan, eraginkortasun energetikoaren ebaluazioa eginda eta justifikatuta edukitzea eraginkortasun energetikoa kalifikatzeko prozeduren bidez; horretarako erabili beharreko dokumentuak inskribatuta daude eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko dokumentu aitortuen erregistro orokorrean.

c) Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiria indarrean eta Euskadiko Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagirien Erregistroan inskribatuta ez edukitzea.

Euskadiko Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagirien Erregistroak, automatikoki, Eraginkortasun Energetikoaren Etiketa emango du. Etiketa hori Erregistroaren sarbide publikotik deskargatu ahal izango da, eta horren egoitza elektronikotik egongo da horretarako sarbidea (www.euskadi.eus/ziurtagiri-energetikoa) eta, horrelakoetan, ezingo du eraginkortasun energetikoaren ziurtagiriaren kopiarik edo informatika-programa aitortuek sortutako artxibo informatikoen kopiarik eman.

d) Berrituko edo zaharberrituko diren bizitegi-eraikietan, betiere eraikin horiek ziurtapen energetikoaren mende badaude, erregelamenduz ezarritako gutxieneko kalifikazio-irizpideak aplikatuko dira.

Eraikuntzaren Kode Teknikoak, martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua eta abenduaren 20ko 732/2019 Errege Dekretuaren bidez aldatua, energia aurrezteko oinarrizko eskakizunen bidez, eska daitezkeen kalifikazio energetikoaren betekizunak ezartzen ditu.

e) Pixkanaka hidrokarburo likidoak izan beharrean ingurumenarekiko errespetuzkoagoak diren energiekin ordeztuko, beharrezko diren neurri arautzaileak ezarriko dira, helburua izanik erabat ordeztea 2030eko abenduaren 31rako.

f) Energia-sistema zentralizatuen edota alternatiboen bidezko hornidurarako, bai eta autokontsumorako sistemak instalatzeko ere, azterketa egiteko betebeharra izateko irizpideak erregelamenduz zehaztuko dira, helburua izanik dagoeneko dauden etxebizitza-komunitateen eraikin-parkeetan efizientzia energetikoa, ekonomikoa eta ingurumenekoa hobetzea.

[254/2020 DEKRETUA] 40. artikulua.– Obra berriko energia-sistema zentralizatuak.

1.– Toki-administrazioek, hirigintzaren arloko antolamendu, kudeaketa, exekuzio eta diziplinaren arloan dituzten eskumenen esparruan, sistema energetiko zentralizatu edo alternatiboen bitartez energia hornitzeko azterketak sustatu behar dituzte, baita banako edo taldeko autokontsumo-sistemak ezartzeari lotutakoak ere, dagoen eraikin parkearen eraginkortasun energetikoa, ekonomikoa eta ingurumenekoa hobetearren.

g) Garraioaren arloan jasangarritasuna garatzea ahalbidetzeko, garaje komunitarioetan arautu egingo dira ibilgailu elektrikoak kargatzeko instalazioak ezartzea ahalbidetzeko irizpideak eta baldintzak.

[254/2020 DEKRETUA] 41. artikulua.– Dauden eraikinetako garaje komunitarioetan ibilgailu elektrikoak kargatzeko instalazioak ezartzea.

1.– Lehendik dauden eraikinetako garaje komunitarioetan ibilgailu elektrikoak kargatzeko instalazioak ezartzeko, hemen xedatutakoari jarraitu beharko zaio: Ebazpena, 2018ko irailaren 3koa, Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendariarena, ibilgailuen garajeetako instalazio elektrikoaren zerbitzu-abiatzeen, handiagotzeen eta aldizkako ikuskatzeen espedienteak izapidetzeko argibideak ematen dituena.



Ebazpena 2018ko azaroaren 16ko EHAA n argitaratu zen, 221. zenbakian, eta esteka honen bidez eskura daiteke:

<https://www.legegunea.euskadi.eus//eli/es-pv/res/2018/09/03/5/dof/eus/html/x59-contfich/eu/>

2.– Lehendik dauden eraikinetako garaje komunitarioetan ibilgailu elektrikoak kargatzeko instalazioak zerbitzuan jartzeko izapideak egiteko, honako baldintza hauek hartu beharko dira kontuan:

a) Kontagailu nagusi batetik elikatzen den instalazioak abuztuaren 2ko 842/2002 Errege Dekretuaz onetsitako Behe Tentsiorako Erregelamendu Elektroteknikoan adierazitako potentzia gainditzen duenean baino ez da proiekturik eskatuko. Potentzia hori 50 kW da barneko instalazioetarako, eta 10 kW kanpokoetarako.

b) Ibilgailu elektrikoa kargatzeko gune bat ezarri nahi duen pertsonak jakinarazpena egin beharko dio garajeko jabeakideen erkidegoaren administratzaile edo presidenteari, eta jabeakideei horren berri emango die horrek, ibilgailu elektrikoa kargatzeko beste guneren bat eduki nahi duten pertsona gehiago dagoen jakinarazteko, halakorik badago. 7 egun naturaleko epea igarota, garajeko jabeakideen erkidegoaren administratzaileari edo presidenteari jakinarazten zaionetik zenbatuta, eskaerak hasierako interesdunari helaraziko zaizkio, ibilgailu elektrikoa kargatzeko guneak ezarri nahi dituzten pertsonak edo garajearen jabeakideen erkidegoak batera ezartzea azter dezaten.

c) Garaje komunitarioak sailkapen horretatik kanpokotzat joko dira, honako hau egiaztatuz gero,

- Garaje horretan sutea edo leherketa gertatzeko arriskurik ez dagoela egiaztatzen duten agiri teknikoak daudela, eta instalazioa dokumentazio horrekin bat datorrela oraindik.
- Instalazio elektrikoa lokal horietarako horrelako arriskurik gabe diseinatu eta gauzatu zela, orduan indarrean zegoen erregelamenduari jarraikiz, eta bere garaian ezarritako aireztapen-baldintzei eutsi zaiela edozelan ere.

3.– Kasu guztietan, instalatzaileak edo, instalazioaren potentziagatik hala beharrezkoa bada, teknikari gaituek, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute, ibilgailu elektrikoak kargatzeko instalazioa egingo duten gunea sailkapenetik kanpo dagoela adierazteko.

43. artikulua.– Bizitegi-sektorearen betebeharrak eraikin berrietan.

Etxebizitza erabilerarako eraikin berriek, babes publikoak barne direla, honako betebeharrak izango dituzte:

a) Eraikiko diren bizitegi-eraikin berrietan, betiere eraikin horiek ziurtapen energetikoaren mende daudenean, erregelamenduz zehaztutako gutxieneko kalifikazio-irizpideak aplikatuko dira.

Eraikuntzaren Kode Teknikoak, martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua eta abenduaren 20ko 732/2019 Errege Dekretuaren bidez aldatua, energia aurrezteko oinarritzko eskakizunen bidez, eska daitezkeen kalifikazio energetikoaren betekizunak ezartzen ditu.

b) Hirigintza-garapen berriek, alegia, gutxieneko eraikigarritasun bat gainditzen dutenek, bero-sistemarako energia-hornidurarako sistema zentralizatuak izan beharko dituzte, lehentasuna izanik iturri berriztagarritakoak, betiere teknikoki eta ekonomikoki bideragarria denean. Obligazio hori betetzeko baldintza zehatzak erregelamenduz ezarriko dira.



[254/2020 DEKRETUA] 40. artikulua.– Obra berriko energia-sistema zentralizatuak.

2.– Hirigintzako garapen berriei dagokienez, toki-administrazioek, hirigintzaren arloko antolamendu, kudeaketa, exekuzio eta diziplinaren arloan dituzten eskumenen esparruan, energia hornitzeko eta energia berriztagarriez baliatzeko sistema zentralizatuak aurreikusteko betebeharra ezarri beharko dute erregelamendu bidez.

c) Aparkaleku komunitarioetan ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuen aurre-sistemak jartzea, eta bizikletak erabiltzea eta aparkatzea lagunduko duten espazioak, erregelamenduz ezarriko baitira.

Jarraibide Tekniko Osagarria (ITC) BT 52 "Helburu berezietarako instalazioak. Ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegitura", behe-tentsiorako erregelamendu elektroteknikoaren arabera (842/2002 Errege Dekretua, abuztuaren 2koa, abenduaren 12ko 1053/2014 Errege Dekretuaren bidez onartua), ibilgailu elektrikoak kargatzeko instalazioei aplikatu beharreko aginduak ezartzen ditu.

44. artikulua.– Eraikingintza jasangarria sustatzea.

Administrazio publikoek, beren eskumenen eremuan, neurri gehigarri batzuk hartuko dituzte aurrezpen eta efizientzia energetikoa sustatzeko eta babesteko, eta bizitegi-eraikin berrietan energia berriztagarriak ezartzeko.

3. ATALA

GARRAIO PRIBATUA

45. artikulua.– Aplikazio-eremua.

1.– Lege honek eta berau garatzen duen araudiak jasotako obligazioak bete beharko dituzte salgai eta bidaiarien garraio pribatuko enpresek, Euskal Autonomia Erkidegoan daudenak.

Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionalaren arabera (EJSN-2009) salgaien eta bidaiarien garraio pribatuko enpresak H taldean sartzen direnak dira.

2.– Lege honetan ezarritako betebeharrak alboratu gabe, 1. apartatuan aipatutako jarduerak ibilgailu-flotaren tamainaren arabera sailkatzen dira, honela:

– T1 tipoa: salgai eta bidaiarien garraio astuneko enpresak, ibilgailu komertzialak-furgonetak, eta 10 unitatetik gorako ibilgailu-flota bat duten beste batzuk.

– T2 tipoa: garraio-sektorekoak ez diren enpresa pribatuak, trakzio mekanikoko 10 ibilgailu baino gehiago dituztenak.

– T3 tipoa: T1n eta T2n aurreikusi gabeko trakzio mekanikoko ibilgailu pribatuak.

46. artikulua.– Garraio pribatuko floten baldintzak.

Zehazten den maiztasunez, 45. artikuluko 2. apartatuan aurreikusitako garraio-flotek, ezartzen diren irizpideak betetzen dituztenek, alegia, azterlan konparatiboan egin beharko dute, beren benetako egoeraz eta beren flotetan dauzkaten aukeraz garraio-sistema alternatiboak erabiltzeko, efizienteagoak eta jasangarriagoak izango direnak, garatzen diren arauetan ezarritako baldintzetan.



III. KAPITULUA

SUSTATZEKO NEURRIAK ETA BORONDATEZKO AKORDIOAK

47. artikulua.– Borondatezko akordioak.

1.– Enpresek eta erakunde publikoek konpromisoa hartu dezakete, borondatezko akordioen bidez, jasangarritasun energetikoaren alorrean legez ezarritakoak baino helburu zorrotzagoak lortzeko estrategiak garatzeko.

2.– Borondatezko akordioak, beharrezkoak liratekeen baimenak kaltetu gabe, bete beharrekoak izango dira bi aldeentzat.

3.– Eusko Jaurlaritzan energiaren alorrean eskumena duen sailak sustatu eta bultzatu egingo du elkarlan soziala energiaren erabilera arduratsuan, lege honen helburuak betetze aldera, eta horren barruan sartu ahal izango da energia-sektoreko eragileekin eta beste eragile sozial batzuekin behar diren borondatezko akordioak sinatzea.

4.– Euskal administrazio publikoek argitaratu egin beharko dituzte jasangarritasun energetikoaren alorrean sinatzen dituzten borondatezko akordioak; horretarako, beren esku dagoen informazioa eguneratuta eta eskuragarri mantendu beharko dute.

48. artikulua.– Etiketa informatiboa erakustearen normalizazioa.

1.– Jasangarritasun energetikoaren alorrean sentsibilitate handiagoa areagotzeko neurri gisa, araudi bat ezarriko da, arautuko dituen etiketa informatiboak erakusteko betebeharrak eta irizpideak.

2.– Horrelako neurriak aplikatzeko eremuak izango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoa eta sektore pribatua, garatzen duen araudiak ezarritakoaren arabera.

[254/2020 DEKRETUA] 36. artikulua.– Eraikinen eraginkortasun energetikoaren ziurtapena.

Eraikin guztietan, edo haien zatietan, eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria eduki behar izanez gero, nahitaezkoa da Euskadiko Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagirien Erregistroak emandako Eraginkortasun Energetikoaren Etiketa toki nabarmenean eta agerikoan erakustea, haien erabiltzaileek ikusteko moduan.

Agintaritza publiko batek okupatutako eraikinetan eraginkortasun energetikoaren etiketa erakusteko betebeharra dagoeneko jasota dago eraikinen eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko oinarritzko prozedura onartzen duen apirilaren 5eko 235/2013 Errege Dekretuan eta Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen eraginkortasun energetikoaren ziurtapenari eta ziurtapenaren kontrol-prozedurari eta erregistroari buruzko otsailaren 26ko 25/2019 Dekretuan.

Eraginkortasun Energetikoaren Etiketak egiaztatzen du eraikinak edo haren zati batek Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiri bat duela inskribatuta Euskadiko Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagirien Erregistroan, eta lortutako eraginkortasun energetikoaren kalifikazio-maila adierazten duen bereizgarria da.

Euskadiko Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagirien Erregistroaren kontsulta publikoaren bidez (www.euskadi.eus/ziurtagiri-energetikoa), bertan inskribatuta eta indarrean dauden ziurtagirien Eraginkortasun Energetikoaren Etiketak deskarga daitezke.



[254/2020 DEKRETUA] 27. artikulua.– Ordezko erregaiak erretzen dituzten ibilgailuak.

4.– Administrazio publikoek era guztietako araubideetan eskuratutako ibilgailuek Trafiko Zuzendaritza Orokorra emandako ingurumen-bereizgarria eraman beharko dute, eta horrez gain, kontsumitzen duten ordezko erregaiaren berri ematen duen etiketa ere eramango dute ageriko tokian.

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak euskal administrazio publikoen eskura jartzen du, erabil dezaten, ordezko erregaia (elektrizitatea edo gasa) identifikatzeko etiketa-eredua. Eredu horren formatua gida honen II. eranskinean dago erantsita. Etiketak s-energia@euskadi.eus posta elektronikokoaren bidez eska daitezke

Ordezko erregaia identifikatzeko etiketek osatu egin behar dute Barne Ministerioi Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak jaulkitako ingurumen-bereizgarriak ematen duen informazioa; beraz, komeni da haren tamaina ez gainditzea (97 mm-ko diametroa) eta haren ondoan jartzea.

3.– Etiketatzeko energetikoaren sistema zentratuko da eraikinetan, instalazioetan, garraio-ibilgailuetan eta hala zehazten diren beste elementuetan.

49. artikulua.– Prestakuntza-planak.

1.– Lege honen helburu diren enpresa-sektoreen tipologiek, lege hau indarrean sartzen denean gutxieneko langile kopuru batetik gora daukatenek, prestakuntza-plan bat izan beharko dute, araudi bidez ezartzen diren baldintzetan.

[254/2020 DEKRETUA] 35. artikulua.– Prestakuntza eta sentsibilizazioa.

1.– I1 motako, I2 motako eta S1 motako enpresek beren langileak prestatzeko eta sentsibilizatzeko plan bat egin beharko dute dekretu hau indarrean sartu eta urtebeteko epean.

2.– Energia kontsumitzen duten instalazioak erostearekin, mantentzearekin eta erabiltzearekin zerikusia duten kudeatzaileak eta teknikariak prestatzeko izan beharko dira prestakuntza-jarduerak bereziki, eta aurrezpen eta eraginkortasun energetikoa handitzeko eta energia berriztagarriak ezartzeko eta horiez baliatzeko teknikei buruzkoak izango dira.

Halaber, garraioaren erabilera eraginkor eta jasangarriari buruzko prestakuntza-ekintzak ere zehaztu beharko dituzte ibilgailuak dauzkaten enpresetan edo mugikortasun-plana nahitaez eduki behar dutenetan.

3.– Otsailaren 21eko 4/2019 Legeak eragindako enpresek aurrezpen eta eraginkortasun energetikoari buruzko informazioa emango diete langileei; horretarako, aurrezpen eta eraginkortasun energetikoa lortzeko jarraibideak eta teknikak emango dituzte, bitarteko hauek erabilia:

a) Sentsibilizazio-kanpainak.

b) Erabilera-teknikak eta jarraibideak ezartzeari buruzko gidaliburuak eta jardunbide egokiak argitaratzea edo zabaltzea, instalazioetan erabiltzen duten energiaren aurrezpen eta eraginkortasun handiagoa lortzeko.

4.– Lantokien mugikortasun-planak, horrelakoak edukitzera behartuta daudenean, eskuragarri egongo dira horietan lan egiten duten pertsona guztientzat, eta langile horiei jakinarazi beharko zaizkie.

2.– Lantokietako prestakuntza energetikoko planak langileak gaituko ditu enpresan aurrezpen eta efizientzia energetikoa areagotzeko neurri eta teknika orokorrei buruz, teknologia berriztagarriei buruz eta garraioaren erabilera efizienteari eta jasangarriari buruz.



3.– Planak hainbat lantokitan ezartzeko izan daitezke; nolana ere, lantoki bakoitzean aplikatu daitezkeen neurrien ezaugarriak zehaztu beharko dira.

50. artikulua.– Lege honetan jasotako jarduketak finantzatzea eta alor energetikoan laguntzak jasotzea.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek, bakoitzak bere eskumenen esparruan, lege honetan ezarritako betebeharrei aurre egiteko behar adina diru-zuzkidura jasoko dituzte bakoitzari dagozkion aurrekontuetan. Era berean, administrazioen arteko finantza-lankidetzarako formulak adostu ahal izango dituzte, lege hau aplikatuz egin beharreko jarduerak behar bezala finantzatuko direla bermatu ahal izateko.

[254/2020 DEKRETUA] XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoek, beren eskumenekin bat etorritik, giza baliabide eta bitarteko material nahikoak bideratuko dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legearen helburuak betetzen direla bermatzeko.

[254/2020 DEKRETUA] 8. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren baliabideak mobilizatzea.

1.– Otsailaren 21eko 4/2019 Legearen 50. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak jasangarritasun energetikoa sustatzeko eta hobetzeko jardueretara bideratuko du urteko aurrekontuaren zati bat. Horretarako, gastuak egozteko metodologia erregelamendu bidez zehaztuko da.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Jasangarritasun Energetikoaren Batzordeak, urtero, Eusko Jaurlaritzan ogasunaren arloko eskumena duen sailari proposatuko dio Eusko Jaurlaritzako sail bakoitzak jasangarritasun energetikoaren arloan bideratzea aurreikusten duen aurrekontuaren ehunekoa, otsailaren 21eko 4/2019 Legearen helburuak lortzeko.

3.– Dekretu hau indarrean jarri eta gehieneko bi urteko epean, Eusko Jaurlaritzan ogasunaren arloko eskumena duen sailak erregelamenduz garatuko du energia-jasangarritasuna bultzatzeko jarduketei gastuak egozteko metodologia. Gobernu Kontseiluak onetsiko du metodologia hori.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak edo bere Administrazio Instituzionalak, energiaren arloan dituen eskumenak baliatuz, egoki diren finantza-lankidetzako sustapen-neurriak eta formulak artikulatuko ditu, lege honetan aurreikusitako helburuak lortzen laguntzeko xedez. Xede horretarako, honako hauek egin ahal izango ditu:

a) Energia-aurrezpena eta efizientzia energetikoa sustatzeko eta laguntzeko eta energia berriztagarriak ezartzeko dirulaguntzen programak onartzea. Laguntza horiek honelakoak izan daitezke: itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak, gabealdiak izango dituen finantzaketa (interesik gabe edo interes hobaridunekoak) eta dirulaguntza itzulgarriak, inbertsio bakoitzerako ezarritakoaren arabera, aurrezpen energetikoaren ondoriozko itzulkinekin.

b) Lankidetzak-hitzarmenak sinatzea beste administrazio publiko, erakunde publiko, mankomunitate eta partzuergo batzuekin inbentarioak, auditoretza energetikoak, energia-jarduketan planak eta hiri-mugikortasuneko planak egiteko, bai eta jasangarritasun energetikoko hainbat neurri eta proiektu ezartzeko ere.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak balioetsi ahal izango du lege honen helburuak betetzea exijitutakoaren gainetik; horretarako, laguntza-



programetan, gehikuntza batzuk ezarriko ditu laguntzen zenbatekoetan, edo onura berezi batzuk, ezarritako moduan hala egiaztatzen duten eskatzaileentzat.

51. artikulua.– Jasangarritasun energetikoari buruzko dibulgazioa eta sentsibilizazioa.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek, lege honetan jasotakoarekin bat, eta beren eskumenen eremuan, bermatu egingo dute jasangarritasun energetikoari buruzko informaziorako eskubidea; horretarako, jarraibide eta teknika batzuk ezagutaraziko dituzte, besteak beste, honako hauen bidez:

a) Heziketa-, sentsibilizazio- eta publizitate-kanpainak.

b) Trantsizio energetikoaren inguruko prestakuntza-planak eta unitate didaktikoak lehen eta bigarren irakaskuntzarako programetan.

c) Gida ulergarriak argitaratu eta banatzea herritarrentzat eta hainbat sektorerentzat (industria, merkataritza, zerbitzuak, bizitegiak eta garraioa), energiaren erabileran aurrezpen eta efizientzia handiagoak lortzeko teknika eta jarraibideak, lege honetan aurreikusitakoak, ezartzeari buruz.

Dibulgazioa, prestakuntza eta sentsibilizazioa beti egin beharko da hizkuntza inklusiboa zainduta, bai testuetan, bai irudietan, eta rol eta estereotipoak ezabatzea saiatuz.

2.– Eusko Jaurlaritzan energiaren alorrean eskumena duen sailak sari batzuk deitu ahal izango ditu, besteak beste, honako hauei zuzenduak: toki-erakundeak, erakunde edo mugimendu sozialak, industria-sektoreak, eraikinak, publizitate-kanpainak, hezkuntza-programak edo lan zientifikoak, zeinak beren ereduarekin edo oihartzun edo eragin sozialarekin ondoen laguntzen duten balio horiek zabaltzen, bai eta aurrezpen eta efizientzia energetikoko jarraibide eta teknika onenak eta energia berriztagarrien sustapena eta garapena zabaltzen ere.

IV. TITULUA

GARDENTASUN- ETA INFORMAZIO-NEURRIAK

52. artikulua.– Enpresa energetikoen betebeharrak.

1.– Euskal Autonomia Erkidego honetan operatzen duten energia hornitzen duten enpresek informazioa ahalbidetu beharko diete administrazio publikoei kontsumitzen dituzten produktu energetikoei buruz, garatzen diren arauetan ezarritako baldintza eta zehaztapenetan.

2.– Era berean, garatu beharko da energia mota askotako enpresa ekoizle eta eraldatzaileek nahitaez eman beharreko informazioa.

53. artikulua.– Instalazio berriztagarrien erregistroa.

1.– Lege honen helburuen ondorioetarako, instalazio berriztagarrien erregistro autonomiko bat sortzen da, atxikita egongo dena energia alorrean eskumena duen sailari, eta haren helburua izango da Euskal Autonomia Erkidegoan dauden instalazio berriztagarriak inskribatzea.

2.– Erregistro horren edukia, funtzionatzeko arauak eta inskribatzeko prozedura erregelamenduz ezarriko dira.



54. artikulua.– Kontsumitzaileen eskubideak.

1.– Eusko Jaurlaritzan energiaren alorrean eskumena duen sailak beharrezko diren neurriak hartuko ditu enpresa energetikoen eta kontsumitzaileen arteko harremanetan gardentasuna bermatze aldera.

2.– Kontsumitzaileen parte-hartze aktiboa bermatuko da gasaren eta elektrizitatearen hornidura-merkatuan, bai eta beren eskubidea ere informatuta egoteko benetako energia-kontsumoaren eta kontsumo horren kostuen inguruan, euren kontsumoa erregulatzea ahalbidetuko dien maiztasunez.

3.– Horretarako, erregelamenduz ezarritako forman eta epeetan, energia-horniduretako neurketa-ekipo guztiek teleneurketa- eta telekudeaketa-sistemak izan beharko dituzte.

Enpresa hornitzaileek informazio-kanpainak egin beharko dizkiete kontsumitzaileei, helburua izanik azken horiek informazioa izatea neurketa-ekipo berrien potentzialaz eta teleneurketa- eta telekudeaketa-sistemen funtzionalitateez.

4.– Aipatutako eskubideak eraginkor bihurtze aldera, energia hornitzen duten enpresek, edo neurketaren arduradun diren enpresek, azken kontsumitzaile diren pertsoneri, horniduraren titular direnei edo haiek baimendutakoei, doako sarbide telematikoa eta denbora errealekoa emango diete ekipo horiek sortutako datuetara, bai eta kontagailuaren beraren datuetarako sarbide zuzena ere.

Erregelamenduz ezarriko dira oinarriak sarbide askea eta doakoa izan dezaten Euskal Autonomia Erkidegoko kontsumitzaileek beren energia-kontsumoari buruzko datuetara, bai eta informazio hori trukatzeko aukerara ere, modu egoki eta doakoan, enpresa hornitzaileen, kontsumitzaileen eta beste eragile mota batzuen artean.

55. artikulua.– Energia-kontsumitzaileak.

Lege honetan aurreikusitako enpresek Eusko Jaurlaritzan energia alorrean eskumena duen sailari eman beharreko informazioari buruzko betekizunak (energia-kontsumoak, ekipo kontsumitzaileak, auditoretzak, hartutako neurri energetikoak, etab.) lege hau garatzeko ematen diren xedapenetan jasoko dira.

LEGEaren eraginpeko administrazio publikoek Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari aldizka igorri behar dizkioten informazio-betekizunak 254/2020 DEKRETUaren 31., 32. eta 33. artikuluetan daude jasota.

Jakinarazpenak horretarako garatutako prozedura telematikoen bidez egingo dira, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunetik eskuragarri daudenak: (www.euskadi.eus/prozedurak-energia)

56. artikulua. Toki-administrazioak.

Udal- eta foru-administrazioek Eusko Jaurlaritzan energia alorrean eskumena duen saila informatu beharko dute energia jasangarriko ekintza-planen garapenari dagokionez, aplikatu daitekeen araudian ezartzen diren baldintzetan.

LEGEaren eraginpeko administrazio publikoek Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari aldizka igorri behar dizkioten informazio-betekizunak 254/2020 DEKRETUaren 16., 17., 19. eta 21. artikuluetan daude jasota.



Jakinarazpenak horretarako garatutako prozedura telematikoen bidez egingo dira, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunetik eskuragarri daudenak: (www.euskadi.eus/prozedurak-energia)

V. TITULUA

IKUSKAPENA, KONTROLA ETA ZEHAPEN-ERREGIMENA

I. KAPITULUA

ZAINTZA-, IKUSKAPEN- ETA KONTROL-ERREGIMENA

57. artikulua.– Zaintza-, ikuskapen- eta kontrol-modalitateak.

1.– Energia alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari dagokio lege honetan jasotako obligazioak betetzen direla zaintzea, ikuskatzea eta kontrolatzea.

2.– Zaintza-, ikuskapen- eta kontrol-lanak egiten dituen langile funtzionarioek autoritate-agente gisa jardungo dute funtzio hori betetzeko; hori dela eta, ahalmena ematen zaie lege honen aplikazio-eremuan sartuta dauden instalazio eta eraikin guztietara sartzeko, aurretiazko jakinarazpenik gabe, beren buruak identifikatu ondoren.

3.– Artikulu honetan aipatutako zaintza-, ikuskapen- eta kontrol-lanak zuzenean egin ahal izango dituzte langile funtzionarioek, edo aurrezpen eta efizientzia energetikoaren alorreko ikuskapen eta kontroleko erakunde kolaboratzaileen bidez egingo dira lan horiek.

58. artikulua.– Ikuskapen eta kontroleko erakunde kolaboratzaileak.

1.– Erregelamenduz ezarriko da erakunde kolaboratzaileen erregimen juridikoa, funtzioak eta jarduera-eremuak, haien betebeharrak, baldintzak eta beren jarduera kontrolatzeko moduak, bai eta erakunde horien independentzia eta inpartzialtasuna bermatuko duten neurriak ere.

2.– Aurrekoa gorabehera, aurrezpen eta efizientzia energetikoaren alorreko ikuskapen eta kontroleko erakunde kolaboratzaileek ezingo dute, inola ere, laguntza teknikoko edo auditoretzako funtziorik bete energia alorrean, ezta pertsona edo erakunde interesatuekin inolako lotura tekniko, komertzial, finantzario edo beste edonolakorik izan, beren independentziari eragin diezaiokeenik edo beren jardueraren ondorioetan eraginik izan dezakeenik.

59. artikulua.– Ikuskapen-akta.

1.– Ikuskapen- edo egiaztapen-bisita orotan gertaerak deskribatzen dituen akta egingo da. Akta horretan adieraziko dira, halakorik balego, ikusitako irregulartasunak eta irregulartasun horien erantzuleek egiten dituzten alegazioak lege honetan ezarritako obligazioak betetzerakoan.

2.– Akta horiek ziurtasun-presuntzioa eta froga-balioa izango dute, kendu gabe pertsona interesatuek beste proba batzuk aurkezteko duten aukera. Froga-balioa izango dute, baita ere, zaintza-, kontrol- eta ikuskapen-lanetan egindako argazkiek, bideoek, erregistroek eta bestelako dokumentazio grafikoak, ikuskapen-aktari atxikitakoak badira.

3.– Erakunde kolaboratzaileen dokumentuek, kasuan kasuko ikuskapen- edo egiaztapen-bisitaren ondoren, ikuskapen-aktaren izaera izango dute, eta



ziurtasun-presuntzio eta froga-balio bera izango dute, langile funtzionarioenak bezalakoa.

60. artikulua.– Ikuskatzaileen ahalmenak.

1.– Beren funtzioak betetzen zaintza-, ikuskapen- eta kontrol-lana egiten dutenek honako ahalmen hauek izango dituzte, betiere kendu gabe Eusko Jaurlaritzan energia alorrean eskumena duen sailak beste batzuk ere eman ahal diezazkiela:

a) Beren buruak identifikatu ondoren, lege honi atxikita dauden jarduerak edo ekintzak garatzen diren lekuetara sartzea, eta beharrezkotzat jotzen dituzten egiaztapen eta neurketak egitea.

b) Informazioa eskatzea ikuskatutako jardueren, ekintzen eta instalazioen pertsona titular, erantzule edo arduradunei, eta beren misioa betetzeko beharrezko diren azterketa eta kontrolei ekitea.

c) Ikuskapen-bisitetan pertsona titularrak edo jardueraren ordezkari den pertsonak lagunduta joatea, bai eta enpresako edo establezimenduko langile adituek eta teknikoek lagunduta ere.

d) Gertaerak deskribatzen dituen akta egitea, ikuskapen-bisita bakoitzaren ondoren.

e) Eskumena duen organoari jakinaraztea lege honek tipifikatutako arau-hauste administratiboa izan litezkeen gertaerak.

f) Erregelamenduz ematen zaion beste edozein funtzio, aurrezpen eta efizientzia energetikoaren inguruan ematen zaiona.

2.– Langile funtzionarioei dagokie, izaera eskusiboan, hala dagokienean, kasuan kasuko zehapen-prozedura abian jartzeko proposatzea.

3.– Instalazioen pertsona titularrek, haien zerbitzura dauden langileek eta ikuskapen-jardueretan esku hartzen duten bestelako pertsonak obligazioa dute langile funtzionarioarekin eta erakunde kolaboratzaileetako langileekin kolaboratzeko, pertsona horiek lege honek emandako funtzioak betetzen dihardutenean.

II. KAPITULUA

ARAU-HAUSTE ETA ZEHAPENAK

61. artikulua.– Eskumena eta prozedura.

1.– Arau-haustea frogatzeak, egozteak eta dagokion zehapena jartzeak aurretiaz dagokion espedientea izapidetzea eskatuko du. Lege honek ezarritako zehapenak ezartzeko prozedura arrunta izango da otsailaren 20ko 2/1998 Legean ezarrita dagoena, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko Legean ezarrita dagoena.

2.– Lege honetan aurreikusitako zehapenak ezartzeko eskumena energia alorrean eskumena duen sailaren titularri dagokio, arau-hauste oso astunetarako gutxienez. Arau-hauste astun eta arinen kasuan, berriz, egitura organikoari buruzko dekretuetan ezarritakoari jarraituko zaio.

62. artikulua.– Arau-haustekak.

Arau-hauste administratiboak dira lege honetan araututako egintzak edo ez-egiteak, subjektu erantzule bakoitzarenak, honako artikulua hauetan hala tipifikatutakoak.



63. artikulua.– Erantzuleak.

1.– Arau-hausteen subjektu erantzule dira haien egile diren pertsona fisiko edo juridikoak, arau-haustea beren esku-hartzearen zuzeneko ondorio denean.

2.– Arau-hauste baten egileak bi pertsona edo gehiago direnean, eta, ondorioz, haren erantzule direnean, eta posible ez denean euren parte-hartze maila zehaztea, modu solidarioan erantzungo diete ondorioztatzen diren zehapenei.

3.– Arau-haustea hainbat eragileren ekintzak batzeagatik gertatzen denean, eta haiek guztiak arau-haustearen erantzule direnean, ezarritako zehapenek izaera independentea izango dute euren artean.

64. artikulua.– Zehapenen sailkapena.

Zehapenak arin, astun eta oso astun gisa sailkatuko dira.

65. artikulua.– Arau-hauste oso astunak.

Arau-hauste oso astunak dira, lege honetan ezarritako eremuan, honako hauek:

a) Auditoretza energetikoa ez egitea legeak edo lege hau garatzen duten xedapenetan ezarritako epe eta baldintzetan, edo datuen manipulazio doloakoa auditoretza energetiko bat egiterakoan.

b) Behar bezala akreditatu gabeko erakunde baten eskutik egitea auditoretza energetikoa. Zerbitzu energetikoen enpresarik edo haren pareko sistema propiorik ez izatea lege honek edo berau garatzen duten xedapenek hala eskatzen dutenean.

c) Aurrezpen- edo berriztagarri-proporzioa ez betetzea, lege honetan ezarritakoaren arabera, exijitutakoaren eta benetan lortutakoaren arteko aldea % 50etik gorakoa denean.

d) Eraikinen kalifikazio energetikoari buruzko obligazioak ez betetzea.

66. artikulua.– Arau-hauste astunak.

Arau-hauste astunak izango dira:

a) Lantokietarako garraio-plan bat onartu ez izana, lege honetan edo lege hau garatzeko xedapenetan ezarritako baldintza eta epeen barruan.

b) Langileen prestakuntzarako neurrien plan bat onartu ez izana, lege honetan edo lege hau garatzeko xedapenetan ezarritako baldintza eta epeen barruan.

c) Eskumena duen administrazioari igorri beharreko informazioan datuen manipulazio doloakoa edo informazio hori ez jakinaraztea.

d) Lege honetan aurrezpen edo berriztagarrietarako ezarritako portzentajeak ez betetzea, exijitutakoaren eta benetan lortutakoaren arteko aldea % 30etik gorakoa eta % 50etik beherakoa denean.

e) Ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuei eta bizikleten erabilera eta aparkalekua ahalbidetzeari dagozkien lekuetako obligazioak ez betetzea.

f) 36. artikuluko 1. apartatua eta 30. artikuluko 1. apartatua aipatutakoari dagozkien betebeharren justifikazio falta.

g) Energia berriztagarriko instalazioak epealdi jakin baterako ezartzearen maila ez jakinaraztea Eusko Jaurlaritzan energiaren alorrean eskumena duen sailari.

h) Lege honen artikuluetan ezarritako epeak ez betetzea, hau da, eraikinen eta instalazioak egokitzeko epeak ez betetzea, eta teknologia eta energia



efizienteagoak eta jasangarriagoak jartzeko edo ezarritako helburuak betetzeko epeak ez betetzea.

67. artikulua.– Arau-hauste arinak.

Arau-hauste arinak izango dira:

- a) Lege honetan aurrezpen edo berriztagarrietarako ezarritako portzentajeak ez betetzea, exijitutakoaren eta benetan lortutakoaren arteko aldea % 15etik gorakoa eta % 30etik beherakoa denean.
- b) Lege honetan ezarritako obligazioak edo baldintzak ez betetzea, arau-hauste oso astunak edo astunak ez direnean.

68. artikulua.– Zehapenak mailakatzea.

1.– Aurreko artikulua tipifikatutako arau-hausteez honako zehapen hauek izango dituzte:

- a) Arau-hauste arinek 12.000 eurora arteko isuna.
- b) Arau-hauste astunek 12.001 eta 50.000 euro bitarteko isuna.
- c) Arau-hauste oso astunek 50.001 eta 350.000 euro arteko isuna.

2.– Arau-hauste bakoitza egiteagatik ezarri beharreko zehapenaren zenbatekoa honako irizpide hauen arabera mailakatuko da, artikulua honen 1. puntuan ezarritako mugen barruan, betiere honako inguruabar hauek kontuan izanda:

- a) Eragindako kalte edo hondatzearen garrantzia.
- b) Arau-haustetzat tipifikatutako egintzan edo ez-egitean izandako partaidetza maila, eta haren ondorioz lortutako etekina.
- c) Arau-haustea nahita egin ote den eta behin baino gehiagotan egitea.
- d) Urtebeteko epean munta bereko arau-hauste bat berriro egitea, administrazio-bidean ebatzen iruzimoz hala egin dela adierazi bada.
- e) Arau-haustearen gaitzespen maila handiagoan edo txikiagoan eragina izan dezakeen beste edozein inguruabar.
- f) Betebeharrak betetzeko izan den atzerapenaren iraupena.

3.– Hala ere, isunaren zenbatekoa egindako arau-haustetik jasotako onura baino txikiagoa denean, isuna areagotu egingo da arau-haustetik jasotako onuraren zenbatekoan.

Nolanahi ere, zehapenaren zenbatekoak ezin izango du subjektu arau-haustearen negozio-zifraren urteko zenbatekoaren % 10 gainditu, edota enpresa biltzen duen taldeko sozietate matrizearen negozio-zifra kontsolidatuaren urteko zenbateko garbiaren % 10 gainditu.

4.– Gertatzen diren inguruabarren ondorioz, arau-haustearen erruduntasuna edo gertakariaren antijuridikotasuna nabarmen gutxitzen dela ikusiz gero, edota, arau-haustearen egoera ekonomiko akredituari erreparatuz gero, zehapena gehiegizkoa baldin bada nabarmen, organo zehatzaileak zehapenaren zenbatekoa erabaki ahal izango du eta, horretarako, kasuan kasu arau-haustearen astuntasun mailaren aurrekoari dagokion arau-hauste motaren eskala aplikatuko du organo horrek



69. artikulua.– Arau-hauste eta isunen preskripzioa.

1.– Kapitulu honetan aurreikusitako arau-hauste oso astunak bost urtean preskribatuko dira; astunak, hiru urtean, eta arinak, urtebetean.

2.– Falta oso astunengatik ezarritako isunak bost urtean preskribatuko dira; falta astunengatik ezarritakoak, hiru urtean, eta falta arinengatik ezarritakoak, urtebetean.

3.– Artikulu honetan aipatzen diren arau-hauste eta zehapenen preskripzio-epeak zenbatzeko, otsailaren 20ko 2/1998 Legean ezarritakoa bete beharko da, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko Legean ezarritakoa.

Arau-hauste jarraituen kasuan, jarduera edo arau-haustea osatzen duen azken egintza amaitzen den unean hasiko da zenbatzen preskripzio-epea. Arau-haustea osatzen duten gertakari edo jarduerak ezezagunak badira kanpo-aztarnarik uzten ez dutelako, gertakari edo jarduerak agerian geratzen direnean hasiko da epea zenbatzen.

70. artikulua.– Behin-behineko neurriak.

Beti ere kendu gabe Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko Legearen (otsailaren 20ko 2/1998 Legea) 31. eta 32. artikuluetan xedatutakoa, prozedura ebazteko eskumena duen organoak beste edozein unetan, akordio arrazoitu baten bidez, honako behin-behineko neurriak hartu ditzake, espedientearen ebazpenaren eraginkortasuna eta prozeduraren xede ona bermatzeko eta arau-haustearen ondorioek iraun dezaten saihesteko xedez:

a) Obrak edo jarduerak bertan behera uztea.

b) Auditore energetiko gisa eta zerbitzu energetikoen enpresa gisa jarduera bertan behera uztea.

c) Neurri zuzentzaile edo prebentiboak hartzea pertsonenganako edo ingurumenarekiko kalteak ekiditeko.

d) Ekipoak ibilgetzea edo zigilatzea.

Aurreko neurriak pertsona interesatuari aurretiazko entzunaldirik egin gabe hartu daitezke, premiazko arrazoiengatik edo eragindako ondasun juridikoen garrantziagatik neurri horiek hartu beharra egiaztatzen denean.

71. artikulua.– Isun hertsatzaileak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoan energiaren alorrean eskumena duen organoak isun hertsatzaileak jarri ahal izango ditu, erantzuleak behartzeko lege honetan eta berau garatzen duten xedapenetan aurreikusitako preskripzioak bete ditzaten.

2.– Isun hertsatzaileak bata bestearen atzetik jarri ahal izango dira, eta agindutakoa betetzeko behar besteko tartea utzita aldian-aldian errepikaturik. Egindako errekerimenduak betetzen ez diren bakoitzean jarriko dira isunok, gutxienezko tartea hilabetekoa dela, harik eta agindutakoa betetzen den arte; kasu bakoitzean 6.000 euro izango da kopurua, gehienez ere.

Isun hertsatzaile bakoitzaren zenbatekoak ezingo du izan egindako arau-hausteagatik jarritako isuna baino handiagoa.

3.– Isun horiek jartzeko organo eskuduna zehapen arinak jartzeko eskumena duena bera izango da, non eta energiaren alorrean eskumenak dituen sailaren egitura organikoa zehazteko arauan beste organo bat aipatzen ez den.



4.– Nolanahi ere, isun hertsatzaileak ezartzea Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen (urriaren 1eko 39/2015 Legea) 103. artikuluan ezarritakoaren arabera egingo da.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Partzuergoak eta mankomunitateak.

Kasu horretan, hau da, ur-hornikuntzaz, hondakinak bildu eta tratatzeaz, hondakin-urak arazteaz eta hiltegiez arduratzen diren partzuergo eta mankomunitateen eraikin, instalazio, ibilgailu, argiteria publiko edo bestelako jardueren kasuan, dagokion partzuergo edo mankomunitateak bete beharko ditu lege honetan jasotako betebeharrak. Partzuergo edo mankomunitate horietan parte hartzen duten administrazioek haiek adosten dutenaren arabera emango dute laguntza.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Oinarrizko erreferentzia maila administrazio publikoentzat.

1.– Lege hau indarrean sartu eta gehienez ere bederatzi hilabeteko epean, lege honek eragiten dion Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publiko bakoitzak bere energia-kontsumoaren oinarrizko erreferentzia maila onartuko du, zeina helburuak ezartzeko abiapuntu izango den.

2.– Maila hori ezartzeko, legea indarrean sartu aurreko hiru urteetako batezbestekoa hartuko da kontuan. Horren ordez, lege hau indarrean sartu aurreko urtekoa edo beste urte batekoa hartu daiteke energia-kontsumoaren oinarrizko maila gisa, betiere justifikatuta badago eta lege hau onartu aurretik egindako jardueren balioa nabarmentzeko.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Energia-kontsumo ia nuluko eraikinak.

Harik eta kontsumo hori nola kuantifikatu jakiteko arau edo metodologia zehatz bat ezartzen ez den bitartean, eraikin batek energia-kontsumo ia nulua duela esango dugu A motako kalifikazio energetikoa badu.

2019ko abenduaren 27an argitaratu zen 732/2019 Errege Dekretua, abenduaren 20koa, martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak onartutako Eraikuntzaren Kode Teknikoa aldatzen duena, oinarrizko eskakizunen egituraren aldatetarik sartzen dituena, Europako araudira egokitzeko, eraikinekin bete behar dituzten eraginkortasun energetikoaren gutxienezko balioak berrikusten dira eta energia-kontsumo ia nuluko eraikinaren definizioa eguneratzen da.

LAUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektoriala.

Eusko Jaurlaritzak, lege hau indarrean sartu eta bi hilabeteko epean, Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektoriala egiteari ekingo dio. Plan hori bi urteko epean aurkeztu beharko du sail horrek.

BOSGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Tokiko erakundeei laguntzeko finantza-tresna.

Lege hau indarrean sartu eta justu hurrengo aurrekontu-ekitaldian, Eusko Jaurlaritzak, lege hori aplikatzeko egin beharreko inbertsioak errazteko asmoz, toki-erakundeei laguntzeko finantza-tresna bat eratuko du.



Finantza-tresna hori, betiere, 100 milioi eurekin eratuko da gutxienez. Tresna horren xedea da lege honen ondorio diren inbertsioak Tokiko Administrazioan erraztea.

Tresna hori berrerratzuz joango da aldez aurretik finantzaketa jasotzen duten administrazioetatik jasoko diren laguntzak itzultzearen bidez, energia-aurrezpenaren ondoriozko itzulkinen arabera.

AZKEN XEDAPENAK

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENA.– Erregelamenduzko garapenerako eskumena ematea.

Eusko Jaurlaritzari baimena ematen zaio lege hau betetzeko beharrezko diren erregelamendu-xedapen guztiak eman eta argitaratu ditzan, lege honetan berariaz aurreikusten diren xedapenez gain.

[254/2020 DEKRETUA] XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA.

Indargabetuta gelditzen da: irailaren 22ko 178/2015 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren jasangarritasun energetikoari buruzkoa.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Zenbatekoak eguneratzea.

Diru-isunetarako eta legean tipifikatutako arau-hausteen zehapenetarako lege honetan aurreikusitako zenbateko ekonomikoak aldian-aldian eguneratu ahal izango dira, energia alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailburuaren agindu baten bidez.

Halaber, lege honen aplikazio-eremuari atxikita egotea baldintzatzen duten azken energia-kontsumoak ere eguneratu ahal izango dira agindu horren bidez.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA.– Zenbait erakunderen jasangarritasun energetikoko planak.

Eusko Legebiltzarrak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eta Arartekoak jasangarritasun energetikoko beren planak egingo dituzte, eta bete egin beharko dituzte lege honetan xedatutako guztiak.

[254/2020 DEKRETUA] 2. artikulua.– Aplikazio-eremu subjektiboa.

3.– Otsailaren 21eko 4/2019 Legearen azken xedapenetako hirugarrenean adierazitakoari jarraikiz, dekretu hau aplikagarri izango zaie Eusko Legebiltzarrari, Herri Kontuen Euskal Epaitegiari eta arartekoari ere.

AZKEN XEDAPENETAKO LAUGARRENA.– Kontsumitzaile handien adierazpena.

Lege hau indarrean sartzen denetik hiru hileko epean, arau honek eragindako establezimendu industrialek, zerbitzu-sektoreko establezimenduek eta salgai eta bidaiarien garraio pribatuko enpresek erantzukizunpeko adierazpen bat igorri beharko diote, telematikoki, Eusko Jaurlaritzan energiaren alorrean eskumena duen sailari, beren buruak kokatzen dituzten taldeari eta tipologiari buruz, hori guztia betiere aipatutako sailari dagokion ikuskapen-ahalmenez baliatzeko aukera kendu gabe.

[254/2020 DEKRETUA] 31. artikulua.– Energia-kontsumoak aldian behin jakinaraztea.

1.– Otsailaren 21eko 4/2019 Legearen 29., 35. eta 45. artikuluetan jasotako sailkapenaren arabera, I1, I2, S1, S2 eta T1 motako kalifikazioa duten enpresek



urtero jakinarazi beharko dizkiote Eusko Jaurlaritzan energiaren arloko eskumena duen zuzendaritzari energia-kontsumitzaile handien adierazpenaren eguneratzea.

Jakinarazpen hori telematikoki egingo da urteko lehen hiruhilekoan, horretarako garatutako prozedura elektronikoaren bitartez, zeina Eusko Jaurlaritzan energiaren arloko eskumena duen sailaren webgunean eskuragarri dagoen (www.euskadi.eus/prozedurak-energia).

Eusko Jaurlaritzan energiaren arloko eskumena duen saila Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila da, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituena eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituena Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuan jasotzen den bezala.

2.– Adierazpenaren eguneratzean, Euskal Autonomia Erkidegoan dituzten eraikin, instalazio eta ibilgailu-parke guztiaren aurreko urteko azken energia-kontsumoak jaso beharko dira, baldin eta enpresa horiek beren jarduera ekonomikoa garatzean kudeatzen dituzten industria-, merkataritza- eta zerbitzu-jardueren parte badira.

AZKEN XEDAPENETAKO BOSGARRENA.– Indarrean sartzea.

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

[254/2020 DEKRETUA] XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA.

Otsailaren 21eko 4/2019 Legean eta dekretu honetan ezarritako epeak, baldin eta COVID-19k eragindako alarma-egoeraren hasiera- eta amaiera-datak epe horien barruan jasota badaude, aipatutako egoeraren iraupen-epe berean luzatuko dira.

II. ERANSKINA:

ORDEZKO ERREGAIEN IDENTIFIKAZIO-ETIKETAREN EREDUA

